


# JARDUNALDIAK



---

## ESPAZIO PUBLIKOAN BERDINTASUNA EGITEN

---



  
Bizkaia



■  
Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación Foral  
de Bizkaia  
■

---

# ESPAZIO PUBLIKOAN BERDINTASUNA EGITEN

---



Bizkaiko Foru  
Aldundia

Diputación Foral  
de Bizkaia

<b>IZENBURUA:</b>	“Espazio publikoan berdintasuna egiten”
<b>EGILEA:</b>	Bizkaiko Foru Aldundia. Lehendakaritza Saila.
<b>KOORDINAZIOA:</b>	Pilar Dosal. Bizkaiko Foru Aldundiko Aukera Berdintasunerako eta Genero Politiketarako Unitatearen Burua, eta Murgibe, S.L.
<b>IRUDI DISEINUA ETA MAKETAZIOA:</b>	Ana Rincón
<b>DATA:</b>	Martxoa, 2002
<b>ALE-KOPURUA:</b>	1.000
<b>DESKRIBATZAILEAK:</b>	Jardunaldiak, aukera berdintasuna
<b>FOTOMEKANIKA:</b>	Fotomecánica Esda. Padre Larramendi, 1 zk., 5. Solairua. 48012 Bilbao
<b>INPRIMAKETA:</b>	Estudios Gráficos Zure, S.A. Carretera Lutxana-Asua 24A. 48950 Erandio Goikoa
<b>ISBN:</b>	84-95790-01-7
<b>LEGE GORDAILUA:</b>	BI-561-0

# AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b> .....	9
JOSU BERGARA ETXEBARRIA jauna. Bizkaiko diputatu nagusia.	
<b>HITZAURREA</b> .....	12
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN jauna. Lehendakaritzako foru diputatua. Bizkaiko Foru Aldundia.	
<b>JARDUNALDIAREN INAUGURAZIOA</b> .....	17
JOSU BERGARA ETXEBARRIA jauna. Bizkaiko diputatu nagusia.	
<b>“PARISKO KONFERENTZIA: EMAKUMEAK ETA GIZONAK BOTEREAN. EUROPAKO IKUSPEGIA”</b> .....	21
ANA COUCELLO andrea. Hegoaldeko Europako Emakumeen Elkarteko lehendakaria (AFEM). Europako Emakumeen Lobby-ko Administrazio-Kontseiluko kidea. Berdintasunerako eta emakumeen eskubideen aldeko Portugaleko Gobernuko Batzordeko Kontsulta-Kontseiluko kidea. Portugaleko "Alianza para la Democracia Paritaria" eta "Red de Mujeres Autarcas" izeneko GKE-ko fundatzaile kidea.	
<b>“BERDINTASUNA: GURE ONDORETASUNA ETA GURE PROIEKTUA”</b> .....	49
ALICIA PULEO andrea. Filosofian Lizentziatua. Valladolideko Unibertsitateko Generoari buruzko Ikasketa Katedrako zuzendaria.	

<b>MAHAI-INGURUA: “EMAKUMEAK POLITIKAN”</b> .....	57
• <b>“EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA POLITIKAN”</b> .....	59
<p>PILAR FOLGUERA andrea.          Europako Emakumeen Lobby-ko Espainiako Koordinakundearen          lehendakariordea. Europako Batasuneko Jean Monnet Katedra.          Madrilgo Unibertsitate Autonomoan Historia Garaikideko irakaslea.</p>	
• <b>“BOTEREA TOKI ADMINISTRAZIOAN”</b> .....	69
<p>BEGOÑA SAN JOSÉ andrea.          Zuzenbidean Lizentziatua. Madrilgo Komunitateko Emakumeen          Kontseiluko lehendakaria.</p>	
• <b>“ERABAKIAK HARTZEA BERDINTASUNAREN          ALDEKO ERAKUNDEETAN”</b> .....	85
<p>NADINE DU BOIS andrea.          Luxemburgoko “Emakumeak erabakiak hartzeko guneeetan” Europako          Sarearen koordinatzailea.</p>	
<b>MAHAI-INGURUA: “ITXURAZKO BERDINTASUNAREN          AZPIAN BERDINTASUNIK EZ”</b> .....	91
• <b>“BOTEREA HEZKUNTZAKO CURRICULUM          EZKUTUAN”</b> .....	93
<p>ANA VARGAS MARTÍNEZ andrea.          DUODA Zentroko historialaria eta ikertzailea.          Bartzelonako Unibertsitatea.</p>	
• <b>“EMAKUMEAK ZIENTZIETAN ETA EZAUPIDEETAN          IKUSTEZINAK”</b> .....	103
<p>TERESA NUÑO ANGÓS andrea.          E.H.U.ko Zientzia Kimikoetako doktorea. Matematika eta Zientzia          Esperimentalen Didaktika Saileko Unibertsitate Eskolako katedraduna.</p>	

• <b>“KRISTALEZKO SABAIA EKONOMIAN”</b> .....	126
---	-----

MYRTHA CASANOVA andrea.

Dibertsitatea Kudeatzeko Europako Institutuko lehendakaria eta  
Emakumeen Zuzendaritza Garapenerako Europako Sarearen  
lehendakari-ohia. (EWMD)

INMA PARRA andrea.

Dibertsitatea Kudeatzeko Europako Institutuko kidea.

<b>SOLASALDIA</b> .....	135
-------------------------	-----

<b>ESKER ONAK</b> .....	152
-------------------------	-----

---

## AURKEZPENA

---

Demokrazia sistemen oinarrietariko bat hiritarren parte hartze eta ordezkari-tza oso eta orekatuaren abiaburua da.

Emakumeen eta gizonezkoen berdintasuna teorian zein praktikan oinarritzko giza eskubidea da eta nazioarteko hainbat arautan aintzatetsi eta baieztatu da eskubide hori, hala nola, emakumeen aurka egon daitezkeen diskriminazioa mota guztiak ezabatzeko Nazio Batuek egin zuten Konbentzioan (1979) eta Pekineko Ekintza Plataforman (1995).

Nazioarteko dei horiek euren oihartzuna izan dute Europan. Azken hamarkadan hainbat ekimen egin dira: "Emakumeak erabakiak hartzen" sarea, Emakumeen Europako Lobbya, "Emakumeak boterean" gaiaren inguruan Atenasen egin zen konferentzia, "Emakumeak politika berritzearen alde gizaritean" gaiaren inguruko konferentzia Erroman, "Emakumezkoak eta gizonezkoak boterean" Parisen etab.

Europako Elkarteko kide diren estatuak egindako gutun eta adierazpenen bidez aintzatetsi da gizarte demokratiko baten justizia eta berdintasuna bermatzeko, erabakiak hartzeko eremuetan emakumezkoek era orekatuan parte hartu behar dutela baina gainera parte hartze horren bidez, demokrazia eta haren mekanismoak indartu egiten direla.

Hainbat herrialde lanean ari dira gizartearen esparru guztietan ordezkari-tza hori "nola" gehitu erabakitzeko.

Horrekin batera eta gizartearen hainbat arlotan emakumeek zein ordezkari-tza eta botere duten aztertzeko ikerketak eta azterlanak egiten ari dira, hau da ekonomia arloan, jakintzan, ezagutzan eta politikan edo gizarte mailan izan daitezkeen ordezkari-tzetan (udalak, gobernuak, sindikatuak, etab.) emakume-ek zein botere eta ordezkari-tza duten aztertzen ari dira.

Horrela ba, gizartean egin behar diren aldaketak katalizatzeko konpromisoa hartu dute erakundeek eta konpromiso hori oinarritzat hartuta aurkeztu dugu argitarapen hau. Bizkaiko Foru Aldundiak 2001eko azaroaren 12an Euskalduna Jauregian antolatu zuen jardunaldia eta "Espazio publikoan berdintasuna egiten" jardunaldian gertatutakoa biltzen da argitalpen honetan.

Gizartean gertatzen diren desberdintasunak, agerian orekatuak diren hitzaldi eta jardunak barne, zehatz-mehatz aztertu nahi zituzten guztientzako antolatu zen jardunaldi hau eta gizartearen egoera aztertzeaz gain, gizarte orekatu eta solidarioago bat lortzeko bide berriak bilatu nahi izan ditugu jardunaldiotan.

Administrazioko hainbat arlotan lan egiten duten pertsonak hartu zuten parte jardunaldiotan eta baita erakunde pribatuetako langileak, giza eragileak, Unibertsitateko langileak eta elkarteen munduan lan egiten duten hainbat eta hainbat lagunek.


Espazio publikoan emakumeak parte hartzeari buruzko ideia eta esperientziak proposatu eta horien inguruan gogoeta egiteko aukera izan genuen jardunaldiotan.

Horretarako hainbat ordezkari taldeetako emakumeek historian zehar egon diren aurrerapen eta eragozpenen berri eman zuten; horiek oinarritzat hartuta, ibilbide berriak eta zaharrak aztertu eta nondik jo erabaki ahal izateko. Honako talde hauetako emakumeek parte hartu dute jardunaldietan: Europako emakumeen Lobbya edo "Emakumeak erabakiak hartzeko postuetan" Europako sarea, Unibertsitateko hainbat kide eta toki administrazioan, hezkuntza eta ekonomia arloan eguneroko "zereginen" lan egiten dutenak.

Ekitaldi hori burutu eta argitaratzean politika, ekonomia, lan eta gizarte eremuetan aldaketa eta motibazioa bultzatu nahi izan ditugu erabakiak hartzeko prozesu guztietan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko elkarrekin eta etengabe lan egin dezaten. Europako Elkarteak oraintsu eman dituen jarraibideetan lehentasuna eman zaio berdintasun hori lortzeari.



Bizkaiko Foru Aldundian ildo horretan lanean ari gara eta gizarte osoa arlo horretan lan egitera bultzatu nahi dugu, emakumezkoak zein gizonezkoak; hitzarmen berri baten aldeko konpromisoa har dezaten. Horixe izango da gizarte solidarioagoa eta ekonomia dinamikoagoa lortzeko bidea, lortu nahi dugun Europa lortzeko bidea alegia.

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'J. Bergara'. The signature is stylized and somewhat abstract, with a horizontal line crossing through the middle of the letters.

JOSU BERGARA ETXEBARRIA jauna  
Bizkaiko diputatu nagusia

---

## HITZAURREA

---

Nazioarteko eta Europako hainbat azterketa eta konferentzietan argi geratu da emakume gutxi daudela erabakiak hartzen diren postuetan, boterea banatzen den eremuetan edo esparru eragileetan. Gune horietan emakumeen ordezkaritza urria dela erakutsi dute azterketa eta konferentzia horiek.

Sexuen arteko aukera berdintasuna da Europako demokrazia ereduaren oinarriko abiaburuetariko bat. Hala ere, hautatzeko eta hautatuak izateko edo jendaurreko jardunean goi mailako karguak izateko guztiok eskubidea izateak ez du esan nahi praktikan hori benetan lortu denik.

Ordezkaritza erakundeetan, administrazioko erakundeetan eta erakunde aholkularietan, komunikabideetan, finantza munduan, justizia arloan eta herri administrazioan emakume baina gizon gehiago ari da lanean. Horrek defizit demokratikoa dagoela erakusten digu eta egoera hori dela eta, erakunde horiek ez dira izan beharko liratekeen bezain legebidezkoak.

Europako Elkartea osatzen duten estatu gehienetan gertatzen da defizit demokratiko hori eta lehenbailehen zuzendu beharreko arazoa da, diskriminazioa eragiteaz gain, arazo horrek demokrazia bera ere arriskuan jartzen baitu.

Testuinguru berri honetan beraz, Europan zenbait botere eremutan sartzen ari dira gutxi-gutxika emakumeak eta emakumeen ordezkaritza ere gehitzen ari da baina erabakiak hartzen diren esparruetan edo boterea banatzen den eremuetan gizonen zein emakumeen maila berean parte hartzea lortu behar da eta gaur egun oraindik baieztatu ez den parekotasun hori lortzeko lege arloan hartu behar diren neurriak eta programak onesteko Europako elkarteko kide diren estatu gehienek ez dutela inolako ekimenik abiarazi maila nazionalan. Horrela ba, ondorioztatu dezakegu, gobernuen artean erabakitzen dutena eta euren herrialdeetan gauzatzen dutena ez datozela bat, erabakitzen denaren eta egiten denaren artean ez dago inolako koherentziarik alegia. Inspirazioa ez da falta dena, jarraibideak, egitasmo estrategikoak edo neurri

zehatzak ere finkatuta daude, ez dago benetako borondate politikorik ordea, hori da falta dena horiek guztiak praktikan jartzeko benetako borondatea.

Kezka hori oinarritzat hartuta eta oraindik gaur egun ikus ditzakegun diskriminazio eta sexu arteko desberdintasunekin bukatzeko borondate politikoa erakutsi du Bizkaiko Foru Aldundiak. Hori lortzeko estrategia, errekurtsio eta tresna egokiak garatzen eta bultzatzen ari gara eta ia bi urte daramatzagu lan horretan.

Horrela ba, Lehendakaritza Sailaren barruan Aukera Berdintasunerako eta Genero Politiketarako Unitatea sortu genuen 2000ko martxoan eta gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunari buruzko Foru Plana onetsi genuen. Horiez gain beste hainbat jarduera garatu ditugu eta guztiak xede bat lortzeko, Aldundiaren politika eta egitasmo guztietan generoaren ikuspegia (zeharka bada ere) kontuan hartzea.

Planean agertzen diren ekintza zehatzez gain, generoaren ikuspegia benetan garatu ahal izateko aukera berdintasuna lortzean emakume zein gizonetzkoek izan behar duten parte hartzeari buruzko gogoeta egin behar dugu eta gogoeta horri aparteko arreta eskaini behar diogu.

Ildo horretan beraz, ideiak zabaldu eta eztabaida sustatzeko hainbat jarduera gauzatu ditu Bizkaiko Foru Aldundiak.

2001eko azaroan "espazio publikoan emakumeak duten parte hartzea" gaia landu genuen. Historian zehar espazio publikoa gizonen esparrua izan da eta esparru horretara sartzeko zailtasun handiak izan dituzte emakumeek. Esparru horretan behar-beharrezkoak dira kuotak baina kuotaz gain, gizartearen kultura ere aldatu egin behar da; gizonen gaitasun eta eskakizunetara egokitu dira gizartearen lan egiteko modua, estiloa eta harremanak eta hori aldatu egin behar da. Kultura horretan, modu irekian edo zorrotzean emakumeek diskriminatuta jarraitzen dute hainbat eremutan, hala nola, zientziaren eremuan, hezkuntza edo politika arloan, hauteskundeetan, negozioetan...

Espazio publikoan gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna lortzeko agerian zein ezkutuan dauden oztopoen inguruan gogoeta egin nahi izan dugu jardunaldi hauetan.

Ondoren agertzen den jardunaldia argitaratzean jardunaldi horretan parte hartu zutenen iritziak, esperientziak eta eztabaida argitan jarri nahi izan ditugu.

Hegoaldeko Europako Emakumeen elkartearen buruak eta Emakumeen Europako Lobbyko kideak parte hartu zuen jardunaldiotan eta erabakiak hartzen diren guneetan eta boterea banatzen den esparruetan emakumeek eta gizonek, European, zein parte hartze duten adierazi zuen.

Jarraian Valladolideko Unibertsitateko genero azterketen katedrako zuzendariak filosofia eta historian oinarritutako gogoeta interesgarria azaldu zuen eta adierazi zuen feminismoak, berdintasunaren paradigmari esker, aldatu egin dituela gure gizartean emakumeen eta gizonen artean dauden harremanak.

Ondoren hainbat hitzaldi aurkeztu ziren bi mahainguru hauen inguruan; bata "Emakumeak politikan" gaiaren inguruan egin da eta bestea "Itxurazko berdintasunaren azpian berdintasunik ez" gaiaren inguruan.

Lehenengo mahai-inguruan Emakumeen Europako Lobbyaren Espainiako koordinadoraren lehendakariordeak parte hartu zuen eta Estatuko erakundeetan emakume gehiagok parte har dezatela bermatzeko oraindik lortzeke dauden erronken berri eman zuen; politika esparruan emakumeak buru izateko bide berriak jorratu behar dira, emakumeek ordezkari izateko bideak landu behar dira, familia bizitza eta jarduera politikoa bateratzeko ohitura berriak sortu behar dira eta langabeziarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarekin bukatu behar da etab.

Mahai-inguruan aztertu zen gaia hurbilagotik aztertzeke Madrileko Erkidegoko Emakumeen Kontseiluko buruak parte hartu zuen. Tokiko boterean emakume gehiagok parte hartu behar duela adierazi zuen, horrek eragindako ondorioen berri eman zuen eta horren inguruko gogoetak aipatu zituen.

Azkenez, "Emakumeak erabakiak hartzerakoan" Europako sareak Luxenburgon duen koordinadorak oraintsu aztertu du zein den emakumeek politikan duten parte hartzea eta baita emakumeek hauteskundeekiko duten jarrera zein den ere; jardunaldi hauetan zehatz-mehatz jakin ahal izan ditugu zeintzuk izan diren azterketa horren ondorioak.

Bigarren mahai-inguruarekin bukatu zen jardunaldia eta bertan hiru parte hartze izan ziren, horietako bi ezagutza eta jakintza arloko ordezkariak eman zituzten eta bertan burutzan eta boterean egoteko gaitasunak eta trebetasunak sortzeko hezkuntzak zein paper jokatzen duen aztertzeaz gain, horren inguru-

ko gogoeta egin zuten eta horrez gain, zientzia eta jakintza arloan emakume oso gutxi zegoela ere aipatu zen; historialari batek eta Euskal Herriko Unibertsitateko Genero eta Zientzia Ikerketa lerroko arduradunak eman zituzten azalpen horiek.


Emakumeek sistema ekonomikoan eta boterearen eremuan oraindik kristalezko sabaia dute eta horixe aztertu zen hirugarren eta azken parte hartze honetan eta horren inguruan gogoeta egin zuen aniztasuna kudeatzeko Europako institutuak.

Azkenez, eskerrak eman nahi dizkiegu jardunaldi honetan aktiboki parte hartu duten guztiei, jardunaldioi egin dizkioten ekarpenengatik. Parte hartzaileek egindako ekarpenak eta oharrak solasaldia izeneko atalean agertzen dira.

Ez da legebidezkoa guztionak diren baliabideak nori adjudikatu behar zaizkion erabakitzea, garapen arloan ezin ditugu lehentasunak ezarri eta ezta gudaren eta bakearen inguruan ere; hitz gutxitan esateko ezin dugu gizateriaren etorkizunari buruz erabaki gizateri horren erdia kontuan hartu gabe, emakumerik eta orekarik gabe ezin dugu etorkizuna eraiki.

Emakume eta gizonen arteko botere harremanaren ikuspegia sartu behar dugu jendaurreko politiketan eta gainera arlo horretan oinarritzat hartu behar da generoaren arteko desberdintasuna oztopoa dela emakumeen aurrerapena eta giza eskubideak lortzeko. Oztopo horiekin bukatzea da mundu orekatsua baten alde lan egiten dugunok XXI. mendean lortu nahi dugun erronka.

Gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna lortzea asmo on hutsen gera ez dadin garatu beharreko ekintza guztiak bultzatu eta aldatzeko lanean jarraituko dugu; horrela bizkaitarrok ikus dezagun Bizkaian aukera berdintasuna errealitatea dela.



JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN jauna  
Lehendakaritzako foru diputatua  
Bizkaiko Foru Aldundia



---

# JARDUNALDIAREN INAUGURAZIOA

---

**JOSU BERGARA ETXEBARRIA** jauna  
Bizkaiko diputatu nagusia





---

## JARDUNALDIAREN INAUGURAZIOA

---

DAGOENKO GIZONEZKOEK ETA  
EMAKUMEZKOEK ESKUBIDE BERDINAK  
DITUZTE. AUKERA BERDINTASUNA,  
OSTERA, ORAINDIK AMETSA BAINO EZ DA.

Besteak beste, ondorio hori atera zuten Parisen 1999ko apirilean, "Emakumezkoak eta Gizonezkoak agintean" izenpeko Europar Konferentzian. Hain zuzen ere, jardunaldi honetan sakonago aztertu behar dugu gai hori.

Baieztape zehatza da, Europar Batasuneko herri guztietako datuetatik ateratakoa, eta guk onartu egin behar dugu bere ondore guztiekin. Erronka gisa hartu behar dugu, akuilua izan behar du gizon eta emakumeen aukera desberdintasunaren lubaki sakon hori beteko duten politikak egiteko.

Izan ere, eremu publikoa beti izan da geurea, gizonezkoona: politikagizon, enpresagizon, zientziagizon, ministro, soldadu.... Beraz, guk ez daukagu eremu horretan sartzen ahalegindu beharrik, baina saiatu egin behar gara zubi berriak egiten eremu publikoaren eta pribatuaren artean, antzinatek emakumei eta gizonei ezartzen zaizkien egitekoen artean. Sexuen arteko desberdintasunezko harremanak aldatu egin behar ditugu.

Kopuruek agerian jartzen dute desberdintasuna. Parlamentu batzuetan eta alderdi politikoen zuzendaritza batzuetan emakumezkoak %30 izan behar direla erabaki da. Portzentaje hori, antza denez, goiko langa izango da, eta ez erraz botatzen direnetakoa. Bertara iristea ere nahikoa zaila gertatzen da.

Honelako jardunaldiek betiko egoerari eusten laguntzen duten faktoreak aztertzen laguntzen digutela uste dut. Alde batetik oztopo objektiboak ditugu, esate baterako, historia eta kultura, gizartearen eta ekonomiaren ezaugarriak,

hezkuntza, politikagintzan diharduten erakunde tradizionalen egitura bera, eta abarrekoak. Baina badaude faktore subjektiboak ere, eremu publikoan eta aginte guneeetan plazaratu eta parte hartzeari buruz gizonaek eta emakumeek ikuspegi desberdinak dituztelako.

Esan beharrik ez dago, emakume asko gu baino askoz aurreratuago dabiltz arlo honetan sartzeko oztopoei buruzko gogoetan eta ikerketan. Hain zuzen ere, emakumeek gaintitu behar dituztelako oztopoak. Guk entzun egiten ditugu noizbehinka, eta kasurik onenean ere konpromisoak sinatzen ditugu egoera aldatzen saiatzeko. Baina, egia esan, inoiz ez dugu sakonean aztertu zergatik dagoen hainbeste traba emakumeek jarduera publikoetan eta agintean organoetan parte har dezaten eta zergatik ez diren traba horiek kentzen.

Horra hor mende honetako erronka nagusietariko bat. Bizkaiko Foru Aldundiak, gizon eta emakumeen aukera berdintasunerako Gizarte Ekintzarako 2001-2005 urteetarako V. Egitarauaren ildotik, Berdintasunerako Foru Planean hain zuzen, helburu eta ekintza zehatzak ezarri ditu, estrategia eta tresna egokiak garatu nahi dituelako emakumeek erabakiak hartzen parte har dezaten maila guztietan, politikan, ekonomian nahiz gizartearen.

Ahalegin horretan baditugu zailtasunak eta oztopoak, batzuk agerikoak eta beste batzuk lehen begiradan nabaritzen ez direnak. Jardunaldi honen azkenean, beharbada, bitarteko gehiago edukiko ditugu azaleko berdintasunaren azpian dagoen desberdintasunari antzemateko eta ekiteko.

Jardunaldi honetarako gonbitean esan dugunez, uste dugu zuek guztiok aukera ona izango duzuela emakumeek zenbait eremu publikotan duten lekua-ri buruz hausnar egin eta gai horren inguruko ideiak eta esperientziak azaldu eta proposatzeko.

Orain dela gutxi Bakearen Nobel Saria jaso duen Nazio Batuen Erakundearen aurreikuspenaren arabera, 100 urte igaro behar dira gizonaek eta emakumeek arteko desberdintasunaren leizea bete dadin. Hemen gaudenetatik gehienok ez dugu ikusiko.

Honelako ekintzek laburtuko ahal dute NBEk ezarritako epe hori, hilabete edo egun gutxi batzuk baino ez bada ere. Bizkaiko gizon eta emakumeek merezi dute ahalegina. Foru Aldundiak behintzat hala uste du.



---

**PARISKO KONFERENTZIA:  
EMAKUMEAK ETA GIZONAK  
BOTEREAN.  
EUROPAKO IKUSPEGIA**

---

**ANA COUCELLO andrea**  
Hegoaldeko Europako Emakumeen Elkarteko  
lehendakaria (AFEM). Europako Emakumeen  
Lobby-ko Administrazio-Kontseiluko kidea.  
Berdintasunerako eta emakumeen eskubideen  
aldeko Portugaleko Gobernuko Batzordeko  
Kontsulta-Kontseiluko kidea. Portugaleko "Alianza  
para la Democracia Paritaria" eta "Red de Mujeres  
Autarcas" izeneko GKE-ko fundatzaile kidea



---

## **PARISKO KONFERENTZIA: EMAKUMEAK ETA GIZONAK BOTEREAN. EUROPAKO IKUSPEGIA**

---

Lehenik eta behin, Bizkaiko Foru Aldundiari eskerrak eman nahi dizkiot hona gonbidatu izanagatik. Oso pozik nago hemen egoteagatik eta seguru nago ekimen hau lagungarri gertatuko dela demokraziaren egungo eskakizunak hobeto ulertzeko eta herritarren parte-hartze demokratikoa sustatzeko.

Proposatu didaten gaia maila handikoa da: "Emakumeak eta gizonak boterean. European gauzak zertan diren". Beraz, Europa komunitarioko emakumeek European duten parte-hartzea azaldu beharra daukat.

Datuen alderaketa egin nezake, besterik gabe, baina hori aspergarria litzateke, eta gainera ez litzateke mesedegarri gertatuko ez eztabaidan sartzeko ez eta emakumeak boteretik urruntzearen ondorio den defizit demokratikoaren aurrean eta arazo horrek demokraziari eragiten dion arriskuaren aurrean soluziobideak bilatzeko ere. Alternatiba gisa, zenbait datu alderatu ez ezik, nire iritziz gaiarekin estu loturik dauden zenbait gairen inguruan elkarren arteko hausnarketa egin dezagun proposatu nahi dizuet.

Bi aipurekin hasiko naiz:

Lehen Spinoza filosofoaren Tratatu Politikoan aurkitzen dugu: "esan deza-kegu... .. ezinezkoa dela bi sexuak berdintasunez gobernatzea, eta are gutxiago emakumeek gizonezkoak gobernatzea. ... .. Ezinezkoa litzateke gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna ezarri bakeari kalte handirik eragin gabe"(1)

---

(1) Spinoza, Baruch – Tratatu politikoa.

Bigarrena Europako Batzordearen komunikatu hau da: "emakumeek eta gizonek berdintasunean parte hartzea ezinbestekoa da garapen iraunkorrari begira, eta gizartearen heldutasun politikoko mailaren adierazgarri da: demokraziak emakumeen emantzipazioa aldarrikatzen du, eta horrek, aldi berean, demokrazia bermatzen du." (2)

Baieztapeen kontraesankor horiek, denboran elkarrengandik oso urruti badaude ere, egun indarrean dagoen eztabaida baten muturreko jarreraren berri ematen dute; izan ere, horregatik gaude gaur hemen espazio publikoan berdintasuna eraikitzea gaiari buruzko arazoaren inguruan eztabaidatzeko.

Aurrez aipatu dudana bezala, emakumeek eta gizonek boterean duten parte-hartzea Europan zertan den azaldu baino lehen, gaiari estu loturik dauden gai batzuk laburbildu nahi nituzke, nire iritziz garrantzizkoak direnak.

Lehenbizi garrantzizko erreferentzia batzuk nabarmendu nahi ditut:

- Emakumeek biztanleriaren gehiengoa osatzen dute.
- Emakumeek zeharkako ordezkartza dute kategoria sozial guztietan (esaterako, Amsterdameko Itunaren 13. artikuluan biltzen diren kategoria guztietan).
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eskubidea ezarri izanak eskubide hori esparru guztietan ezarriko dela esan nahi du.

Garrantzizko beste erreferentzia hau ere nabarmendu beharra dago: dualtasuna da gizateriaren funtsa.

Hala da, gizateriak ez du erreferentzia eredu bakarra, gizateria duala da. Gizonezkoa ezin da erreferentzia unibertsala izan, emakumeak ere tartean daudelako. Gizona, gizakia edo giza pertsona errealitatean oinarritzen ez den eta erreferentzia nagusizat gizakia hartu duen abstrakzio baten izendapen desberdinak dira. Inoiz ez dugu gizakirik ikusi, gizonezkoak eta emakumezkoak ikusten baititugu. Beraz, gizakiaren irudikapena izatekotan, hark bikotea behar du ezinbestean: emakumezkoa eta gizonezkoa. Arrazoibide xume

---

(2) Batzordearen komunikazio honetatik aterata: «Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aukera berdintasuna sartzeko politika eta ekintza komunitarioen multzoan» (KOM (96) 67 azkena).

horretan oinarritzen dira, hain zuzen, bai parekotasun kontzeptua bai parekotasuneko demokrazia eraiki behar diren eskakizuna.

Nire irudiko, benetako demokrazia –espazio publikoan berdintasuna eskatzen duena– eraikitzeko, gogoeta, eztabaida eta konponbideak erreferentzia nagusi horiek izan behar dituzte oinarrian.

Parekotasun kontzeptu hori 1989ko azaroan aurkeztu zen lehenengo aldiz jendaurrera, Europako Kontseiluaren mintegi batean, hain zuzen. Sexuen arteko diskriminaziorik ezaren eta berdintasunaren aldeko legezko neurriak, ordea, lehenagotik ere adierazita zeuden Europar Batasuneko herrialdeen zuzenbidean, nola nazio mailako legezko ekimenen ondorioz, hala herrialde horiek gobernuarteko beste instituzio batzuen esparruan onetsitako beste tresna batzuen ondorioz.

Instituzio horien esparruan onartu diren tresnen artean, espazio publikoko berdintasunari dagozkion berariazko xedapen batzuk nabarmenduko nituzke, bereziki emakumeak boterera eta erabakiak hartzera heltzeari dagozkionak. Ahalik eta laburren egingo dut:

- 1975ean, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak onartutako 606. Erabakia, emakumeen eskubide politikoei buruzkoa.
- 1979an, Emakumeenganako Diskriminazio Forma Guztiak Deuseztatzeko Akordioa, Nazio Batuen Batzar Orokorrek onartua eta jarraian Nazio Batuen kide gehienek berretsi zutena. Une honetan indarrean dago Europar Batasuneko estatu kide guztien ordenamendu juridikoan.

Akordio honen 7. artikuluan arabera, hura izenpetzen duten herrialdeek konpromiso zehatza hartzen dute beharrezkoak diren neurriak abian jartzeko, bizitza politikoan eta publikoan emakumeen aurkako diskriminazioa deuseztatzeko xedez. Orobat, 4. artikuluan ezartzen duenez, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko izatezko berdintasuna azkartzeko behin-behineko neurri bereziak abian jartzea ezin da diskriminaziotzat jo. Beraz, akordio honek neurri positiboak ezartzea legitimatzen du. Gainera, hura izenpetzen duten herrialdeek aldizkako txostenak aurkeztu behar dituzte, Akordioa beren lurraldeetan nola ezartzen ari den ebaluatuko dutenak, xede horretarako osa-



tuko den Batzordearen aurrean: CEDAW batzordea (CEDAW aipatu akordio-aren ingelesezko akronimoa da).

- 1986an, eta beste behin Europako Kontseiluaren esparruan, bizitza publiko eta politikoan gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko Adierazpena eta bizitza politikoan eta erabakiak hartzeko prozesuan berdintasuna lortzeko politikei eta estrategiei buruzko Erabakia, Europako Ministroen berdintasunaren aldeko Lehen Konferentzian onartu zirenak, Estrasburgon.

Jarraian, eta 90eko hamarkadan zehar, beste tresna transnazional batzuk onartu ziren, boterean eta erabakiak hartzean emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko neurriak abian jartzea sustatzen dutenak.

Esaterako, 1995ean Nazio Batuek antolatu zuten Emakumeen IV. Munduko Konferentzian, Beijingo Adierazpena eta Ekintza Programa onartu ziren.

Ekintza Programa honetan:

- "boterea eta erabakimena" alorra esku-hartzeko hamabi alor kritikoetako bat izan zen;
- helburu estrategikoak zehaztu ziren;
- eta zenbait neurri ezarri ziren, Nazio Batuen sistemak, eskualdeko gobernuarteko instituzioek, gobernuak, alderdi politikoek, sindikatuek eta patronalek eta gobernutik kanpoko erakundeek abian jarri behar dituztenak.

Programa hori nola ezarri den ebaluatzeko, Nazio Batuen Batzar Orokorrak ezohizko saio bat egin zuen: "Genero Berdintasuna, Garapena eta Bakea, XXI. mendeari begira". Hartan, adierazpen berri bat eta ebaluazioko eta ekintzako agiri berri bat onartu ziren: "Beijingo Adierazpena eta Ekintza Programa abian jartzeko Geroko Ekimenak eta Ekintzak".

Bestetik, 1996ko abenduaren 2ko Europar Batasuneko Kontseiluaren Gomendioak, erabakiak hartzeko prozesuan emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatuari dagokionak, bide beretik jarraitzen du, eta estatu kideei gomendatzen die xede horretarako neurri zehatz batzuk abian jar ditzaten. Batzordeari ere eskatzen zaio urtero txosten bat egin dezan, Europako

Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzorde Ekonomiko eta Sozialak gomendio hori nola gauzatu duten ebaluatzeko, estatu kideek eta Europako Elkartetako instituzioek, organoek eta erakunde deszentralizatuak emandako informazioen arabera.

Azkenik, Europako Kontseiluaren esparruan 1997ko azaroan Istanbulen burutu zen Europako Ministroen IV. Konferentzian, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko adierazpena, hura demokraziaren oinarritzko irizpidetzat hartuta onartu zen.

Istanbulerako adierazpen horretan, Konferentzian parte hartu zuten estatuetako ministroek:

- azpimarratzen dute “erabaki politikoak hartzean gizonen eta emakumeen ordezkaritza orekatua izateak gizarte demokratikoaren funtzionamendu hobea bermatuko lukeela”;
- nabarmentzen dute “gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzearen aldeko ekintza emakumei bakarrik ez, baizik eta gizartearen kide guztiei, hots, emakumei eta gizoni "dagokiela", eta beraz gizarte osoaren ardura eskatzen duela”;
- uste dute “gizonen konpromiso handiagoa hartu behar dutela gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko”;

eta adosten dute:

- “berdintasunak eskatzen duela ezarritako boterearen egiturak eta sexuen rol estereotipatuak zalantzan jartzea, positiboki eta dinamikoki, maila guztietan egiturazko aldaketa eta, azken buruan, ordena sozial berria ezartzeko xedearekin”;
- “emakumeek bizitza politiko eta publikoan parte-hartze eta ordezkaritza orekatua lortzeko aurre egin behar dieten trabetariko batzuk hauteskunde sistemen eta instituzio politikoaren, bereziki alderdi politikoaren, egituraren eta funtzionamenduaren ondorio direla”.

eta azkenik, Adierazpen honek eranstean du:

- “gizonezkoen bizitza pribatuan, zainketa lanei lotutako erantzukizunetan, eta bereziki haurrei, familiari eta etxeari dagozkien zereginetan parte-

hartze handiagoa izateak, eta bizitza politikoko, publikoko eta profesionaleko erabakiei dagozkien erantzukizunak emakumeekin zuzenago banatzeak guztion bizitza kalitatea hobetuko luketela”.

Azken baieztapen horrek agerian uzten duenez, bizitza pribatuko erantzukizun eta zereginen banaketa eta bizitza publikoko, politikoko eta profesionaleko aukera berdintasuna estu loturik daude.

EBko estatu kide batzuek, baina, oraindik ez dute nazio mailan ez legegintza neurririk ez programarik edo neurririk hartu, boterean eta erabakiak hartzean berdintasuneko parte-hartzea ezartzea helburu izango luketenak. Hori dela eta, ezbairik gabe esan dezakegu koherentziarik ez dagoela, gobernuarte mailan onartzen dutenaren eta beren herrialdeetan burutzen dutenaren artean. Eta hori ez da gertatzen inspirazio iturririk, ildo nagusirik, programa estrategikorik, neurri zehatzik ez dutelako; benetan falta zaiena borondate politikoa da, neurri horiek abian jartzeko.

Nire irudiko, gobernuarte mailan onartutako tresna horiek oso baliagarri gerta dakizkieke bai emakumeen eskubideen aldeko GKEei bai haiekin bat egin nahi duten gizarte zibileko eragileei, parlamentuen eta nazioko eta eskualdeko gobernuen aurrean presioa egiteko, baita instituzio komunitarioen aurrean ere, horiek ere defendatzen dutena bete behar dutelako.



Emakumeek eta gizek Europa komunitarioaren boterean duten parte-hartzearen berri emango diguten zenbait datu aztertzen hasi aurretik, aldez aurretikoak diren arazo batzuen inguruan baterako hausnarketa egiteko proposamena egin nahi dizuet.

Izan ere, datuak –bereziki, zenbakiak– lortu eta alderatu behar ditugunean, berehala konturatzen gara lan hori ez dela batere erraza, estatistika datuen bilketan hutsuneak daudelako, bilketa hori ez sistematizaturik ez zentralizaturik ez dagoelako, eta dauden datu batzuk alderatu baino lehenago, beste alderaketa batzuk egin behar ditugulako.

## LEHENBIZI, HUTSUNEAK

Jakina da gizonezkoek eta emakumezkoek boterean duten parte-hartzea neurtzeko ez dela nahikoa emakumeek botere demokratikoko instantzietan duten parte-hartzeari dagozkion datuak biltzearekin. Izan ere, boterea beste instantzia batzuen bidez ere ezartzen da, eta haietako batzuk ez dira ez printzipio demokratikoen ez guztien ongiaren aldekoak (esaterako, enpresa multinazional handiak, garapenean, ingurumenean, alegia, gure bizitza kalitatean zuzeneko eragina duten erabakiak hartzen dituztenak; baita, muturrera joanda, pertsonekin, armekin eta drogekin trafikatzan duten kartelak ere, legez kanpoko etekin ugarien jabe izaki izugarritzko boterea dutenak...). Botere instantziarik gardenenak soilik aztertuz gero, gizonezkoek eta emakumezkoek boterean duten parte-hartzea zertan den zehazki jakiteko, emakumeek honako esparru hauetan duten presentzia aztertu behar dugu:

- botere judizialean (hirugarren boterea osatzen du);
- administrazio publikoan, bereziki hainbat alor berezitan: diplomazia, indar armatuak eta poliziak; baina baita bereziki ministerio nagusien erabakimenean eragin berezia duten maila jakin batzuetan ere;
- alderdi politikoetan;
- elkarrizketa sozialaren esparruan jarduten duten erakundeetan, sindikatuetan, patronaletan, elkarte sozio-profesionalak;
- hedabideetan (laugarren boterea osatzen du);
- zientzian eta teknologikoki aurreratuen dauden sektore ekonomikoetan, alegia, ikerketa eta garapena alorreko jardueretan;
- finantza instituzioetan;
- enpresa ekonomiko handietan.

Eta azkenik,

- hirugarren sektorean, gizarte zibilaren parte hartzea duten erakundeek osatzen dutena. Izan ere, elkarrizketa zibila egituratzearen, ezinbestekoa da emakumeek aipatu erakunde horietan betetzen duten lekua zein den ezagutzea, boterea elkarrizketa politiko eta sozialaren esparruan bezala banatzen den ala ez jakiteko.

Dena den, oraindik ere zenbait hutsune aurkitzen dugu, zenbakizko datuen bilketari dagokionez.

## JARRAIAN, ARAZOAK

Gainera, datuak sailkatzeko arazoak ere aurkitzen ditugu, baita estatistika datuen bilketa aurreratua dagoenean ere, bilketa hori ez dagoelako ez sistematizaturik ez zentralizaturik. Herrialde batzuetan, berdintasunerako politikak burutzen dituzten mekanismo instituzionalek zenbait trabari ere egin behar diete aurre eguneratutako eta sexuen arabera sailkatutako datuetara heltzeko. Beraz, Batzordeak landutako urteko txostenak ez dira oso sakonak, eta bereziki datu kualitatiboak hartzen dituzte barne.

Europako Batzordeak ezarritako "Emakumeak erabakiak hartzen" adituen sareak ahalegin handia egin du 1992 eta 1996 bitarteko datuak bildu, aztertu eta alderatzeko. 1996tik aurrera, Berlingo Emakumeentzako Informatika Zentroak koordinatutako datu bankua ahalegindu da sareak egindako lana aurrera eramateko. Datu banku hori, hain zuzen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko epe laburreko ekintza komunitarioko laugarren programaren esparruan sortu da.

Gainera, Europako Kontseiluak egindako ikerlanak argitaratu dira, baita beste instantzia batzuek egindakoak ere, esaterako, Finlandiako Presidentetzak eta Parlamentuarteko Batasunak Beijingo segimendua egiteko burutu zituzten ikerlanak.

Dena den, garatutako lanek eta argitaratutako ikerlanek biltzen dituzten datuak bereziki emakumezkoek eta gizonezkoek botere demokratikoko instantzia nagusietan duten parte-hartzeari buruzkoak dira.

Azkenik, datuen bilketak beste oztopo bati egin behar dio aurre: estatistika teknikariek ez dute genero gaietan prestakuntzarik jaso.

## **AZKENIK, DATUEN KONPARAZIOZKO AZTERKETAREN BEREZKO ZAILTASUNAK**

Emakumezkoek botere demokratikoko instantzia nagusietan duten parte-hartzeari dagozkion datuei bakarrik begiratzen badiegu ere, beste arazo batzuekin egiten dugu topo.

**LEHEN ARAZOA:** sistema demokratikoen arkitekturak ez daude bateratuta. Horrek esan nahi du botere instantziak eta instantzia horiek egiten duten eskuduntza banaketa desberdinak direla tokiaren arabera. Berez ezin konparatuzkoak diren datuak aldera genitzake, beraz. Ondorioz, datuak alderatzen hasi baino lehen hobe dugu arkitektura demokratikoen konparaziozko azterketa egitea.

**BIGARREN ARAZOA:** hauteskunde zikloak ere ez daude bateratuta; hori dela-eta, datuak biltzeko erreferentzia egunak desberdinak izaten dira. Normalean datuak agintaldiak esleitzen diren egunean edo gobernu bat jardunean hasten den egunean igortzea onargarria izan ohi da. Alabaina, hauteskunde zikloen arteko aldeak direla-eta, herrialdeen garapen demokratikoko mailak denbora desfase handiekin alderatzen dira. Koadro berean aldera ditzakegun datuen inkestako erreferentzia egunen artean, beraz, hiruzpalau urteko desfasea egon daiteke.

Badakigu, halaber, sufragiotik ateratako organoetan gero eta emakume gehiago azaldu arren, emakumezko hautagai horiek zerrendetan nahiko atzeratuta agertu ohi direla. Gehienek, beraz, ez dute zuzenean agintzen. Alabaina, ordezkapenak egitea beharrezkoa denean, erantzukizunak hartu eta dagozkien ardurak hartzen dituzte beren gain.

Horrek bide ematen du estatistika mailan anbizio handiko programa garatzeko; benetako konparaziozko azterketa zorrotzak lantzeko, ordea, zenbakizko ahalik eta datu kuantitatibo eta kualitatibo gehien bildu behar ditugu. Europako Emakumeen Lobbya elkarteak ideia horixe nabarmendu nahi izan du, hain zuzen, duela urte batzuk, Estatistika Programa komunitarioaren baren, instantzia komunitarioen eta nazio gobernuen aurrean presioa egiteko burutu duen kanpaina handian zehar.

Gogoan hartu beharra dago Europako 3. Konferentziaren Adierazpenak, erabakitze prozesuetan emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatuari buruzkoak (ministro guztiek aho batez onartu zuten) estatistika fidagarri eta aldegarriak eskura izatearen beharra azpimarratzen duela, eta xede horretarako instituzioak eta estatu kideak sustatu dituela barne hartzen dituen konpromisoak beren politiketan ezar ditzaten.

Konferentzia hau Parisen egin zen 1999ko apirilean, izenburu honekin: "Emakumeak eta Gizonak boterean: gizarte orekatua, ekonomia dinamikoa, anbizio europarra". Lehen aldiz, Europar Batasuneko 13 estatu kideren ordezkari ziren 16 ministrok (6 gizon eta 10 emakume) boterea emakumeen eta gizonen artean zuzen banatzeko konpromisoa hartu zuten, adierazpen irmoa sinatuta. Orobat, konferentzia horrek ahalbidetu zuen "berdintasuneko" ideia ikuspegi europarrean sartzeko, orain artean herrialde komunitario batzuek gai horri errezelo handiz heldu badiote ere.



Azkenik, Europa komunitarioan emakumeek eta gizonen boterean duten parte-hartzeari dagozkion zenbakizko datuen konparaziozko azterketa laburra egingo dut; ildo horretan, lehenik eta behin esan beharra daukat datuen artean desadostasun batzuk ageri direla iturri desberdinen arabera, baita batzuetan iturburu bereko datuen artean ere. Hala ere, desadostasun horiek handiegia ez direnez eta ondorioak kualitatiboki antzeko samarrak direnez, neure azterketa egiteko datuak Frauen Computer Zentrum Berlin zentroko "Emakumeak erabakiak hartzen" datu banku europarretik hartu ditut, kontsultatu ditudan iturri guztien artean eguneratuenak direlako.

## **EUROPAKO PARLAMENTUA**

(ikus I. eta II. taulak eranskinean)

Europako Parlamentuan eserlekua duten 626 diputatuetatik, emakumeen portzentajea %29,9koa izan zen 1999an egin ziren azken hauteskundeen ostean; alegia, 100 parlamentaritatik 70 gizonezkoak dira eta 30 soilik emakumezkoak.

Portzentaje hori pixka bat handitu da ondoren, %30era arte, Luxenburgori esker. Izan ere, hasiera batean herrialde honek bere 6 parlamentariko kuotan emakumerik zuzenean hautatua izatea lortu ez bazuen ere, une honetan bi emakume eurodiputatu dauzka. Horrek bide eman du belgikar emakume eurodiputatu baten galera neutralizatzeko, hauteskundeetan ostean gizonezko batek ordezkatu baitzuen.

Estatu kideek Europako Parlamentuko eserleku kuotan dituzten emakumeen portzentajeari dagokionez –I. taula– Suediak erabateko parekotasuna erdietsi du jada –%50– eta aurreneko tokian dago. Ondoren, Finlandia, Frantzia –bereziki Frantziako Alderdi Sozialistak aurkeztu duen zerrenda paritarioari esker–, Austria, Danimarka, Alemania, Espainia –zazpigarren tokian, Espainiak dituen 64 parlamentarietatik 22 emakume, hau da, %34,4–, Luxenburgoko –agintaldiak esleitu zirenean zuen %0tik %33,3ra pasatu da–, Irlanda, Herbehereak, Belgika, Erresuma Batua, Portugal, Grezia eta Italia.

Behin hauteskunde prozesua amaituta, hautatuak parlamentari karguaz jabetzen dira eta Europako familia politiko handien inguruan biltzen dira.

Alderdi politikoen arabera zenbakizko datuak aztertuta –II. taula– atzeman dezakegunez, botorik gehien bildu dituzten Alderdien eskala ez dator bat emakume gehien bildu dituzten talde parlamentarioetako eskalarekin, Europako Alderdi Sozialistaren kasuan izan ezik. Izan ere, sozialistak bigarren lekuan daude lortutako kideen portzentajeari dagokionez, eta bigarren alderdia dira, halaber, Talde parlamentarioan barne hartzen dituzten emakumeen portzentajearen: 181 parlamentari, 68 emakume, hau da, %37,6.

Emakume gehien biltzen dituen Talde parlamentarioa "Berdeena" da. 46 eserlekuetatik –laugarren tokian, lortutako kide kopuruari dagokionez– emakumeek 20 hartzen dituzte, hau da, %43,5.

Europako Alderdi Popularrak Talde parlamentarioirik handiena osatzen du 232 parlamentariarekin, baina 62 emakume baizik ez ditu biltzen, %26,7, eta horregatik seigarren tokian ageri da Talde parlamentarioetan biltzen dituzten emakumeen portzentajearen arabera antolatu den alderdi eskalan.

Europako Parlamentuko presidentea emakumea da, Nicole Fontaine, PPE taldekoa.



Gauzak horrela, honako esparru hauek ere genero ikuspegitik aztertzea komer-  
niko litzateke:

- Parlamentuko Presidentetza osoa;
- Talde parlamentarioetako Presidentetzak;
- Batzorde parlamentarioetako Presidentetzak eta gizonezko eta emaku-  
mezko eurodiputatuak nola banatzen diren batzorde horiek beren gain  
hartzen dituzten esparruetan;
- harremanen esleipena eta harremanak zeintzuk diren;
- osoko bileretan hitz egiteko denboren banaketa;
- etab.

Aurrez aipatu dudan bezala, aztertu berri ditudan datuak "Emakumeak eraba-  
kiak hartzen" datu banku europarretik hartu ditut, horiek ez ezik, batzorde  
parlamentarioetako eurodiputatuen banaketaren inguruko datuak ere biltzen  
dituena. Gai honetan ezin naiz denbora askoan geratu, baina datu adierazga-  
rri batzuk emango ditut: emakume gehien biltzen dituen Batzordea  $-\%89,5-$   
Emakumeen Eskubideen eta Aukera Berdintasunaren Batzordea da, buruan  
ere emakume bat duena. Gainerako 16 Batzordeetatik, 3k soilik dituzte ema-  
kumezkoak buruan; Ingurugirorako, Osasun Publikorako eta Kontsu-  
mitzaileen Politikarako Batzordeak biltzen ditu emakume gehien  $-\%54,2-$ ,  
eta Kanpo Harremanetarako, Gizakien Eskubideetarako, Segurtasun  
Komunerako eta Defentsa Politikarako Batzordeak gutxien  $-\%16,9-$ .

Dena den, nabarmendu beharra dago emakumeen ordezkaritzak Europako  
Parlamentuan gora egin duela etengabean hauteskunde guztietan, 1984tik  
aurrera. 1994ko hauteskundeen ostean, emakumeak diputatuen  $\%25,7$  baizik  
ez ziren, eta 1999ko hauteskundeetan lortu zuten azkenean masa kritikoko  
gutxieneko maila, hau da,  $\%30$ . Hala ere, gizonezkoen gehiegizko ordezka-  
ritzak eta emakumezkoen gutxiegiak indarrean jarraitzen dute...

## **EUROPAKO KONTSEILUA**

Europako Kontseiluari dagokionez, Estatu Buruek, Gobernu Buruek, Kanpo  
Harremanetarako Ministroek, Europako Batzordearen Presidenteak eta

Batzorde honen beste kide batek osatzen dute, eta bertan honakoak soil-soilik aurkitzen ditugu:

- bi emakume Estatu Buru –Finlandiako eta Irlandako Presidenteak (Danimarkako, Herbehereetako eta Erresuma Batuko Presidenteak ere emakumezkoak dira, baina legitimitatea hauteskunde demokratikoetatik ez, baizik eta jaiotzetik datorkienez, ez dute eserlekurik Europako Kontseiluan);
- Kanpo Harremanetarako hiru emakume Ministro –Austriakoa, Luxenburgokoa eta Suediakoa–.

Ondorioa: Europako Kontseilua ere ez da emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatuaren adierazgarria.

Europar Batasuneko Kontseiluaren taldeen datuen berri izatea ere baliagarria izan daiteke. Kontuan hartu beharra dago, ordea, talde horien osaketak Europako Kontseilukoak baino aldakorragoak izaten direla; izan ere, estatu kideen nazio gobernuei sailak esleitzean, Estatu Buruen eta Gobernuaren kasuan baino aldaketa gehiago gertatzen dira.

## **EUROPAKO BATZORDEA**

Europako Batzordeari dagokionez, hura osatzen duten 20 kideetatik, 5 emakume Komisario daude soilik (%25); estatu kideen gobernuek izendatzen dituzte kargu horiek –estatu horietariko batzuek, Espainiak kasu, bi komisario izateko eskubidea dute, beste batzuek berriz –Portugalek esaterako– komisario bakarra izateko eskubidea dute.

Azkenik, Batzorde Ekonomiko eta Sozialari eta Eskualdeetako Batzordeari buruzko zenbait datu aurkezten dizkizuet, hauek ere maila komunitarioan.

Nire ustetan, batzorde horiek emakumeek nazio mailan duten eraginaren barometroa izan daitezke, batetik, elkarrizketa sozialaren esparruan erabakitzekeko prozesuan parte hartzen duten erakundeetan, eta bestetik, eskualdeko eta tokiko botereetan.

## **BATZORDE EKONOMIKOA ETA SOZIALA**

(ikus III. Taula eranskinean)

Batzorde Ekonomiko eta Soziala elkarrizketa sozialaz arduratzen da maila komunitarioan. 222 kide biltzen ditu, sindikatuen, patronalen eta beste elkar-te sozio-profesional batzuen ordezkari direnak. Une honetan batzorde horrek 3 postu ditu bete gabe, eta 219 kideetatik 40 emakume dira, kideen % 18,3 soilik, hain zuzen ere.

Sindikatuen taldea da emakume gehien biltzen dituen: 79 kideetatik 17 emakume dira, hau da, %20,2. Hori, ordea, Europa komunitarioan enpleguak biltzen dituen emakumeen portzentajea baino nabarmen baxuagoa da.

Emakume gutxien biltzen dituen taldea enpresariena da: 69 kideetatik 11 dira emakume, alegia, % 15,9. Emakume enpresarien benetako eraginaren inguruko datu fidagarririk ezean, ezinezkoa da konparaziozko azterketa fidagarria egitea.

Bi talde horien artean, elkar-te sozio-profesionalen taldea dago: 70 kideetatik, 12 emakume bakarrik hartzen ditu barne, hau da, % 17,1. Talde hau da buruan emakume bat duen bakarra.

## **ESKUALDEETAKO BATZORDEA**

(ikus IV. taula eranskinean)

Azkenik, estatu kideen eskualdeko eta tokiko botereen ordezkariak Eskualdeetako Batzordea osatzen dute; 223 kide biltzen ditu guztira, eta haie-tatik 32 emakume bakarrik, hau da, % 14,3.

Nazio ordezkari-tzen artean, Irlanda eta Finlandia dira emakume gehien biltzen dituztenak -%44,4 eta %40, hurrenez hurren-, eta Austriako eta Herbeheretako ordezkari-tzak emakume gutxien biltzen dituztenak dira, emakume bat ere barne hartzen ez dute eta.

Espainiako ordezkari-tzari dagokionez, 21 kideetatik emakume bakarra dauka, hau da, %4,8. Ordezkari-tzetan dauden emakumeen portzentajearen arabera 15 estatu kideen sailkapenean, hamabigarren tokian dago.

Batzorde honen ordezeko kideei bakarrik erreparatzen badiegu, normala denez, emakumeen portzentajea handitzen da: %22,5, %14,3aren aldean!

Administrazio komunitarioan dauden emakumeen portzentajeen inguruko daturik aurkeztuko ez dizuedan arren, nabarmendu beharrea nago Kontseiluak 1996ko Gomendioa, erabakitzeko prozesuetan emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatuari buruzkoa, onartu zuenetik, neurri batzuk hartu direla, administrazio komunitarioaren maila guztietan oreka hori lortzeko xedearekin.

## **BANKUEN ETA TELEKOMUNIKAZIOEN SEKTOREAK**

"Emakumeak erabakiak hartzen" datu bankuak ere zenbait datu biltzen ditu, emakumeek bankuen eta telekomunikazioen sektoreetako enpresa erabakimeneko mailarik altuenetan duten parte-hartzeari buruzkoak.

Jarraian, emakumeek eta gizonek boterean duten presentziaren inguruko garrantzizko datu horiei buruzko ohar batzuk aurkeztu nahi dizkizuet.

Lehenik eta behin, telekomunikazioen sektorean, oraindik eskura datu gutxi ditugula ere, eta enpresen dimentsio erlatiboaren inguruko informaziorik ezean, esan dezakegu, esaterako, kontsultatutako enpresen artean, Austrian, Alemanian, Luxenburgon, Italian eta Herbeheretan egoitza dutenek ez dutela emakumerik biltzen erabakimeneko mailarik altuenetan. Bestalde, argi dago Suedian emakumeen parte-hartzea sendoagoa dela, suediar enpresa guztiek biltzen dituztelako emakumeak maila horietan.

Bigarren oharra Portugal Telekom biltzen dituen emakumeen portzentajeari dagokio –%26,7–, portzentaje altua, gainerako estatu kideetan egoitza duten enpresa gehienen aldean. Horren arrazoa izan daiteke enpresa hori denbora askoan monopolio publikoa izan dela, eta horregatik akziodun bakarraren menpe egon dela, estatua, emakumeen diskriminazioaren aurkako borrokan jarrera ezin hobea azaldu duena. Kontsultatutako beste bi enpresa portugaldarrek maila horretan emakumerik ez izatea aurrekoa berrestera dator: enpresa berriak izanda ere, eredu tradizionalak kopiatzen dituzte.

Bankuen sektoreari dagokionez, 1999. urtean inkesta bat egin da 15 estatu kideetako bost nazio banku nagusietan. Eraitzen arabera, lehenbizi, Austriako, Irlandako eta Luxenburgoko Bankuen inguruko daturik ez dagoela ohartzen gara; gainerako hamabi herrialdeei dagokienez, galdera sortei erantzun dieten hirurogei bankuen Administrazio Kontseiluetan ez dago emakumerik Presidentetzan, eta emakume presidenteorde bakarra dago alemaniar banku batean.

## **NAZIOKO PARLAMENTU ETA GOBERNUAK**

Panorama luze honi amaiera ematearren, hona ahalik eta konparaziozko azterketarik laburrena, gizon eta emakumeek nazioko parlamentu eta gobernuetan duten parte-hartzeari buruzkoa.

Lehenbizi,

### **GANBARA PARLAMENTARIOAK**

Parlamentuak –beheko ganbarak– soilik aintzat hartzen baldin baditugu, parlamentu guztiak barne hartuta nazioko emakume diputatuen portzentajea "masa kritikoko atalaser" ere ez dela iristen ohartzen gara, alegia, oraindik %30etik azpitik dago nabarmen: %22,5.

Beste era batera esanda, nazio mailako 100 diputatutatik, 78 gizonezkoak dira eta 22 soilik emakumezkoak, gutxi gora-behera, hau da, gizonezko diputatuen herena baino gutxiago; zenbakitan, 4.842 diputatuetatik, 1.091 dira emakume.

Senatuei –ganbara altuak– soilik erreparatzen badiegu, defizit demokratikoa are larriagoa da: 100 senataritatik 85 gizonak dira eta 15 soilik emakumeak –eta senatuak bizitza politiko luze baten azken geltokia izaki, ez dirudi emakume ugari helmuga horretara iristen direnik; gainera, jakina da emakumezkoen bizitza politikoa laburragoa dela.

Nabarmendu beharra dago, halaber, sei estatu kideren –Danimarka, Finlandia, Grezia, Luxenburgo, Portugal, Suedia– arkitektura demokratikoak ganbara parlamentario bakarrean biltzen direla. Beraz, 15en konparaziozko azterketa egitearren, parlamentuei erreparatuko diet soilik.

Parlamentuetan biltzen dituzten emakumeen portzentajearen arabera hama-bosten sailkapenean, Suedia agertzen da aurreneko tokian, diputatuen %44,3 emakumezkoak direla.

%22,5eko batezbesteko komunitarioaren gainean, herrialde hauek ageri dira, goitik beherako ordenan: Danimarka, Finlandia, Herbehereak, Alemania, Austria, Espainia (zazpigarren tokian) eta Belgika, Parlamentuan %23,2 emakume biltzen dituela.

Batezbesteko komunitarioaren azpian, eta betiere goitik beherako ordenan, herrialde hauek ditugu: Portugal (bederatzigarren tokian, %20), Erresuma Batua, Luxenburgo, Irlanda, Italia, Frantzia eta Grezia (%8,7).

Nazio Parlamentuei dagokienez, eta Europako Parlamentua aztertzean egin dudan bezala, interesgarria iritzi diot beste datu batzuk aurkezteari.

Azkenik,

## NAZIOKO GOBERNUAK

Nazioko gobernuei dagokienez, Suediak –berriz ere Suediak– osaketa paritarioa dauka.

Danimarkako Gobernuan emakumeen parte-hartzeak "parekotasuneko atalasea" gainditzen du: %42,9.

Jarraian, sailkapen horretan bada hirugarren maila bat, goitik beherako ordenan, Finlandiako, Alemaniako, Herbehereetako, Erresuma Batuko, Austriako, Frantziako eta Luxenburgoko Gobernuak biltzen dituen; gobernu horietan, emakumeen parte-hartzea "masa kritikoko atalasea" iritsi da –%38,6 eta %28,4 bitartean–.

Laugarren maila batean, betiere goitik beherako ordenan, Belgikako, Irlandako eta Espainiako Gobernuak daude  $-\%22,2$  eta  $\%17,6$  bitartean–.

Azkenik, Greziako, Italiako eta Portugalgo Gobernuak azken maila batean kokatzen dira.

Gobernuen kasuan, garrantzitsua deritzot emakumeen portzentajetik haratago joateari, baita erreferentzia positiboak ematen dituzten herrialdeetan ere. Esaterako, sailak nola banatu diren, zein eskuduntza eta aurrekontu dagozkien... aztertu beharra dago.

Beraz, horixe da emakumeek eta gizonak Europa komunitarioaren boterean duten parte-hartzearen laburpena.

Ildo horretan, emakumeen gutxiegiako parte-hartzea nabarmendu badut ere, hartatik ondorio diren zenbaki osagarriek agerira ekartzen dute maila guztietan gizonak agertzen duten gehiegiako ordezkariak.

Duela hamar-hamabost urteko egoeraren aldean aurrerapausoak eman badira ere, defizit demokratikoa estatu kide gehienetan ematen da oraindik ere, eta hori lehenbailehen zuzendu behar da, benetako diskriminazioa ez ezik, demokrazia bera ere kolokan jartzeko arriskua dakarrelako.

Barnera bildutako gotorleku baten antzera dirauen espazio publikoan nagusitu diren arau eta errituek antolaketako eta esku-hartzeko kultura anakronikoa iraunarazi dute, eta horrek funtzio politikoa deskalifikatu eta emakumeak baztertzea eragiten du.

Egun, baliabide kolektiboen esleipenaren inguruan, garapenerako lehentasunen inguruan, gerraren eta bakearen inguruan, edo, hitz gutxiagorekin esatearren, gizateriaren etorkizunaren inguruan hartzen diren erabakiak ezin dira legezkoak izan, ez badute gizateria horren erdia baino gehiago osatzen duten emakumeen parte-hartzerik, ez badute parekotasunik.

Eskerrik asko.

**I. TAULA      EUROPAKO PARLAMENTUA(\*)**  
**Estatu kideen emakumeen portzentajearen arabera (a)**

2001eko maiatzaren 20an eguneratua

<b>tokia</b>	<b>ESTATU KIDEAK</b>	<b>ESERLEKUAK</b>	<b>EMAKUMEAK</b>	<b>EMAKUMEEN %</b>
1	Suedia	22	11	50,0
2	Finlandia	16	7	43,8
3	Frantzia	87	35	40,2
4	Austria	21	8	38,1
5	Danimarka	16	6	37,5
6	Alemania	99	36	36,4
7	Espainia	64	22	34,4
8	Irlanda	15	5	33,3
9	Luxemburgo (b)	6	2	33,3
10	Herbehereak	31	10	32,2
11	Belgika (c)	25	7	28,0
12	EB	87	21	24,1
13	Portugal	25	5	20,0
14	Grezia	25	4	16,0
15	Italia	87	9	10,3
<b>Guztira</b>		<b>626</b>	<b>188</b>	<b>30,0</b>

(a) Legegintzaldiaren hasiera: 1999ko uztailaren 20a.

(b) Ikus 33. orrialdea: emakumerik ez da zuzenean hautatua izan.

(c) Ikus 33. orrialdea: emakume bat izan da zuzenean hautatua, eta jarraian gizon batek ordezkatu du.

(\*) Iturria: "Emakumeak erabakiak hartzen" Datu Bankua, *FrauenComputerSentrumBerlin* zentroak (Emakumearentzako Informatika Zentroa – Berlin) koordinatua.



## II. TAULA EUROPAKO PARLAMENTUA(\*) Talde Parlamentarioen arabera

2001eko maiatzaren 20an eguneratua

tokia	TALDE PARLAMENTARIOAK	KIDEAK	KIDEEN %	EMAK.	EMAK. %
	Kideen portzentajearen arabera				
1	PPE – Europako Alderdi Popularra/Europako Demokratak	232	37,1	62	26,7
2	PSE – Europako Alderdi Sozialista	181	28,9	68	37,6
3	ELDR – Liberalak, demokratak eta erreformistak	52	8,3	17	32,7
4	V / ALE – "Berdeak"	46	7,3	20	43,5
5	GUE/NGL – Europako Ezker Batua/ Eskandinaviako Ezker Berdea	42	6,7	15	35,7
6	UEN – Nazioen Europarako Batasuna	21	3,4	4	19,0
7	TDI - Kide Independenteen Talde Teknikoa	19	3,0	1	5,3
8	EDD – Demokrazien eta Aniztasunen Europa	19	3,0	3	15,8
9	NI – Lerrokatu gabeak	14	2,2	4	28,6
<b>Guztira</b>		<b>626</b>	<b>100</b>	<b>194</b>	<b>31,0</b>

(\*) Iturria: "Emakumeak erabakiak hartzen" Datu Bankua, *FrauenComputerSentrumBerlin* zentroak (Emakumearentzako Informatika Zentroa – Berlin) koordinatua.

**II. TAULA    EUROPAKO PARLAMENTUA(\*)**  
**Talde Parlamentarioen arabera (jarraipena)**

2001eko maiatzaren 20an eguneratua

tokia	TALDE PARLAMENTARIOAK emakumeen portzentajearen arabera	KIDEAK	KIDEEN %	EMAK.	EMAK. %
1	V / ALE – " Berdeak"	46	7,3	20	43,5
2	PSE – Europako Alderdi Sozialista	181	28,9	68	37,6
3	GUE/NGL – Europako Ezker Batua/ Eskandinaviako Ezker Berdea	42	6,7	15	35,7
4	ELDR – Liberalak, Demokratik eta Erreformistak	52	8,3	17	32,7
5	NI – Lerrokatu gabeak	14	2,2	4	28,6
6	PPE – Europako Alderdi Popularra/ Europako Demokratik	232	37,1	62	26,7
7	PPE – Europako Alderdi Popularra/ Europako Demokratik	232	37,1	62	26,7
8	UEN – Nazioen Europarako Batasuna	21	3,4	4	19,0
9	EDD – Demokrazien eta Aniztasunen Europa	19	3,0	3	15,8
10	TDI - Kide Independenteen Talde Teknikoa	19	3,0	1	5,3

(\*) Iturria: "Emakumeak erabakiak hartzen" Datu Bankua, *FrauenComputerSentrumBerlin* zentroak (Emakumearentzako Informatika Zentroa – Berlin) koordinatua.

**III. TAULA BATZORDE EKONOMIKO ETA SOZIALA(\*)**  
**(2000ko urriaren 15etik 2001eko urtarrilaren 30era arte)**

TALDEA	EMAKUMEEN BURUA	KIDEAK	EMAKUMEAK	EMAKUMEEN %
Enpresariak	Ez	69	11	15,9
Sindikatuak	Ez	79	17	20,2
Beste batzuk	Bai	70	12	17,1
Afiliatu gabeak	-----	1	0	0
<b>GUZTIRA</b>		<b>219(222)(a)</b>	<b>40</b>	<b>18,3</b>

(a) 3 postu bete gabe.

(\*) Iturria: "Emakumeak erabakiak hartzen" Datu Bankua, *FrauenComputerSentrumBerlin* zentroak (Emakumearentzako Informatika Zentroa – Berlin) koordinatua.

**IV. TAULA ESKUALDEETAKO BATZORDEA(\*)**  
**Estatu kideen emakumeen portzentajearen arabera**

2001eko maiatzaren 30an eguneratua

KIDEAK					ORDEZKO KIDEAK				
tokia	ESTATU KIDEAK	GUZT.	EMAK.	EMAK. %	tokia	ESTATU KIDEAK	GUZT.	EMAK.	EMAK. %
1	Irlanda	9	4	44,4	1	Suedia	12	7	58,3
2	Finlandia	10	4	40,0	2	Danimarka	9	5	55,6
3	Frantzia	24	6	25,0	3	EB	24	11	45,8
4	EB	24	6	25,0	4	Herbehereak	12	5	41,7
5	Suedia	12	3	25,0	5	Finlandia	9	3	33,3
6	Luxemburgo	6	1	16,7	6	Irlanda	9	3	33,3
7	Alemania	24	3	12,5	7	Alemania	24	4	16,7
8	Danimarka	9	1	11,1	8	Belgika	12	2	16,7
9	Belgika	12	1	8,3	9	Grezia	12	2	16,7
10	Grezia	12	1	8,3	10	Luxemburgo	6	1	16,7
11	Portugal	12	1	8,3	11	Espainia	21	3	14,3
12	Espainia	21	1	4,8	12	Frantzia	24	3	12,5
13	Italia	24	1	4,2	13	Austria	12	1	8,3
14	Austria	12	0	0,0	14	Italia	24	1	4,2
15	Herbehereak	12	0	0,0	15	Portugal	12	0	0,0
	<b>Guzt.</b>	<b>223</b>	<b>32</b>	<b>14,3</b>	<b>Guzt.</b>	<b>222</b>	<b>50</b>	<b>22,5</b>	

(\*) Iturria: "Emakumeak erabakiak hartzen" Datu Bankua, *FrauenComputerSentrumBerlin* zentroak (Emakumearentzako Informatika Zentroa – Berlin) koordinatua.

**V. TAULA      EMAKUMEAK EB-KO ESTATU KIDEEN NAZIOKO  
PARLAMENTUETAN(\*)  
Emakumeen portzentajearen arabera**

tokia	ESTATU KIDEAK	EGUNER.	PARLAMENTUAK			SENATUAK			GUZTIRA		
			KID.	EMAK.	EMAK. %	KID.	EMAK.	EMAK. %	KID.	EMAK.	EMAK. %
1	Suedia	Apirila 01	350	155	44,3				350	155	44,3
2	Danimarka	Martxoa 01	175	67	38,3				175	67	38,3
3	Finlandia	Martxoa 01	200	74	37,0				200	74	37,0
4	Herbehereak	Apirila 01	150	52	34,7	75	21	28,0	225	73	32,4
5	Alemania	Martxoa 01	669	211	31,5	69	9	13,0	738	220	29,8
6	Austria	Apirila 01	183	51	27,9	64	16	25,0	247	67	27,1
7	Espainia	Apirila 01	350	97	27,7	208	54	26,0	558	151	27,1
8	Belgika	Maiatza 01	151	35	23,2	73	20	27,4	224	55	24,6
9	Portugal	Apirila 01	230	46	20,0				230	46	20,0
10	EB	Apirila 01	658	120	18,2	666	105	15,8	1324	225	17,0
11	Luxemburgo	Martxoa 01	60	10	16,7				60	10	16,7
12	Irlanda	Martxoa 01	166	21	12,7	60	11	18,3	226	32	14,2
13	Italia	Maiatza 00	626	71	11,3	324	26	8,0	950	97	10,2
14	Grezia	Martxoa 01	300	26	8,7				300	26	8,7
15	Frantzia	Martxoa 01	574	55	9,6	321	19	5,9	895	74	8,3
<b>Guzt.</b>			<b>4842</b>	<b>1091</b>	<b>22,5</b>	<b>1860</b>	<b>281</b>	<b>15,1</b>	<b>6702</b>	<b>1372</b>	<b>20,5</b>

(\*) Iturria: "Emakumeak erabakiak hartzen" Datu Bankua, *FrauenComputerSentrumBerlin* zentroak (Emakumearentzako Informatika Zentroa – Berlin) koordinatua.

**VI. TAULA EMAKUMEAK EB-KO ESTATU KIDEEN  
GOBERNUETAN(\*)  
Emakumeen portzentajearen arabera**

tokia	ESTATU KIDEA	EGUNERATUA	KIDEAK	EMAKUMEAK	EMAKUMEEN %
1	Suedia	Apirila 01	20	10	50,0
2	Danimarka	Martxo 01	21	9	42,9
3	Finlandia	Martxo 01	18	7	38,9
4	Alemania	Martxo 01	44	17	38,6
5	Herbehereak	Apirila 01	25	9	36,0
6	EB	Apirila 01	85	28	32,9
7	Austria	Martxo 01	16	5	31,3
8	Frantzia	Martxo 01	34	10	29,4
9	Luxemburgo	Martxo 01	14	4	28,6
10	Belgika	Martxo 01	18	4	22,2
11	Irlanda	Martxo 01	32	7	21,9
12	Espania	Apirila 01	17	3	17,6
13	Grezia	Martxo 01	88	11	12,5
14	Italia	Ekaina 01	78	8	10,3
15	Portugal	Martxo 01	61	6	9,8
<b>Guztira</b>			<b>571</b>	<b>138</b>	<b>24,2</b>

(\*) Iturria: "Emakumeak erabakiak hartzen" Datu Bankua, *FrauenComputerSentrumBerlin* zentroak (Emakumearentzako Informatika Zentroa – Berlin) koordinatua.



---

**BERDINTASUNA:  
GURE ONDORETASUNA ETA  
GURE PROIEKTUA**

---

**ALICIA PULEO andrea**  
Filosofian Lizentziatua.  
Valladolideko Unibertsitateko Generoari  
buruzko Ikasketa Katedrako zuzendaria





---

## BERDINTASUNA: GURE ONDORETASUNA ETA GURE PROIEKTUA

---

Maiz, berdintasun kontzeptua eta "berberatasuna" kontzeptua nahasi egiten dira. Uste honen arabera, gizonak eta emakumeak berdinak baino, desberdinak omen dira. Kasu hauetan, gogorarazi beharra dago "berdintasuna" ez dela kontzeptu deskribatzailea, kontzeptu arau-emailea baizik; gizakien artean berez dauden desberdintasunak (altuak, txikiak, gazteak, zaharrak, gizonak, emakumeak, etab.) ukatzen ez dituen kontzeptua dela, gizakiari gizaki gisa dagozkion eskubideak aditzera ematen baititu. Sexuen arteko berdintasunaren definizio arduratsu batek zera dio: "emakumeentzat eskatzen den berdintasuna, elkarrenganako parekotasun ez identifikatiboa da, hain zuzen ere, gizarteko, familiarreko zein bikoteko harremanetan diharduten gizabanakoen - pertsonen burujabetasuna, ekitentzia, ekifonia, baliokidetasuna, solasaldia eta erantzukizuna dakartzana" (1).

"Isonomia" kontzeptua legearen aurreko berdintasunaz, sexu-arrazoiak zirela medio emakumeak baztertzen zituzten legeen indargabetzeaz ari da. "Ekifonia" delakoa, emakumeak bere ahotsa gizartean entzunarazteko aukeraz ari da, ahots hau benetan entzun dadin eta gizonezkoen ahotsari ematen zaion sinesgarritasun bera eman dakion. Hortik ateratzen da solasaldia emakume bakoitza gizarteko elkarrizketaren subjektu gisa, eta ez besteren erabakien objektu huts gisa, onartu behar dela azpimarratzea. Kontzeptu berbera da Greziako demokrazian, lehenengoa izan zen hartan, "isegoria" kontzeptuak edo "agoran" –polisaren arazoak erabakitzen ziren erabakigunea– sartzeko berdintasun kontzeptuak hedatzen zuena. "Baliokidetasuna" genero statusaren arazora bidaltzen du: sexu-genero sistema bezala definitzen den gizarteak genero geruzapena, gizonari eta gizonezkoarenari balio gehiago ematen

---

(1) Santa Cruz, Isabel, "Sobre el concepto de igualdad: algunas observaciones", *Isegoría. Revista de Filosofía Moral y Política*. 6.zk., Feminismo y ética (ed. de Celia Amorós) ale monografikoa, 148.orri.

diona, du bereizgarri. Guztiok, emakumeok nahiz gizonek, tradiziozko joera hau aintzakotzat hartzen ez dugun neurrian, geure aurreiritziekiko arreta kritikoa gauzatzen ez dugun neurrian, baliokidetasun hau eragozten dugu, sexuaren arabera, gizabanako batzuei beste batzuei baino garrantzi handiagoa ematen diegularik. "Ekipotentzia" kontzeptuari dagokionez, "botere" ideia indar errepresibo gisa baino, "ahalmen" onuragarri konstruktibo gisa azpimarratu nahi nuke (2). Ekipotentzia delakoa, munduak nigan eragina izan dezakeen neurri berean nik munduan eragina izateko gaitasuna da. Celia Amorós-ek modu ezin hobean esan duenez, emakumei dagokionez, botererik ezak banakotasuna ez onartzea dakar. Urteetan zehar arlo publikoan ez egoteak, ez botererik ezta onarpenik ez dagoen "berdintsuen gunera" edo etxekotasunaren mundu sinbolikora baztertu gaitu. Honela dio C. Amorós-ek: "gizonezkoak ez bezala, haien artean berdinen guneak sortu baitituzte, hain zuzen ere, berdintasunezko eremuak baino, gizonezkoak direnen eremuak direnak, generikoaren kide gisa, hau da, boterea dutenen eremuak direnak, eta beraz, nor den nor bereiztea garrantzitsu bilakatzen da: honela, banakotasuna, kategoria politiko eta ontologiko gisa, boterea dagoen eremuetakoa da, eta eremu haietan kokatzeko, boterea banatzen eta mugitzen den moduari buruzko informazioa eskuratzea beharrezkoa izaten da"(3). Berdinen munduaren aurrean (banakotasunik onartzen ez duen emakumezkoen mundua), emakumezkoen kolektiboaren bazterketaren historiak nekez demokraziak inauguratutako berdinen eremua sortu du. Bistan denez, arazoa ez da gizonezko guztiak postu edo maila berberak izatea, gizonezko gisa, boterea eskuratzeko agintarigaitzat jotzea baino.

Berdintasun feminismoak pentsaera ilustratuan du jatorria, eta honek bezala, burujabetasun kontzeptuari oinarritzko tokia ematen dio. Ilustrazioa ideien mugimendu zabala izan zen, hain zuzen ere, XVII.mendearen azkenean Ingalaterran hasi zena eta XVIII.mendean Frantzia garatu eta, hortik, Europako gainerako herrietara hedatu zena, Hispanoamerikako herrietara

---

(2) Berdintasun, askatasun eta boterearen arteko harremanaz, ikusi Amelia Valcárcel, *La política de las mujeres*, Cátedra, 1997.

(3) Amorós, C., *Tiempo de feminismo. Sobre feminismo, proyecto ilustrado y postmodernidad*, Cátedra, Madril, 1997, 21.orr.

heldu arte. Mugimendu honen mamiaren bereizgarri gisa, Kantek Zer da Ilustrazioa? galderari erantzuten delakoan erabiltzen duen formulara jo dezakegu: sapere aude, ausart zaitez zeure adimena erabiltzen, ez ezazu tutore politiko edo erlijiosorik onartu, zure burua zeure arrazoiak gida ezazu, utz iezaiozu tradizio edo kanpoko agintearen arabera itsu-itsuan jarduteari, eta azter ezazu dena arrazoizko irizpidez, adin-txikiko egoera "errudun" hori gaudituz. "Errudun" dio Kantek, nolabait, iritzi moralaren zeregin legitimoak gainerakoen esku uzteak ume bezala bizitzea nahiago duen nagusiaren erantzukizuna dakarrelako.

Burujabetasuna nork bere gain hartzea ez da norberaren apetaren arabera jardutea. Buru-jabe izatea, hots, auto-nomos, norberaren buruari norberaren legea (nomos) ematea, norberaren arrazoiak agindutakoa betetzea da, beharrezkoa balitz, gure iritzi moralak baztertzen dituen agindu edo legeei aurre eginez. Honetan datza ilustratuen idazki guztien azpian dagoen gizabanako burujabearen, autonomoaren, eredia.

1848an sortu zen mugimendu sufragistak legearen aurreko berdintasunen aldarrikapenak premisa ilustratu berberetan oinarrituko ditu. Behin eskabide garrantzitsuenak (botoa emateko eskubidea, goi mailako ikasketak egiteko eskubidea, emakume ezkondua bere ondasunak administratzekoa, etab.) lortuz gero, XX.mendeko 60 eta 70ko hamarkadetan sortutako feminismoaren bigarren boladak emakumeen burujabetasuna erabiltzea galarazten duten legezko oztopoak ez ezik, oztopo ekonomiko eta kulturalak ere aditzera emango ditu (4).

Berdintasun feminismoa, bere erakundeen eta erakundez kanpoko irudikapenetan, garrantzi handiko aldaketa ekarri du gure gizarteentzat. Hala eta guztiz ere, hainbat kritika jaso ditu eta jasotzen jarraitzen du, batez ere bi motak: berdintasuna herri garatuetan lortu dela eta feminismoa zentzugabe-ko mugimendu "zaharkitua" dela uste dutenen kritika eta kulturaren androzentrismoa salatzen duten eta sexu-desberdintasunaren izenean egiten diren berdintasun politikak baztertzen dituzten jarrera feministen kritika. Azken kritika hauei ekingo diet.

---

(4) Puleo, Alicia H., "Feminismo", en MARDONES, José María (dir), *10 palabras clave sobre Movimientos sociales*, Ed. Verbo Divino, Estela, 1995.

Feminismo erradikaetik datozen lan batzuek mendebaldeko tradizio filosofiko hegemonikoan androzentrismoa edo gizonezkoen joerak gorputza, afektibitatea, emozioak, azpiko eta femenino bezala ikusi dituela agertu dute. Maskulinoa, arrazoa, gorputzarengandik eta Lurretik askea den izaki gisa, bezala definitu zen, emakumeen eta Naturaren gaineko menperatzearen logika bat ezarri zelarik. Ikuspegi honetatik, emakumeok kultura hegemonikoaren baloreak baino hobeak diren baloreen eramaileak izango ginateke. "Harremanetarako iaioak" izango ginateke, gizonak, eraginkortasun instrumentalean hezi zirela. Gupida, biziaren zaintza, Naturarekiko hurbiltasuna izango lirateke, ikuspegi honetatik, emakumezkoen bertuteak izango lirateke, zenbait teorikoren ustez, ustezko mami femeninoa dela-eta, eta beste batzuen ustez, boteretik at egoteagatiko inguruabar historikoak direla-eta. Carol Gilligan-en etikaren "beste ahotsa" delakoari buruzko lan ospetsuek, nahigabe, desberdintasun hauen aldeko jarrerak indartu zituzten.

Beste interes teoriko eta ezinbestekoetatik, eta aipatutako premisa desberdinetatik, sexu-desberdintasunari buruzko pentsaera italiarrak aukera-berdintasunen politika eta berdintasun feminismoaren legezko ekimenak kritikatu egin ditu. El Manifiesto de Rivolta femmenile (1970) izenekoak dioenez, "berdintasuna emakumea menperatzeko ahalegin ideologikoa da. Emakumeak gizonekin parekatzea askatasunaren azken bidea deuseztatzea da"(5).

Berdintasun feminismoaren puntu itsua, behintzat honen bertsio nagusiengan, eredu maskulinoa gizakia eta garrantzizkoaren sinonimo gisaren onarpen akritikoan datza. Zenbait desberdintasun feminismoen arriskua menpekotasunak sortutako nolakotasunak goraiatzeagatik datozen elitismoan, inmobilismoan eta konformismoan datza.

Berdintasun feminismoak baliabideak eskuratzeko politika soziala planteatzeko bertutea badu, eta desberdintasun feminismoaren erakargarritasuna bere

---

(5) Milango Emakumeen Liburudenda, *No creas tener derechos*, itzultzailea: María Cinta Montagut Sancho. Argitaletxea: Horas y Horas, 1991, 30. orr. Italiako feminismoaz gehiago jakiteko eta feminismo hau eta berdintasun feminismoaren arteko eztabaida kritikoaz gehiago jakiteko, ikusi Posada Kubissa, Luisa, *Sexo y esencia*. Argitaletxea: Horas y Horas, Madril, 1998.

azterketa batzuetan sinbolikoaz jardutea bada, nire ustez, egungo erronka bi joeren ekarpenak integratzen dituen teoria eta praxisa egitean datza, eredu sozialak aldatzearren.

Genero estereotipoek bortxakeria sortzen dutelako kritikarekin, sexuen arteko justizia eta berdintasun ereduak eta Naturarekiko babesa eta zaintza jarra dakarren kulturaren norabide androzentrikoaren azterketarekin, sexuen arteko egungo desberdintasuna bizi garen eredu produktibista, kontsumista eta Naturaren suntsizailea gainditzeko hautabide sozio kultural bihur liteke.

Eskubide eta aukeren unibertsalizazioa ezin da gauzatu garapen-ereduak berrikusten ez badira. Baina, berrikusketa hau berdintasun kontzeptua, gure jaraunsletza eta gure proiektua bultzatzen duten burujabetasun, isonomia eta isegoria jarreretatik besterik ezin da egin.

---

# **MAHAI-INGURUA: EMAKUMEAK POLITIKAN**

---

## **EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA POLITIKAN**

**PILAR FOLGUERA andrea**

Europako Emakumeen Lobby-ko Espainiako  
Kordinakundearen lehendakariordea.  
Europako Batasuneko Jean Monnet Katedra.  
Madrileko Unibertsitate Autonomoan  
Historia Garaikideko irakaslea

## **BOTEREA TOKI ADMINISTRAZIOAN**

**BEGOÑA SAN JOSÉ andrea**

Zuzenbidean Lizentziatua. Madrileko Komunitateko  
Emakumeen Kontseiluko lehendakaria

## **ERABAKIAK HARTZEA BERDINTASUNAREN ALDEKO ERAKUNDEETAN**

**NADINE DU BOIS andrea**

Luxemburgoko "Emakumeak erabakiak hartzeko  
guneetan" Europako Sarearen koordinatzailea





---

## EMAKUMEEN PARTE- -HARTZEA POLITIKAN

---

### PILAR FOLGUERA

Emakumeek eremu publikoan duten presentzia eta parte hartzea asko aldatu da azken bi hamarkadetan. Batez ere, 70 eta 80ko hamarkadetako mugimendu feministen etengabeko eskaeretatik aurrera, eta zenbait alderdi politikotako programetan eskaera horiek sartu direnetik; hain zuzen, mendebaldeko demokrazietako parlamentu eta gobernuetan aulkiak eduki dituzten alderdi politiko batzuetako egitarauetan.

Bestalde, aurrerapen garrantzitsu horietaz gain, gizarteko antolaketak eta egiturek ia berdin jarraitzen dute eta, oraindik, -baita herrialde aurreratuenetan ere- mantendu egiten da sexuagatiko lanaren gizarte banaketa: bizitza publikoa eta pribatua bananduta daude, gizarte antolaketan emakumei etxeko lanen ardura eta familia eta haurrak zaintzearen ardura osoa ematen zaie, eta gizonei, berriz, espazio publikoa; hau da, lan ordaindua eta boterea eta politikaren erabilera.

Hori munduko errealitatera eramanda, oso desberdintasun handiak daude mendebaldeko herrialdeen, demokrazia parlamentarioen eta Hirugarren Munduko herrialdeen artean. Lehenengoetan, funtsezko aurrerapenak egin dira gizon eta emakumeek eremu publikoan duten presentzia eta parte hartzeko berdintasunean. Bigarrenengoetan, berriz, berdintasunaren helburua oso urrun dago betetzetik, eta horietako batzuk nabarmen atzeratu ere egin dira.

Lehenengo lekuan Europako Elkartearen eremuari buruz ari gara, hori baita espainiar estatuko errealitatera gehien hurbiltzen den esparru politikoa, eta espainiar estatuko tradizio politiko eta kulturalaren antz handiena duena.

Aukeren berdintasunari dagokionez, badakigu denok Erromako Itunak 1957rako, 119. artikuluan, lan beragatik emakume eta gizon langileei berdin ordaintzeko printzipioa onartu zuela.

Artikulu horrek, hainbat herrialdetako emakume eta gizon langileen arteko lehiakortasuna saihesteko helburuarekin idatzitakoak, ordutik esparru juridiko bat eratzea erraztu du. Esparru hori Europako Elkarretako Justizia Auzitegiko hainbat epaik osatu dute eta berdintasunaren aldeko hainbat Berdintasun Planek, emakumeek bai lan baldintzetan eta bai gizarte segurantz, hezkuntzan eta emakumeen aldeko hainbat ekintza positibotan edo Egitura Fondoetan duten parte hartzean.

Eremu publikoan gizon eta emakumeen parte hartzeko orekari buruz, Europako instituzioen hainbat erabaki aipatu behar dira, horiek zehaztu baitute 80ko hamarkadatik estatu kideek bere egin behar duten esparru arau emaila:

- Europako Batzordearen 1981eko abenduaren 9ko erabakia (82/43/EEE), gizon eta emakumeen aukeren berdintasunari buruzko Kontsultarako Batzorde bat sortzeari buruzkoa.
- Kontseiluaren 1984ko otsailaren 13ko gomendioa (84/635/EEE), emakumeen aldeko ekintza positiboari buruzkoa.
- Kontseiluaren 1986ko uztailaren 24ko erabakia (386Y0812-02), emakumeentzako aukera berdintasuna sustatzeari buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren 1994ko otsailaren 11ko erabakia (A3-0035/94), organo erabakitzaileetan emakumeen parte hartzeari buruzkoa.
- Kontseiluaren 1995eko martxoaren 27ko erabakia (186/C/EEE), erabakiak hartzerakoan gizon eta emakumeen parte hartze orekatuari buruzkoa.
- Kontseiluaren 1996ko abenduaren 2ko erabakia (96/C386/01), gizon eta emakumeek Europako Egitura Fondoetan aukera berdinak izateko printzipioaren integrazioari buruzkoa.
- Kontseiluaren 1996ko abenduaren 2ko gomendioa (96/694/EE), parte hartzeko prozesuetan gizon eta emakumeen parte hartze orekatuari buruzkoa.

1999ko apirilak 15etik 17ra Parisen Parisko Europako Konferentzia izan zen: "Emakumeak eta gizonak boterean. Gizarte solidario bat. Ekonomia dinami-

ko bat. Europaren asmo handia”. Horren asmoa: eremu guztietako erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeen parte hartzea sustatzea.

Bertara Europar Batasuneko ministro ugari azaldu ziren, baita erakunde feminista eta emakumeen erakunde nagusietako ordezkariak ere. Horiek guztiek Parisko Deklarazioa izeneko testua adostu zuten, eta bertan, estatu kideetako ordezkariak honakoa berretsi zuten: “erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeek eta gizonezkoek parte hartze orekatua izatea beharrezkoa da politikaren ikuspuntutik adierazgarriagoa, dinamikoagoa eta solidarioagoa izango den Europa eraikitzeko. Gainera, gizarte kohesioko faktorea da eta herritarren eskaerei erantzuten dio”.

Aldi berean, gomendio bat aurkeztu zitzaion gobernuei, Europako instituzioei eta alderdi politikoei “erabakiak hartzeko prozesuetan gizon eta emakumeen parte hartze orekatua susta zezaten”. Neurri horien barnean sartzen da, behar izanez gero, “ekintza positiborako neurriak” hartzea gizon eta emakumeen arteko desorekak deuseztatzeko.

Gomendio hori, “langileei, publikoei zein pribatuei”, eta “eragile sozialei” ere aurkeztu zitzaion emakumeek gizonen leku berbera izan dezaten ardura eta erabakiak hartzeko lanpostuetan eta negoziazio kolektiboen alorrean. Hori guztia, Parisko Deklarazioaren arabera, “nazio eta Europako Elkarteko politiken barruan sartu behar da eta itun bat egin; hain zuzen, gizarte solidarioago batean, ekonomia dinamikoago batean eta Europako asmo handi batean kokatuko den ituna”.

Deklarazioaren ostean, Frantziak Ekintza Plan bat egiteko proposamena egin zuen. Ekintza plan horren helburua hauxe zen: gobernuko organoetan gizon eta emakumeen parte hartzeen berdintasuna lortzea, eta bizitza sozial eta politikoan gizon eta emakumeen ordezkartza orekatua bermatu ahal izateko hainbat eta hainbat neurri hartzea.

Prozesu horretan, Parisko Deklarazioa garrantzitsua izan zen Atenasko 1992ko Konferentziaren ondoren; azken horretan, “gizon eta emakumeen artean botere politikoak eta erakunde politikoak orekaz banatu beharra” zegoela aldarrikatu zen. Atenasko Konferentziaren ondoren, Europako hauteskunderdei buruzko Bruselako Konferentziak, 1994ko martxoan, eta Dublinekoak, 1995eko martxoan, erabaki politikoetako lanpostuetan emakumeen parte

hartzera sustatzeko estrategiak zehaztu zituzten. Erabaki hori 1996ko Erromako Gailurrean berretsi zen, hor estatu kideek gizon eta emakumeen parte hartzeko berdintasuna sustatzeko konpromisoa hartu zuten demokrazia eta horren funtzionamendu ona indartzeko.

Nazioarte mailan, Pekinen, Emakumeen Laugarren Mundu Mailako Konferentzian –1995eko abuztutik irailera bitartean–, zehaztu zen nazioarte mailan "mainstreaming" printzipioa. Espainiako ordezkariak, Cristina Alberdi Gizarte Gaietarako Ministroa buru zuela, printzipio hori defendatu zuen eta honela definitu zuen: "gobernuek eta eragile sozialek genero ikuspegia erabaki prozesuetan integratzeko politika aktibo eta agerikoa sustatu behar dute, baina politika horren aurretik gizon eta emakumeengan duen eragina aztertu behar da".

Emakumeak hauteskunde zerrendetan eta botereko instituzioetan gero eta gehiago ari dira agertzen, eta hori analista politikari gehienek Europako egoera politikoko azken urteetako alderdi berriztatzaileenetakotzat jotzen dute. Errealitate horrek hainbat zergati ditu, eta ondoren horietako batzuk azalduko ditugu:

#### ALDERDI POLITIKOEN JARRERA

Hainbat ikerketaren emaitzek diotenez, hautagaiaren sexua ez da, oro har, hautesleengan gutxiesteko sentimendua sortzen duen faktore erabakigarria (Herrick 1995:25; Burrell 1993:294). Gaur egun hautesle gehienek ez dituzte botatzeko lehentasunak hautagaiaren sexuaren arabera ezartzen.

Bestalde, zenbait lanetan (Carroll 1994:157) emakume hautesleengan emakume hautagaien alde egiteko joera dagoela nabaritu da.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar estereotipo maskulino eta femeninoek duten halako funtzionamendu esplizitua, horiek eman baitieziaiekete gizonetzko polititarako lidergorako dohainak eta prestakuntza egokiagoa.

Ildo horretatik, alderdien antolaketa mota faktore garrantzitsua da hautagaiak aukeratzeko prozesuan.

Aukeratzeko prozesuan erabakiak hartzeko moduak badu eraginik emakumeek politikan parte hartzeko duten aukerekin. Pipa Norrisen arabera (Norris 1993:322), hautagaiak sistema formalen bidez aukeratzen diren erakundeetan –hau da, arau zehatz eta esplizituekin aukeratzen direnetan– aukeratzeko askatasun handiagoak ematen dituen sistema informalekin ez bezala, emakume gehiago ikus daitezke.

Zentralizazio mailari dagokionez, Pipa Norrisen azterketetako ondorioen arabera, deszentralizatutako sistemetan eta tokian tokiko sistemetan emakumeek hautagai zerrendetan egoteko aukera gehiago dute. Badirudi, ordea, hori ez dela kasu guztietan gertatzen. Esate baterako, espainiar estatuko lider politikoek, ezkerreko alderdikoek zein eskuin erdialdekoek, eragin handia dute erabaki politikoak hartzeko lanpostuetan eta hautagai zerrendetan emakumeak egon daitezen sustatzeko orduan.

Ildo horretatik, Joni Lovenduski (Lovenduski 1993) alderdi politikoek politikan emakumeen parte hartze handiagoa sustatzeko erabiltzen dituzten hiru estrategia mota azaltzen ditu. Lehena, estrategia erretorikoak, eta emakumeek politikan gehiago parte hartzeak duen garrantzia publikoki onartzea. Bigarrena, alderdi barruan ekintza positiborako estrategiak, emakumeen parte hartzea eta prestakuntza alderdi politiko horietan beraietan sustatzeko. Eta hirugarrena, diskriminazio positiboko estrategiak emakumeen presentzia zehaztua bermatzeko, horretarako neurri zehatzak ezarriz. Horien artean kuotak aipatzekoak dira, horrek bermatuko baitu gutxienez aurrez zehaztutako emakumeen portzentajea alderdiko organoetan, zenbait motatako hauteskundeetan edo hauteskunde guztietan.

Kuotak egotea ala ez eztabaida zabal baten gaia da. Kuoten alde bere eraginkortasuna adierazten da; hain zuzen ere, ia Europa guztian frogatu da eta baita Espainiaren kasuan ere. Kuoten kontra, berriz, bere helburuarekin –berdintasuna, alegia– duen bateraezintasuna adierazten da, hain zuzen ere. Adierazten da ez dela zuzena pertsona zehatzei helburu zehatzak lortzen uztea sexu jakin batekoa izateagatik, gizon eta emakumeentzat ez baitira neurri berezituak ezarri behar guztiei hezkuntza eta lege aukera berberak ematen zaizkien gizaratean.

Europar, ezkerreko alderdiak izan dira, batez ere, beraien funtzionamenduan kuotak ezarri dituztenak, eta, gainera, horixe izan da estatuko instituzioetan

emakumeen parte hartzea sustatu duten oinarrizko aldeetako bat. Erdiko eta eskuineko alderdiek estrategia erretorikoagoak erabili ohi dituzte, emakumeak animatuz, baina hautagaiak aukeratzeko prozesuetan lehiakortasun librea mantenduz. Horietako kasu batzuetan oso ardura handiko lanpostuetan emakumeak izugarri gehitu dira; horregatik, aztertu egin beharko litzateke alderdi bakoitzak neurri horietaz jendeari adierazten diona.

Laburbilduz, azken urteetan alderdiek gero eta argiago adierazi dute politikak gero eta gehiago erakutsi behar duela gizartea gizon eta emakumeek osatzen dutela, eta gero eta gehiago onartzen da emakumeak erabakiak hartzeko lanpostuetan aritzea sustatzeko neurri zehatzak abian jartzeko beharra. Ezbairik gabe, alderdi bakoitzak bere ideologiak baldintzatuta ekiten dio gaiari. Baina, ildo horretatik ere, hainbat faktorek –iritzi publikoa eta nazioarteko konpromisoak, esaterako– aldaketari ematen diote bidea: hasieran jarduera mota horiek garrantzitsutzat zituzten alderdi politikoez konpromiso gehiago hartu behar dituzte.

Azken bi urteetan nire ustez garrantzitsuak izan diren zenbait aurrerapauso azpimarratu behar dira. Amsterdameko Itunak –estatu kide guztiek berretsi zuten 1999ko maiatzean– nahiz eta emakumeen mugimenduek aurreikusitako itxaropenei erantzun ez, oinarrizko helburutzat ditu “desberdintasunak saihestea eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea Europar Batasuneko jarduera guzti-guztietan”. Horrela, aukera berdintasunen integrazioaren kontzeptua gainerako politiketan gauzatzen du.

Zehazki esateko, Europako Elkarteko Ituneko 2. artikulua dio “Elkartearen zeregina gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea dela”, eta 3. artikuluan, Elkarrekin zein ekintza burutu behar dituen zehazten da, besteak beste, “gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna deuseztatu eta horien berdintasuna sustatzeko helburua ezartzea”.

Aldi berean, Europako Elkarteko Ituneko 13. artikulua dio “Kontseiluak... ekintza egokiak har ditzakeela honakoongatik egindako diskriminazioen aurka: sexuagatik, arraza edo etnia jatorriagatik, erlijio eta sinesmenengatik, minusbaliotasunagatik eta adina eta sexu joeragatik”.

Oso aipagarria da 141 artikulua (lehengo 119 artikulua errepikatzen du), bertan estatu kide bakoitzak lan berdineagatik “edo balio berdineko lanagatik”

gizon eta emakume langileei berdin ordaintzeko printzipioa aplikatzea bermatuko duela baitio.

Europako Elkarteak aukeren berdintasunaren printzipioa aplikatzeko duen nahi garbia 141. artikuluan, 3. atalean adierazten da. Bertan, Kontseiluak printzipio hori ezartzea bermatuko dituen neurriak hartuko dituela dio.

Itunaren testuinguruan ekintza positiborako neurriak ere agertzen dira, 141 artikuluko bereko 4. atalean. Atal horretan zera esaten da: estatu kide bakoitzak “abantaila zehatzak eskaintzen dituzten neurriak iraunarazi edo hartu ahal izango ditu gutxien ordezkatura dagoen generoari jarduera profesionalak errazteko edo beraien karrera profesionalean dituzten desabantailak saihestu edo berdintzeko”.

Bada aipatzekoa den beste alderdi bat: emakumeen mugimenduek gizarte politikak eta berdintasun politikak zehazterakoan duten parte hartzea. Izan ere, erakunde feministek sortu zirenetik onartu dute politika publikoek duten garrantzia, eta estatuan eragina izateko eginkizuna hartu dute konpromisotzat, bai eta hori garatu eta praktikan jartzea ere. 70 eta 80ko hamarkadetan hainbat korrontetan feminismo antolatua agertu zen eta horrekin emakumeen erakundeek bizitza publikoan eragin oso handia lortu dute, batez ere mendebaldeko herrialdeetako erregimen parlamentarioetan. Nola feminismo liberalak, hala feminismo sozialistak, zein feminismo erradikalak beraien estrategiak aldatu dituzte beraien eragin zuzen edo ez-zuzena bideratzeko alderdi politikoetan, sindikatuetan eta estatuko egituretan.

Horretarako antolatzeko modua aldatu dute: beraien jarduera mobilizaziora baino gehiago, negoziatziora eta esku hartzera bideratu behar izan dute. Modu berean, instituzioetan sartzeak, jarduera feminista duten emakumeei estatuko instantzia gorenetan egoteko aukera eman die azken urteetan. Ildo horretatik, espainiar estatua adibide ona da alderdi politikoetako emakumeen estrategiek gaur egungo ikuspegi politikoa dezente aldatu dutela adierazteko.

Aldi berean, emakume horien jarduerak erakundeetan berriztapenak bultzatu dituzte, eta horrek berdintasunez jokatzeko duten hainbat eta hainbat erakunde sortzeko aukera eman du, herri mailatik Europako esparrura arte, politika publikoan eta berdintasunekoan emakumeek zituzten eskaerei erantzuna emateko bidea emanez. Azkenik, sareak sortu izanak –nazioartean eta nazioz

gaindi- emakumeei aukera eman die erakunde horietan dituzten jardueren eraginkortasuna eta instituzioen aurrean negoziatzeko duten ahalmenaren eraginkortasuna hobetzeko.

Horren adibide garbia Emakumeen Europako Lobbyrako Espainiako Koordinatzailea da (CELEM); hori bera Emakumeen Europako Lobbyaren (LEF) barruan dago. 1990eko irailaren 22an Bruselan eratu zen Emakumeen Europako Lobbya gobernuz kanpoko erakunde nazional eta europarrek bultzatuta. Lobbyaren helburuak, besteak beste, hauek dira: emakumeengan eragina duten neurri juridikoen proiektuen eta Europako Elkarteko egitarauen bilakaeren jarraipena egitea; arteztarau berriak har ditzatela iradokitzea eta kanpainak bultzatzea Europako Elkarteko politikek –sozialek zein ekonomikoek– emakumeen beharrak kontuan hartuko dituztela bermatzeko; eta hori guztia emakumeak ardurako lanpostuetan jardutea gogo handiz bultzatuz.

Horregatik bere jardueren helburua honakoa da:

- Emakumeentzako eskubide eta aukera berdintasuna bultzatzea eta garatzea Europa elkartu, demokratiko eta solidario baten esparruan.
- Eragina izatea emakumeen aldeko Europako Elkarteko politiketan eta ondorioz politika nazionaletan
- LOBBYra afiliatutako emakumeen erakundeen izenean lan egitea Europako Elkartean bizi diren emakumeen defentsan, emakume baztertuen kolektiboak barne.
- Emakumeen arteko kooperazio sustatzea, Europako Elkartearen barnean eta kanpoan.
- Europako Politika Sozial baten alde proposamenak egitea, helburutzat Barne Merkatua egitekoan Europako hiritar guztion bizi eta lan baldintzak hobetuko direla izanik.

Gaur egun LEFk 2.500 elkarte ditu hamabost estatu kideetan eta Espainian hogeita sei elkarte ditu hainbat esparrutan.

Ildo horretatik esan beharra dago 2001. urtetik aurrera ikus daitekeen etorkizunak helburu eta estrategia berriak beharko dituela. Dagoeneko ezin dugu estatuko instantzietan emakume gehiago egotea bultzatzeaz soilik hitz egin, horretaz gain nagusitasun politikoko modu berriak sortzeaz ere hitz egin behar dugu, ordezkatzeko modu berriez, familiako bizitza eta jardura politi-



koa bateratzea helburu izango duten ohitura berriez; langabezia eta emakumeen aurka erabilitako indarkeria amaitzeaz. Laburbilduz, datozen urteetarako dugun erronka europarrak hobeto ordezkaturak izango dituen Europa erakitzea izango da, dinamikoagoa eta solidarioagoa.

Orain arte erakutsi dugun ikuspuntuak emakume batzuen egoera adierazten du soilik: gure jatorrizko herrialdeetan erregimen politiko demokratikoa dugun emakumeona, oinarritzko eskubideak eta emakumeak etengabe eskubide politiko eta zibilak eskatzen aritu izana errespetatzeko tradizio luzea dagoen herrialdeko emakumeona. Horregatik gutxienez aipatu egin behar dugu hainbat herrialdeetako emakumeek pairatzen duten egoera, batez ere Afrikan eta Asian bizi direnek jasaten dutena.

Giza garapenari buruzko azken txostenak, Nazio Batuek egindakoak, Norvegian, esaterako, Parlamentuan %36,4 emakumeak direla adierazten digu, eta Gobernuan, berriz, emakumeak %42,1 direla. Ildo horretatik, aipatu behar da Espainian emakumeak %28,3 direla Kongresuan, %24,3 Senatuan eta %17,6 Gobernuan.

Badira bestelako egoerak, ordea: Japoniakoa (emakumeak gobernuan %5,7, Goiko Ganberan %17,8, Beheko Ganberan %7,3) edo herrialde arabiarrena. Izan ere, herrialde arabiar gehienetan gobernu eremuan emakumeek ez dute inongo ordezkartzarik eta oso txikia ganbara legegileetan, beti ere %10 baino txikiagoa.

Hori dela eta, errealitatea askotarikoa dela esan dezakegu, eta horregatik nazioarte mailako jarduerak, batez ere Nazio Batuetatik datozenek, publikoaren eremuan emakumeek eta gizonezkoen parte hartze orekaturako klima egokiago bat bultzatu dezakete.

Bestalde hori ezin da errealitate bihurtu emakumeen oinarritzko eskubideak alor unibertsalean; hain zuzen, argi ikusten den bezala inork zigorrak jasotzen gabe egunero hautsi eta urratzen diren eskubideak mundu guztian onartzea lortu gabe.

## BIBLIOGRAFIA

COMISIÓN DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS (1998): *Informe anual de la Comisión. Igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres en la Unión Europea. 1998 (Com 1999 106 final)*.

COMISIÓN EUROPEA (1998): *Igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres en la Unión Europea. 1997*. Of. De Publicaciones Oficiales de las Comunidades Europeas. Luxemburg.

COMMISSION EUROPÉENNE (1998): *Européennes, Européens à chances égales? Eurobaromètre 44.3*. Of. Des publications officielles des Communautés européennes. Luxemburg.

CONFERENCE EUROPÉENNE DE PARIS "FEMMES ET HOMMES AU POUVOIR" Une société solidaire. Une économie dynamique. Une ambition européenne. *Déclaration de Paris*. 15-17 avril 1999.

LOVENDUSKI, Joni (1988); "The Women's Movement and Public Policy in Western Europe: Theory, Strategy, Practice and Politics" in BUCKLEY M. AND ANDERSON, M.: *Women, Equality and Europe*. Mac Millan Press. Londres.

NORRIS, Pippa (1997): "Implicaciones de las diferencias de género en el comportamiento electoral" in URIARTE, E., ELIZONDO, A. (Koordinatzaileak): *Las mujeres en política*. Ed. Ariel. Bartzelona.

PNUD (2001): *Informe sobre desarrollo humano 2001*. Ed. Mundi Prensa. Madril.

URIARTE, Edurne (1997): "Las mujeres en las élites políticas" in URIARTE, E., ELIZONDO, A. (Koordinatzaileak): *Mujeres en política*. Ed. Ariel Bartzelona.

---

# BOTEREA TOKI ADMINISTRAZIOAN

---

BEGOÑA SAN JOSÉ

## GIZONEZKOAREN BOTERE- -MONOPOLIOAREN ZENTRALITATEA SEXU- -ROLEEN ERATZEAN

Boterea, bai bere adiera absolutuan –ahalmen gisa, hau da, ezintasunaren aurkakoa (1)–, bai bere adiera erlatiboan –zuregan eragina jasatea baino besteengan eragina izatea– historian zehar "gizonen kontua" izan ohi da. Gizonezkoaren eta emakumezkoaren ikuskerak ardatz gisa boterean egotea ala ez egotea izan du. Gizon indartsua/emakume ahula -babesaren beharra duena- binomioa da gure gizartearen antolaketaren oinarria: bikotean edo familian, estatuan edo enpresan.

Gure kulturaren ahulezia nahiz gure boteretik eza dira emakumeon ezaugarri, eta era berean, gizonezkoa, emakumezkoaren aurkako eta osagarritzat jotzen dena, emakume baten menpekoa denean nahastu egiten da. Emakumeok gure buruak ikusi eta gainerakoek gu ikusten gaituzten jarrerarekiko jokabide eta sinesmenen arabera, gizonekin gertatzen ez den bezala, emakumezkoen baloreak sentiberatasuna, errukia, otzantasuna, besteei moldatzea eta pairamena dira. Emakumea, beraz, gizonezkoaren babesean bizi behar du, bere gaitasun intelektualak eta harremanetarako ahalmenak mugatu behar ditu eta ez du gizonezkoaren indarrarekin norgehiagoka ari behar, bere aginduari moldatu baizik.

---

(1) Celia Amorós, *Mujeres, feminismo y poder*. Argitaletxea: Forum de Política Feminista 1988, 7. orr.

## **HERTSADURA ETA LEGITIMAZIOA, BOTEREAREN BI OSAGIAK. GIZONEZKOAREN BOTERE- -MONOPOLIOAREN DESLEGITIMAZIOAK DUEN GARRANTZIA**

Botere orok bi osagai dauzka: hertsadura, altxarazten direnak indarkeriaz gainditzeko edo mehatxu egiteko, eta legitimazioa, menpekoek onar dezaten.

Gizonezkoaren botere-monopolioa ezarritako lege edo arauen bidez –beharezkoa zenean indarkeriaz– eratu da historian zehar: sorgin-erreketa, neska eta emakumeei heziketa galaraztea, emakumeak antisorgailuak hartzeagatik edo abortatzeagatik kartzelaraztea, lokal publikoetara sartzea debekatzea edo "gizon publiko" direlakoei ospea zekarkien gauza bera egiten zuten emakumeak "emakume publiko" bezala laidoztatzea, botoa emateko eskubiderik ez izatea, "zure emaztea egunero jo ezazu" delako hori, etab.

Baina galerazpen eta hertsadura hauekin guztiekin batera, diskurtso bat, ideologia bat egon da, batez ere emakumeek beraiek onar dezaten, desberdintasuna izan daitekeen sistema bakarra, edo behintzat, gaitzik txikiena, legitimatzeko.

Historian zehar, emakumeen menpekotasunaren legitimazioa erlijiozko edo biologiazko arrazoietan edo egokitasunean oinarritu da. Ilustrazio eta Frantziako Iraultzaren ondorioz sortu zen Erregimen Berriak ere, emakumeak berdintasun printzipiotik kanpo utzi zituen, lehenengo, hiritar izateko eskubidea ukatuz. 1793ko frantses Konstituzioak "umeak, zoroak, emakumeak eta zigortuak ezin dira hiritartzat jo" eta "Batzarrak emakumeak inolako asanblada politikora joateko gaitasunik ez dutela erabakitzen du" aditzera eman zuen. Rousseauk, berdintasunari buruzko hitzaldian, emakumeak kanpo uzten zituen ondorengoa esatean: "politika gizonei dagokie, arrazionaltasuna, hierarkia, kultura, sendotasuna, kemena, adiurrea eta adostasuna dagozkien legez. Emakumeak politikatik kanpo egon behar dira eta etxea txukundu, esana bete, gozo izan, eta, oro har, gizonezkoen askatasuna eta arrakasta erraztu besterik ez dute egin behar, gizonen aginpidepean baitaude". Aurreko hitzaldiak Montesquieuren gaintik nagusitu zen, honek "baketzat menpekotasun zorrotzera jotzen den gobernu baten, lehenengo behar dena emakumeak giltzapean sartzea da." Honen ondorioz, Olimpia de Gougesek bere herio-

tza profetizatu zuen "emakumea urkamendira igo daiteke, baina ez tribunara" salatu zuenean.

Emakumeen adimena onartzeak emakumezkoen baloreen dogma lur jota utzi du, hezkuntza eta arrazoa geureganatzea ahalbidetu du, etxe gozoaren itxialditik, aitaren, nebaren edota senarraren aginpidetik irteteko hegala eman dizkigu, amatasuna planifikatu du, eta milurteko kultura baten eraispen azkarri ekin dio.

Egiturak aldatzeko indarkeria erabili nahi ez dugunok "arrazoiz bete" behar gara, gure hautabidea zeharo legitimatu behar dugu eta aurre egin nahi dugun sistema deslegitimatatu. Gizonezkoak nagusi diren egitura patriarkala sexuak gizaki bakoitzaren gaitasunak mugatzen ez dituen eta guztion arazoak emakume zein gizonek erabakitzen duten sistema bategatik aldatzeak hainbeste jende, bikote-harreman, familia, lan, politikan eragina duenez, desberdintasunaren azterketa kritiko baten lan iraunkor batetik eta ekipotentzia zein berdintasunaren abantailen legitimaziotik besterik ezin izango dugu errealitate sozial desberdina eratu.

## **MORAL PUBLIKO BIKOITZA: BOTEREA GIZONENTZAT, AHALMENIK GABEKO MAITASUNA EMAKUMEENTZAT**

Biologiako eta erlijiozko arrazoiez gain, badago egokitasuneko arrazoi bat: "tuntun horiek, ez ezazue gizonena nahi; zuek, etxea, gozotasun, edertasun eta maitasunarekin onena duzue".

Lana emakumezkoen "izaerarako" kontrako gunetzat jotzen bada, zer esanik ez politika, berez gertatia: emetasunaren ezeztapen hutsa.

Maitasuna eta boterea erkatzea eta bata emakumezkoen eta bestea gizonezkoen lotzea Antigonen milaka urteko mitoan agertzen da. Edipo erregearen alaba izan zena bere aitaren itsuaurrekoa zen, jainkoek itsutasunarekin zigortu baitzuten. Tebasko Creonte erregearen semea zen Hemonen emaztegaia zen, baina bere neba Polinice Creonteren aurkako gerra zibilean hil zen, eta honek, bere garaipena harrokeriaz agertzeko, menperatuak lurperatzea debe-

katu zuen. Antigonarentzat, bere nebarengan zuen maitasuna erregeak agindutakoa baino garrantzitsuago izan zen eta gudu-zelaira joan zen Polinice lurperatzera, erabaki honek bere heriotza eta bere Hemon maitearen mina ekarriko zituela bazekien ere.

Antigonaren zorigaitzak historia zeharkatu du, botere bidegabearen kontrako intsumisio etikoaren erreferente gisa. Baina teoria feministak tragedia honetan genero-rolen funtsezkoena azpimarratu du: pentsaezina da leinu politikodun emakume honen eta bera inguratzen duten edozein gizonen –aita, neba, senargai, aitagarreba– arteko zereginak aldatzea. Gizon horiek indarrez, ekimenez, erabakitze gaitasunez beterik daude, akats, gehiegikeria edo grinengatik larrutik ordaintzen badute ere. Antigonak Rousseauk zioen hura, hots, "gizonezkoen askatasuna eta arrakasta erraztu besterik ez dute egin behar, gizonen aginpidepean baitaude" betetzen du, berarentzat askatasunik, arrakastarik, maitasunik eta bizitzarik ez izatearen truke.

"Emakumeentzako maitasuna eta gizonentzako boterea" delako zereginen banaketa honek ez du betetzen zuzenbidean, kontratu sinalagmatiko edo elkartrukekoen baliotasunerako, baliokidetasun printzipioa deritzona. Prestazioen baliokidetasunak trukagarriak eta itzulgarriak izatea eskatzen du, baina emakumearen maitasuna bere pairamena da, bere suntsipena da, eta heriotzarekin ez dago ez itzultzerik ezta trukerik ere. Banaketa horrek ezin du itun sozialaren sostengu izan.

Botererik eza, Antigonaren ezintasuna ez da erregina izateko eta, politika zuzenago egitearren, Creonteren dekretua aldatzeko bakarrik. Bere neba eta senargaia maitatzeko ezintasuna ere da, hau da, maitasuna bizitzeko ezintasuna. Boterea ez da maitasunaren aurkakoa, ezintasunaren aurkakoa baizik.

## **BOTEA EMATEKO ESKUBIDEA, DEMOKRAZIA PAREKIDEA ETA GKEEKIKO ELKARRIZKETA, BOTEREAREN ESKABIDE FEMINISTAREN HIRU MOMENTU**

Boterearen banaketari buruzko diskurtso feministak hiru eskakizunetan gauzatu da:

a) **EMAKUMEOK BOTOA EMATEKO DUGUN ESKUBIDEA.** 2001eko urrian, 1931n Espainiako Errepublikako Konstituzioak eskubide hau onartu zuenaren 70.urteurrena ospatzen dugu. Etenaldi frankistak eskubideen lorpenak atzeraezinak ez direla gogorarazten digu, eta Afganistan edo Kuwaiteko emakumeen egoerak ez direla unibertsalak agertzen du. Baina Clara Campoamorrek emakumeei hitza eta botoa ukatzen dien sistema baten urritasun demokratikoari eta emakumeak erabiltzen besterik ikasten ez diren eskubideak erabiltzeko prestaturik ez daudela diotenaren itxurakeriari buruz agertzen dituen arrazoiak erabat balioudunak izaten jarraitzen dute. Botoa ez da makilatxo magikoa, baina politikak baldintzatu ditu eta kontzientzia zein genero-eskabideak gero eta gehiago, honen bitartez adierazten dira.

b) **DEMOKRAZIA PAREKIDEA,** ez da bakarrik botoa emateko eskubidea, gizonekin berdintasunean, hautagaiak izatekoa ere da. Atenaseko Deklarazioak, 1992an hainbat europar gobernuak sinatu zutenak, herriko ordezkarietako organoetan dagoen desberdintasunak dakarren urritasun demokratikoa ezagutarazten du eta sexuek ez dutela %40tik beherako ordezkaria izan behar adierazten du helburu gisa. Mugimendu feministaren eta erakundeen zein alderdi politikoen hazkunde-hasieraren –kuotak edo Frantziako Parekotasun Legea bezala– arteko bateratasuna adierazten du organo legegileetan eta gobernu-organoen emakumeen masa kritikoa lortzearen.

c) **BOTERE PUBLIKOEN ETA EMAKUMEEN GKEEN ARTEKO ELKARRIZKETA ZIBILA.** Ondorengoetatik abiatzen da: partehartzeko demokraziatik, herriaren ordezkagarri den demokraziatik harantz, botoa aldizka ematean legitimatzen dena baina ez duenak herriak bere ordezkarienganako gaitzusteak eragozten; taldeko edo hirugarren belaunaldiko giza eskubideetatik, bereizkeriarik ez izateko eskubidea lortzearen eta azkenik, Gobernu Kanpoko Erakundeek, Estatuak ukitzen ez dituen talde edo gaietan aurrea hartzean edo premia betetzean, herri onuraren zeregina betetzen dutenaren onarpenetik.

Nazio Batuen erakundea da GKEekiko elkarrizketa gehien onartu duen erakundea. Eraketa-gutunetik –1949ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren korrelatua– 71.artikuluan GKEek giza eskubideen kulturaren gizarteratzeko eta Nazio Batuen sistema legitimizatzeko betetzen duten zeregina onartzen du. Bere batzar guztietan GKEen Eztabaida-leku Paraleloa

eratu du (Beijingen 1995ean egindako Emakumearen IV.Batzarrera 30.000 emakume joan ziren) eta baita kontsultarako estatutua ere, eta bere hitzarmen batzuetan –pertsonekin kontrako minak debekatzekoa, edo Nazioarteko Zigor-auzitegia sortzekoa bezala– emakumeak gehiengoak diren erakunde sozialek eragin handia izan dute.

Europar Batasunean, izaera ekonomizista nabariak elkarrizketa soziala sindikatu eta enpresa-erakundeetara murriztea ekarri du. Gizarte Zibilaren Foro Iraunkorrek GKEen eta hainbat mugimenduen baterako aldarrikapena aurkeztu zuen 2000n Oinarrizko Eskubideen Europar Gutunaren onespenerako, baina ez zuen arrakastarik izan, elkarrizketarako guneak instituzionalizatuz badoaz ere, esaterako, Emakumeen Europar Lobbya.

Espanian GKEekin "elkarrizketa zibila" izateko tradizio gutxi dago. Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua, Inmigrazio Foroa bezalako organoek gobernuak GKEei kontsultatzeko funtzioaren eta GKEak "nire alde ala nire kontra" (gogora dezagun Gobernuaren Kanpoko Erakundeak direla) jokatzearen artean duen nahastea adierazten dute, gobernuaren aldeko erakundeekin, hau da, bere buruarekin, besterik elkarrizketatzen ez delarik. Emakumearen Institutuari dagokionez, bertoko Batzarde Kontseilariak gutxiengoan dagoen eta hautatzen baino izendatzen den GKEen ordezkari bat du, eta ez du, beraz, elkarrizketa zibileko zeregina betetzen.

Emakumearen Batzardeak autonomi eta toki-mailan daude, haietan hainbat osatze mota badago ere: emakumeen elkarteek besterik osatzen dituztenak, gobernuko ordezkari bat buru gisa dutenak –gobernuko beste organoetako ordezkariak, oposizio alderdiak, ordezkariak sindikatuak, ordezkariak eta emakumeen elkarteetako ordezkariak ondoan izaten dituenak–. %100ean Batzardea GKEek %100 osatzeak borondatea nahiz adostasuna eratzean gehienezko autonomia dakar koordinatutako elkarteekin ekintzako batasunean, baina boterearekiko elkarrizketarik ez bermatzeko arriskua dakar. Toki edo autonomi gobernu buru den edo gobernu horrek zuzendutako Batzardeak elkarrizketa bermatzen dute, baina batzuetan, statusaren desberdintasunak boteretik GKEak babestea eta autonomia zein aldarrikapeneko izaera galtzea dakar.

Burgosen 2000ko urrian burututako Emakumearen Batzardeen I. Bilera hartatik, emakumeen erakundeek, gobernu, alderdi politiko edo sindikatuekiko



bestereentzearen gainetik, erabakiak hartzeko duten autonomia eta heldutasun-mailari buruzko eztabaida sortua da, botere publikoen aurrean aukera-berdintasunari eta emakumeen bizitza-kalitatea hobetzeari buruzko neurriei eusteko indarren bateratzeari lehentasuna ematearren.

## **EMAKUMEEN BOTERETZEA BURUTUTAKO EMAKUMEAREN MUNDUKO IV.BILTZARREAN (BEIJING 1995)**

Emakumeen boteretzea da 1995ean Beijingen burututako Emakumearen Munduko Biltzarrean erabakitako Ekintzarako Plataformaren ardatzetariko bat Emakumeen biktimizazioa alde batera utzirik, gizaki orok, emakume orok dituen ahalmenei balioa emateko modua –babesgabetasun egoeretan ere– du helburu nagusi. Ekintzarako Plataformak onetsitako 12 helburu estrategikoenetariko bat boterea eta erabakiak hartzea da, hain zuzen ere, G.1 eta G.2 ize-neko helburuetan egituratutako neurrien bidez. Horra hor bost lerrotan:

1. Ordezkaritza parekiderako helburu zehatzak jartzea.
2. Alderdi politikoetan hautagai-zerrendak egiterakoan eta erabakiak hartzerakoan dagoen zuzeneko edo zeharkako bereizkeria aztertzea, prozesuan dagoen gardentasuna handituz.
3. Emakumeen ordezkari politikoari buruzko datuak lortu, aztertu eta zabaltzea.
4. Eztabaida publikoa bultzatzeko komunikaziozko estrategiak ezartzea.
5. Emakumeak buruzagitzan prestatzea.

Berdintasuna deklarazio printzipio bat baino, zeregin politiko bat legez agertzen da gero eta gehiago. Mugak izan bazituen ere, Beijingen 1995ean burututako Ekintzarako Plataformak, lehen aldiz, Beijing+5 delakoarekin, hura betetzen zen ebaluatzeko mekanismo bat ezarri zuen. 1979ko Bileraren Aukerako Protokoloak, Emakumeen aurkako edonolako Bereizkeria Ezabatzeakoak, ikerketa eta salaketarako mekanismoak gaineratzen ditu eta 2000 urtean onetsitako Nazioarteko Zigor-auzitegiarekin bat etorri.

## "EMAKUME GEHIAGO TOKI- -BOTEREETAN" IZENENKO PROIEKTUA

1997an, zazpi alderdi politiko eta 52 udaletako zinegotziok –emakumeak, noski–, hainbat erakundeetako militante feministekin eta Dolores Ibárruri Fundazioko teknikoekin batera, 1999ko udal hauteskundeetan, Beijing 1995eko Ekintzarako Egitaraua ezarriz, Espainiako zinegotzi emakumeen kopurua %13tik %33ra igarotzeko bi urtetarako estrategiari ekitea erabaki genuen.

Zergatik jo genuen zinegotziengana? Lehenengo, Espainian, toki-botereak, hau da, Udalak, Foru Aldundiak, Irlako Kabildoak eta Irlako Kontseiluak, direlako zuzeneko moduan eta modu unibertsalean hautatzen dien kargudunak (etorkinek botoa emateko eskubiderik ez badute ere), emakumeok esku-ratzeko zailagoak. Paradoxikoki, hauteskundera zenbat eta mugatuago (eta "urrunago") izan, orduan eta handiago izaten da emakumeen proportzioa.

Udaletarako demokrazia parekidearen aldeko borroka areagotzea ondorengok dakartza: borroka hau oinarri zabaleko herritar hauteskundeetako erakunde horretara eramatea; erakunde elitistagoetan, alderdien toki garaieneko ilustratuek eginiko kooptazio-mekanismoen bitartez lortutako kuotetatik oinarri alderdikoen esku dagoen prozesu batera igarotzea; ideia landa-ingurunera eramatea eta gastu publikoaren %16a kudeatzen duten –eta herritarrengan eragin zuzena duten– erabakiguneetan parte hartzeko emakumeen kidego zabala sortzea.

Horra hor, 1995eko udal hauteskundearen egoera:

**Herri ordezkariak  
erakundea 1995ean**

	<b>kide-kopurua</b>	<b>emakumeen %</b>
Espainiako ordezkariak		
Europar Parlamentua	64	32,8
Diputatuen Kongresua	350	22,0
Senatua	208	14,9
Autonomi Parlamentuak	1.180	19,6
Udaletako zinegotziak	66.087	13,5

Egoerak, 1999an 13 Autonomia Erkidegotan izandako udal hauteskudeen ondoren, hobera egin zuen, ia 4.000 zinegotzi gehiago lortu zelarik (8.921 izatetik 13.805 izatera), emaitza horrekin oraindik demokrazia parekidetik (%50 emakumeak-%50 gizonak), eta lortu nahi genituen emakumeen %33tik urrun bageunden ere, %25a besterik lortu ez genuen eta, baina, hala eta guztiz ere, Alemania bezala, Europar Batasuneko sailkapenean 4.postua da, zerrenda Suediak (%42), Finlandiak (%32) eta Danimarkak (%27) hasten dutelarik:

**Herri ordezkariak  
erakundea 1999an**

	<b>kide-kopurua</b>	<b>emakumeen %</b>
Espainiako ordezkariak		
Europar Parlamentua	64	34,4
Diputatuen Kongresua	350	22,0
Senatua	208	14,9
Autonomi Parlamentuak	1.180	31,9
Udaletako zinegotziak	57.325	25,3

Horretarako, alderdiei eta gobernuko erakundeei (Barne Ministerioa hauteskude-prozesuaren erantzule den legez; Udalen eta Probintzien Federazioa, Emakumearen Institutua eta proiektuan parte hartu zuten Autonomia Erkidegoetako (2) emakumeen erakundeak) Beijing 1995eko Emakumearen Munduko Biltzarreko Ekintzarako Plataforma hartan erabakitako neurriak betearaztea genuen xede, aipatu G.1 eta G.2 helburuak bete zitezten.

---

(2) Andaluzia, Kanariak, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Madril, Euskadi eta Errioxa.

## ALDERDI POLITIKOEN ZUZENeko EDO ZEHARKAKO BEREIZKERIA AZTERTZEA

Hautagai-zerrendak eratzekoan, alderdi politikoetan dagoen zuzeneko edo zeharkako bereizkeria aztertzeko, proiektuaren lehenengo fasean lurralde eta alderdi desberdinetako emakume zinegotzi eta zinegotzi ohien lagin baten ikerketa kualitatibo eta kuantitatibo bati ekin genion, eta ondoren adieraziko diren ondorioak agertu zituen (3):

**A)** Emakumeen buruzagitza politikoak izaera alderdikoia baino, izaera soziala. Emakume zinegotzien proportzio handi bat, gizon zinegotziarena baino handiagoa dena, alderdien kide izateagatik baino, entzuketik, lanbide soziale-tan (irakasleak, gizarte-laguntzaileak, osasun-laguntzaileak) aritzeagatik edo gizarte-erakundeen (emakumeenak, ikasleen gurasoenak, gazteenak) kide izateagatik igotzen da. Honek alde on eta txarrak ditu. Alde onen artean, emakume zinegotziek alderdien egitura itxiak gizarteko espektrora zabalago batera "zabaltzen" dituztela, eta hiritarrek udal erakundea hurbilerrazago nabaritzen dutela. Alde txarren artean, honek erabaki alderdikoen gune zorrotzetik baztertzen dituela eta izaera "suntsigarria" ematen diela, eta honela, gauza berria izaten uzten dutenean, berehala baztertzen dira. Izan ere, hiru emakume zinegotzietatik bik ez dute agintaldirik errepikatzen, hiru gizon zinegotzietatik batek besterik uzten ez duelarik. Beste alde batetik, behin-behinekotasun horrek karrera politiko sendoak eratu edo finkatzea zailago bihurtzen du.

**B)** Kuotek emakumeak hautagai-zerrendetan parte hartzeari naturaltasun gutuna bermatu diote, egoera honek "zehir-ondorioak" baditu ere. Kuotek beraiek onartzen dituzten alderdietan ez ezik, onartzen ez dituzten baina hautagai-zerrendetan emakumerik sartu gabe botoak galduko lituzketela dakiten alderdietan ere izan dute eragina. Hala eta guztiz ere, badaude ondorio kaltegarriak, "elkartruketasuna" bezala (gizonak kalitateagatik daude, emakumeak, berriz, kantitate bat betetzeko), eta honek legitimotasuna, merituen onartzea galtzea dakar, eta baita, emakumeen arteko lehia-eskarmentuak ere, gizonekin oraindik gizonetzkoen gehiengoa duen eta menperatzailea gunea lortzeko norgehiagokan ari beharrean.

---

(3) Honako lan hau Patricia Ojeda, Isabel Boter eta Mayte Martínez-ek egin zuten 1997 urtean, Delphy metodologiaren bidez beste hamahiru adituei aholkua eskatuz. Ondorengo liburuan argitaratu da: *Más mujeres en los poderes locales*, I. eta II. liburukiak, Dolores Ibárruri Fundazioa, Madril, 1998 eta 2000.

**C)** Zinegotzi edo alkate "onak" izan daitezkeela agertzeko gehiegizko ahalegina. Elkarriketatutako ia guztiek gehien lan egiten dutenak direla eta emakumeak besteen aurrean ondo uztea exijitzen diotela beren buruei, batez ere buru-belarri ekiten, adierazten dute. Emakume alkate edo zinegotziek kausaren "misiolari" izatearen kontzientzia dute.

**D)** Bizitza politikoa eta bizitza pertsonala: denbora eta rolen bateraezintasunak. Objektibo eta subjektiboki, emakume zinegotziek gehiegi jarduteak beren bizitza pertsonalarekin talka egiten du, bai alde profesionalari dagokionez (zinegotzi gehienek ez du bere arduraldi politikoagatik kobratzen), bai beren afektibitate-bizitzari dagokionez. Bigarren honetan, alderdi subjektibokak dira erabakigarriagoak. Emakume askorentzat, zinegotzigoitik igarotzeak bere bikotearekiko oreka apurtu du. Beste emakume askok, seme-alabekin dauden arazoez beren buruei botatzen diote errua, uzte baitute haiekin bete-betean egon balira ez zatekeela arazorik izango. Denboraz gain, emakume askok azpimarratzen dute bikoteak beren entzute soziala apalkuntza, hondaketa bailitzan ikusten duela. Alderdikideek edo udaleko kideek ere botere handiko emakume zinegotziak edo alkateak gaizki jasaten dituzte. Haietako batzuek agintzen dutena disimuluan egin behar dutela, edo agintzea gogoko ez dutelako itxurakeriak egin behar izaten dituztela diote, beren ideiak edota proiektuak gizarterako ezartzeak poztasun handia dakarrela onartzen badute ere.

**E)** Emakumeak eta politikaren edukiak. Emakume zinegotzi gehienek beren zeregina gizarte-zerbitzuetan, hezkuntzan edo kulturaren egiten dute. Baina, emakume zinegotzien kopurua handituz doan neurrian, eremu honek gainezka egiten du. Emakume hauek gizarte politikarekiko eta menpeko gizakiak zaintzeko zerbitzuekiko sentikorragoak dira, aldi berean haiek hautatu dituen zinegotzi-taldetik ez banantzeko egiten dituzten ahaleginek jokabide asko antzeratzera behartzen badituzte ere. Honako hau %25 ehunekoaren inguruko "masa kritikoa" ez lortzeagatiko ondorioa da, ehuneko honetatik aurrera emakumeek, besteek haiengan eragina izan ez ezik, besteengan eragina izateko gaitasuna ere izaten baitute.

**F)** Alderdiarekiko leialtasuna eta emakumeen arteko itunak. Aurrekoari eutsiz, emakume zinegotziek, de facto baztertu ez dituzaten, talde politikoarekiko atxikimendua espliziatu behar dutela hautematen dute. Egoera honek beste alderdi politikoetako emakume zinegotzietatik norgehiagoko publikoa

areagotzera behartzen ditu, bizitza pertsonalean ongi moldatzen badira ere. Erakunde feminista eta emakumeen erakundeekiko elkarrizketari dagokionez, badago anbibalentzia bat: haien helburuekin bat datoz, baina haien artean ez dago sinkronizazio edo sintoniarik lan egiteko denbora eta moduetan.

## **MITIFIKAZIOAREN AURREAN, KOANTIFIKAZIOA: ORDEZKARITZA PAREKIDERAKO HELBURU ZEHATZAK EZARTZEA ETA EMAKUMEEN ORDEZKARITZA POLITIKOARI BURUZKO DATUAK LORTU, AZTERTU ETA HEDATZEA**

Boterearen mitifikazioa boterea eskuratzeko tresna da. Koantifikazioak, berriz, boterea banatzeko balio du. Beijing 1995 Biltzarrak datu zehatzak lortu eta hedatzera bultzatzen du, emakume ministrorik ez egotearekin ohitura gaudenez, hiru izateak emakumeok egoera aldatu dugula eta agintzen dugunak garela pentsaraz dezake, baina erregistro ofizial batek esaten badu %20 emakume ministro dagoela eta biztanleetatik %52 emakumeak direla, iritzi publikoaren heziketa zeharo desberdina da.

"Emakume gehiago toki-botereetan" izeneko proiektuan, 1995eko hauteskundeetan zinegotzien %13,5etik 1999ko hauteskundeetan %33ra pasatzea erabaki genuen. Lehen aipatu dugun bezala, %25ean geratu ginen. Kopurua handitzea Autonomia Erkidego guztietan, alderdi guztietan eta herri tamaina guztietan gertatu da. Madrilgo Autonomia Erkidegoak zinegotzien %29a, PSOE alderdi politikoak %40,0, eta 200.000 biztanle baino gehiagoko udalek, %35 lortzean, dira feminizatuenak.

1999 arte, Barne Ministerioak ez zituen sexuka banakatu 225.710 hautagaiei buruzko datuak, ezta zinegotzi hautatu zituzten 57.325 pertsonenak ere. Ordura arte eskuragarri ziren datuak inkestetatik ateratakoak ziren, hain zuzen ere, FEMP delakoak eginiko inkestatik ateratakoak. Neurtzen ez dena ez da ebaluatzen, eta ofizialki koantifikatzea aurrerapauso bat da. Koantifikazio honek emakumeak hautatzekoak ez diren postu-zerrenden "betegarritzat" erabiltzeko baliabidea (parekotasunaren eskabidearen indagabekeria) baloratzea ahalbidetu du.

1999an, estatu mailan hautatutako emakume zinegotziaren kopurua %44,2an handitu zen, eta honek 3.773 emakume zinegotzi gehiago dakar, guztira 13.805 direlarik. Frantziako ordezkari-tza-berdintasun Legeari buruzko esamesa funts-gabeak (emakume hautagaiak kriseiluz bilatu behar zirela ziotenak) ezeztatuz, badirudi badagoela dagokien gunea lagatzeko gizon baino erantzukizun bat izateko emakume gehiago.

Euskadin, 549 emakume zinegotzi izatetik 680 izatera igaro zen, 1995ean udal karguen %21,6a eta 1999an %26,9a zirenak. 1995ean toki-botererik feminizatuena zuen Autonomia Erkidegoa zen, Madrilgo Erkidegoaren ondorenera, eta 1999an hirugarrena izatera pasatu zen, Madril eta Murtzia-riaren ondoren.

	Zinegotziak 1995	% Zinegotziak 1995	Zinegotziak 1999	% Zinegotziak 1999	Aldea 1995-1999	Gehikuntza % Zinegotziak
Andaluzia	1.582	18,0	2.280	26,0	698	44,5
Aragoi	533	12,3	717	16,9	184	36,9
Asturias	195	19,7	259	26,6	64	34,7
Balearrak	166	19,9	214	25,2	48	26,6
Kanariak	213	17,0	303	23,7	90	39,7
Kantabria	126	12,3	192	18,8	66	52,1
Gaztela- Mancha	939	15,2	1.434	23,4	495	53,8
Gaztela eta Leon	1.511	11,6	2.009	15,7	498	35,6
Katalunia	1.208	14,4	1.576	18,6	368	29,0
Ceuta eta Melilla	10	20,0	13	26,0	3	30,0
Extremadura	571	16,6	790	23,2	219	39,7
Galizia	424	10,8	593	15,2	169	41,0
Errioxa	155	15,8	186	19,5	31	23,4
Madril	376	21,8	573	29,3	197	34,6
Murtzia	148	20,9	194	27,1	46	29,3
Nafarroa	282	17,0	350	21,7	68	27,4
<b>Euskadi</b>	<b>549</b>	<b>21,6</b>	<b>680</b>	<b>26,9</b>	<b>131</b>	<b>24,5</b>
Valentzia	1.044	19,7	1.442	25,3	398	35,4
<b>Guztira</b>	<b>10.032</b>	<b>17,5</b>	<b>13.805</b>		<b>3773</b>	<b>44,2</b>

## EZTABAIDA PUBLIKOA BULTZATZEKO KOMUNIKAZIOZKO ESTRATEGIAK EZARTZEA

1999ko ekainaren hauteskundeak baino bederatzir hilabete lehenago, sei autonomia erkidegotan (4) eguneroko idatzizko prentsaren segimendua egin genuen. Erkidego bakoitzean, begiraleek kargudun emakumez eta ekainaren 15erako hautagai ziren emakumez nola mintzatzen ziren aztertzen zuten, bai koantitatiboki bai kualitatiboki, aztertzen zuten.

Emaitzak oso interesgarriak izan ziren, eta baldinbaitere, idazten dutenek eta informazioa jasotzen dugunok izaera kritiko hura mantendu ahal dugu! Horra hor ondorioetako batzuk:

- emakume kargudunek komunikabideetan duten agertze-kuota erakundeetan duten agertze-kuota baino txikiagoa da, komunikabideek, beraz, egun dagoen partaidetza urria ikusteaz bihurtzen dute;
- komunikabideak emakumei buruz gehiago mintzatzen dira hautagaiak direnean kargudunak direnean baino. Zerrendak egitean eta emakumeak "ongi saltzean", gauza berria izatearen faktorea politikan aritzea baino salkorragoa da;
- koalitatiboki badago emakumezkoen estereotipoen erabilera, emakumei asertibitate edo indar gutxiago dagokiolarik: gizonak "berresten dute", "kalifikatzen dute", "exijitzen dute", "baiesten dute", "eskatzen dute", "salatzen dute", "eztabaidatzen dute", "argitzen dute", eta emakume politikoak, berriz, "esaten dute", "ukatzen dute", "zerbaiti eusten diote", "proposatzen dute", "atzera botatzen dute", "aurkezten dute", "inauguratzen dute"...
- emakumeen izen bereziak, berriaren iturri gisa, gizonenak baino gutxiagotan agertzen dira egunkarietako tituluetan. Askotan, emakume baten ekintza bere alderdiak edo zerrendan lehenengoa denak egin duela esaten da;

---

(4) Andaluzia, Kanariak, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Madril eta Errioxa.



- emakumeen irudi grafikoetan gorputz osoa agertu ohi da, bere jantziak edo gorpuzkera ikus daitezkeela (eta batzuetan, komentatu egiten dira); gizonen argazkietan, berriz, lehen planoak izaten dira gehienetan, eta haietan hautagaiak bere buruzagitza sendotzen du.

## EMAKUMEAK BURUZAGITZA IRAUNKORREAN TREBATZEA

Proiektuaren hirugarren fase bezala aurrez ikusi genuena ezin zen burutu Irene Falcón, laurogeita hamar urte inguru zituela Dolores Ibárruri Fundazioaren zerizana zena, hil egin zelako. Hala eta guztiz ere, Beijing 1995 delakoaren bosgarren ildo estrategiko hau garatu ahal izateko zenbait ohar adieraziko ditut jarraian.

- emakumezkoen buruzagitzaren alde onenak maximizatzea: lanbide eta gizarte erakundeekiko errotzea, eskuragarritasuna;
- emakumeak trebatzea, alderdietan molda daitezten, erabakiak hartzean dauden ezkutuko mekanismoak ikus ditzaten, baliabide antolatzaile informalak (tribuaren erritualak) emakumeen ordutegi eta ohiturekiko bateraezinak (futbola, etab.) txikiagotzea;
- gure buruzagien –gizon zein emakume– curriculumak eta ibilbideak generoaren ikuspegitik aztertzea, taldean gizon zein emakume buruzagien karrera politikoei buruz gogoeta egitea;
- emakumeek esplizituki laguntzen dieten emakumezkoen buruzagitzak bultzatzea;
- bateraezintasunen eta aginduen mugen gainean lan egitea (5), aukera-berdintasuneko eskabideen aldeko errelebutako lasterketarekin bateragarria dena;
- familia, politika eta lanbide arloetako adiskidetze-neurriak (6).

---

(5) Ikusi *La democracia paritaria en el Parlamento Europeo*, Emakumeen Europar Lobbya, 2001.

(6) Ikusi *Conciliación entre vida familiar y política* izeneko III. Biltzarra, M<sup>a</sup> Angeles Durán-ek koordinatu duena, Emakumearen Eskubideen aldeko Kongresu-Senatuko Batzorde Mistoa, 1999.

## EMAKUMEEN BOTEREA ETA ONGIZATEZKO ESTATUA

Herri zerbitzuen eta ongizatezko estatuaren konpentsazio-sistemen garapenak emakumeen boterearen orekari ondorengo hiru ikuspegietan laguntzen dio:

- a) langile gisa: pertsonontzako zerbitzuak emakumeen lan-iturririk handienak dira.
- b) haien zerbitzuen erabilerak arindutako etxeko langile gisa. Adin-txikikoen, gaixoen, adinekoen eta, oro har, menpekoen zaintzearen zerbitzu publikoen handitzeak lana eta familia bateratzea ez ezik, zaintzaileen eta zaintzen direnen bizitza-kalitatea hobetzea ere ahalbidetzen du.
- c) hiritar gisa: emakumeak gehiago eskatzen dutela eta herri zerbitzuei (bertoko langileak eta erabiltzaile arretatsuak izanik) dagozkien erabaki politikoetan, bai kudeatzaile bezala bai hautesle bezala jarduten dutenean, interes gehiago agertzen dutela frogatu delako.

---

# **ERABAKIAK HARTZEA BERDINTASUNAREN ALDEKO ERAKUNDEETAN**

---

**NADINE DU BOIS**

Hasiera batean, Luxenburgoko emakumeek duten partaidetza politikoaz mintzatzeko asmoa nuen. Baina, gai honi ekiteko, historia bat egin beharko nuke, eta bertoko hauteskunde-sistema, sistema politikoa, alderdi politikoak zein pentsaera azaldu.

Hortaz, aurkezpen "praktikoago" bati ekitea erabaki dut. Ana Coucello "Emakumeok eta erabakiak hartzea" izeneko sareak bildutako emaitza eta zenbakiez aritu zaizue. Zenbaki hauen atzean ezkututzen den ahalegina deskribatzen saiatuko naiz, informazioa eta zenbakizko datuak erabiltzea ahalbidetzen duen lana, hain zuzen.

## **"EMAKUMEOK ETA ERABAKIAK HARTZEA" IZENENKO ADITUEN EUROPAR SAREA**

Gaur, zuei sare honi buruz aritzea eskatu didate, hain zuzen ere, nire herrian, Luxenburgon, sareak diharduen lanari buruz, bere xedeari buruz, honelako sare batek duen garrantziari buruz, dakartzan buruhauste eta lorpenei buruz, eta gainerako herriek honi guztiari atera diezaioketen probetxuari buruz.

Zoritxarrez, duela gutxi hasi naiz sare honetan kide gisa, 1999 urtean hain zuzen. Ezin dizkizuet, beraz, sare honen lehenengo urratsak, hasierako ezartzea eta sortutako arazoak deskribatu.

Hala eta guztiz ere, sarean burutu dudan lanari esker, sarearen "eguneroko" lanaren, adituek datuak biltzeko dituzten arazoan, eta azken urteotan erdiespen zein aurrerapausoen ikuskera dezentea badudala uste dut.

Sare honek nire herrian duen garrantziaz aritu baino lehen, sare hau eta egiten duen zeregina aurkeztuko dizuet.

## SAREA

Sorreran, Europar Batasuneko eta Europako Inguru Ekonomikoko 18 herritako adituen taldeak osatzen du sarea. Talde hau FrauenComputerZentrum Berlin (FCZB) (Women's computer center in Berlin) izeneko zentroak koordinatzen du. Sareko beste partaide bat Center for American Woman and Politics delakoa da, Ameriketako Estatu Batuetako emakumeek duten partaidetza politikoari buruzko azterlanak egiten dituena.

## SAREAREN EGITEKOA

Egiteko hau politika, finantza zein banku-testuinguruan eta berriki, baita informazio eta komunikaziozko teknologia berrien sektorean ere, erabakiak hartzean emakumeok dugun ordezkari buruzko informazioa nahiz datu estatistikoak biltzean eta eguneratzean datza.

Datu hauei esker, ondorengo datu-basea egin da: «Europar datu-basea – Emakumeok eta erabakiak hartzea». Datu-base honetara munduko edozein tokitik sar daiteke Interneten bidez: <http://www.db-decision.de> (datuak ingelesez zein alemanez).

Datu-base honek Europar Batasuneko herrietan, Europako Inguru Ekonomikoko herri batzuetan (Norvegia, Islandia, Liechtenstein) eta Erdi Europako eta Ekialdeko Europako herri hautagaietan emakumeok dugun partaidetza politikoari buruzko informazioa eta zenbakiak biltzen ditu.

Egitasmo honek emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako EB-ko epe laburrerako 4.Ekintza-egitarauaren finantzaketa jaso zuen.

## DATU-BASEAREN EDUKIA

Ondorengoei buruzko informazioa jasotzen du:

- Nazio eta eskualdeko gobernu eta parlamentuetako emakume politikariei buruzko informazioa; parlamentuko komite eta batzordeei buruzko informazioa.
- Europako Parlamentuko, Europako Batzordeko eta Europako zenbait erakundetako emakumeei buruzko informazioa.
- Politikan diharduten emakumeei buruzko banakako informazioa (curriculumak, elkarrizketak, deskripzioak).
- Emakumeok finantza eta banku-sektorean dugun ordezkartzari buruzko informazioa.
- Zenbait herritako aukera-berdintasun politiken egoerari buruzko informazioa.

## LORTU NAHI DEN XEDEA

Honako datu-base hau edozein ikertzailek zein politikarik, komunikabideek eta gizarte laguntzaile orok tresna baliagarri eta ezinbesteko dute lan egiteko.

Datu-base honek politikan eraginkorra izateko argudioak, euskarri-zenbakiak zein pizgarriak ematen ditu, emakumeok erabakien hartzean dugun partaide-tza handiagoa izatearren. (Nire herriko adibide bat: Conseil National des Femmes Luxembourgeoises (CNFL) delakoak kanpaina bat atera du, ondorengo eslogana duena: «Imajina dezakezu gizonak biztanle-kopuru guztiaren %90a diren eta emakumeak %10a besterik ez diren mundua?». Udal batzordeen guztiaren %90a gizonak ziren).

Datu-base honi esker, erabakien hartzean oso emakume gutxi parte hartzen duela egiazta daiteke. Eta baita beste herrialde batzuen egoera aldera daiteke ere.

## NIRE (URTEKO) LANA ETA AURKITU DITUDAN ARAZOAK

- Emakumeok erabakien hartzean dugun partaidetzari buruzko informazioa, estatistikak bilatzea.
- Elkarrizketak egitea.

Oro har, esan genezake gauza jakina denari buruzko datuak, hau da, politikan, alderdi politikoetan diharduten emakumeei buruzko informazio gutzia (jendeak duen informazioa) biltzea zeregin erraz samarra izan dela.

Alderdi politikoek hein handi edo txiki batean lankidetzan jardun dute. Inolako zalantzarik gabe, beren alderdikideen kopuru zehatza niri jakinarazteko errezeloak izan dituzte. Alderdi gehienek ezin izan didate esan alderdikide kopuru osotik zenbat diren emakumeak, eta dagozkien emakumeen erakundeekin mintza nadin eskatu didate:

Alderdi politikoek idazkaritza, telefono-zenbakia eta erraz aurki daitezkeen funtzionarioak dituzte. Baina, emakumeen erakundeek ez ohi dute funtzionario bat, eta ia beti alderdikide batekin –eginkizun hau borondatez egiten duena– zuzenean mintzatu beharra egoten da.

Esan genezake, beraz, emakumeak, nolabait bereizirik dagoen erakunde batean sartuta daudela, eta honen ondorioz, baita emakumeen aldeko politika ere. Emakumeen erakundeak inoiz edo behin daude "profesionalizatuta", ez ohi dute idazkaritzarik ezta funtzionarioirik ere.

Alderdi politiko gehienek ez dutela beren osaketari eta organo erabakitzaileei buruzko estatistikarik ohartu naiz, eta ez da beti gauza erraza izaten burukideen zerrenda lortzea.

Emakume politikarien elkarrizketa eta deskripzioei dagokienez, Luxenburgo hain txikia izateak dakarren abantailari probetxu atera diot. Politikariak oso irekiak eta aurkitzeko errazak dira. Dagoen arazo bakarra gehiegi kargatutako agendak dituztela da, aldi berean familia, lanbidea eta politika elkartu behar baitituzte.

Zoritxarrez, finantza eta banku-arloak ez du hainbeste kooperatu. Sektore honen erabakien hartzean diharduten emakumeen zenbakiak biltzea eskatu didate, baina ezinezkoa gertatu zait daturik lortzea.

Sektore honetan oso emakume gutxi dagoela agertzeko beldur ote dira? Emakumeak honelako erabakien hartzean parte hartzea eskatzeko beldur ote dira? Zeuek erantzun galdera hauei.

## **ZER EKARRI DIO LAN HONEK NIRE HERRIARI?**

"Emakumeok eta erabakiak hartzea" adituen sarea egoteak emakumeen erakundeak eta emakume politikariak sentikor bihurtzea ahalbidetu du.

Zenbakizko datuak beharrezkoak direla ulertarazi du. Estatistikek oso botere garrantzitsua dute eta gauzak alda daitezten lagunarez dezakete. Zenbakiei esker, erabakien hartzean oso emakume gutxi esku hartzen duela argi eta garbi zein zehaztasunez ager daiteke.

Luxenburgori dagokionez, honelako sarea egoteak eta egiten duen zereginak pixkanaka ikerketa egoteko bidea eman du, batez ere politika arloan.

Luxenburgoko emakumeek duten partaidetza politikoari buruzko ikerketa berriki gertatutako gertakaria da.

Lehenengo ikerketak, 1998koa denak, emakumeen partaidetza politikoa ikertzen du, 1919an botoa emateko eskubidea lortu zenetik, hain zuzen. 1999an (hauteskunderi dagokienez, oso urte garrantzitsua, aldi berean parlamenturako, Europarako eta udaletarako hauteskundeak egon baitziren), Conseil National des Femmes Luxembourgeoises eta Ministère de la Promotion féminine direlakoek Behatoki bat sortu zuten eta, aldi berean, azterketarako institutu batek emakumeen hauteskunde-jokabideari buruzko azterlan bat egitea bere gain hartu zuen.

Ez dut hemen behatoki honen lanetan sakonduko, baina utz biezadazue azal diezazuedan nire ustez behatoki honen lanen erdiespenik handiena izan dena:

Behatokiak parlamenturako eta Europarako hauteskundeetarako hautagai-zerrendak aurkeztu eta hurrengo egunean egin zuen bere lehenengo prentsaurrekoa. Komunikabideek emaitzak jaso zituzten, hobeto ala okerrago, garrantzia eman ez bazieten ere. Baina hauteskundeak izan eta hurrengo egunean, telefonoak etengabe jo zuen. Kazetari guztiek, gizonek zein emakumeek, jakin nahi zuten zenbat emakume hautatu ziren eta zein alderditakoak ziren. Eta, datuak berehala aztertzeko betarik ez zegoenez, kazetariak zenbat emakume hautatu ziren beren kabuz arakutzen saiatu ziren. Udaletarako hauteskundeetarako hautagai-zerrendak aurkeztu eta hurrengo egunean, kazetariak erreflexu bera izan zuten. Prentsako artikulua guztiak emakumez eta emaitzez mintzatu ziren.

Alderdi politiko bakar bat ere ez zen ausartu emakumerik gabeko hautagai-zerrendarik aurkeztera. Eta emakume gutxien zuten alderdi politikoei azalpenak ematen eta aitzakiak jartzen hasi ziren.

## ONDORIOAK

Honelako sareak «public awareness» sortzea eta jendea dauden gabeziakiko sentikor bihurtzea ahalbidetzen du. Informazioa duen horrek botere itzela dauka.

Luxenburgori dagokionez, emakumeak politikan duten partaidetzari buruzko zenbakizko datuak egoteak emakumeak politikan duten zereginari buruzko eztabaidari bide ematea ahalbidetu zuen. Honela, Diputatuen ganbaran eztabaida bat sortu zen. Alderdi politiko guztiek emakume (alderdi politiko bat izan ezik) eta kuotez mintzatzeari ekin zioten. Alderdi politiko luxenburgotar handienak borondatezko kuotak (2/3 – 1/3) sartu zituen bere hautagai-zerrendetarako eta alderdiko organo guztietarako.

Niri dagokidanez, esan nezake honelako sarea oso baliagarria gertatzen zaidala nire egiteko profesionalean. Batzuetan errazagoa izaten da nork bere burua sarekidetzat aurkeztea norberaren herriko informazioa, pribilegiatua ala ez, lortzearen.



---

**MAHAI-INGURUA:  
ITXURAZKO BERDINTASUNAREN  
AZPIAN BERDINTASUNIK EZ**

---

**BOTEREA HEZKUNTZAKO  
CURRICULUM EZKUTUAN**

**ANA VARGAS MARTÍNEZ andrea**  
DUODA Zentroko historialaria eta ikertzailea.  
Bartzelonako Unibertsitatea

**EMAKUMEAK ZIENTZIETAN ETA  
EZAUPIDEETAN IKUSTEZINAK**

**TERESA NUÑO ANGÓS andrea**  
E.H.U.ko Zientzia Kimikoetako doktorea. Matematika  
eta Zientzia Esperimentalen Didaktika Saileko  
Unibertsitate Eskolako katedraduna

**KRISTALEZKO SABAIA EKONOMIAN**

**MYRTHA CASANOVA andrea(\*)**  
Dibertsitatea Kudeatzeko Europako Institutuko  
lehendakaria eta Emakumeen Zuzendaritza Garapenerako  
Europako Sarearen lehendakari-ohia. (EWMD)

**INMA PARRA andrea(\*)**  
Dibertsitatea Kudeatzeko Europako Institutuko kidea

- (\*) Myrtha CASANOVA: “Kristalezko sabaia ekonomian” izeneko ponentziaren egilea.
- (\*) Inma PARRA: Aipatutako ponentziaren aurkezlea.

---

# **BOTEREA HEZKUNTZAKO CURRICULUM EZKUTUAN**

---

**ANA VARGAS MARTÍNEZ**

Esan genezake, ohiko aburua baita, emakumeen mugimenduak eta borroka feministak izan direla gure garaiko gertakaririk esanguratsuenetarikoak, kultura patriarkalak emakumeei emandako rolari aparteko aldaketak ekarri dizkiotenak. Azken hamarkadetan zehar, emakumeak gizarteko alde askotan sartu dira, eta gaur egun, agerikoa da gizarteko arlo guztietan egon badaudela.

Gertaera honek duen garrantzia kuantitatiboki ez ezik kualitatiboki ere kontuan hartu beharra dago. Emakumezkoek agerpen gehiago izateak aldaketa sakonak sortu ditu eta sortzen dihardu bizitzaren alor guztietan: familian, lanean, politikan, ekonomian, harremanetan, komunikatzeko moduetan, hezkuntzan, heziketan; aldaketa adierazgarriak gizartearen eta ikurren alorrean, azken finean. Egiaz, gauzak aldatu egin dira, eta oraindik zenbait arazo –emakumezkoen askatasuna handitzeko zereginak aurrera dirau– dagoela badakit ere, aipatu aldaketak hutsal zein baliogabe bilaka ez daitezen, hauexek erregistratu, interpretatu eta izendatzea garrantzi handikoa dela uste dut.

Gaur egun, emakumeok –behintzat gure inguruneari dagokionez– gure amak eta amamak baino burujabeagoak gara eta hautatzerakoan haiek baino aukera gehiago dugu. Horra hor adibide bat besterik ez: heziketari so egiten badiogu, azken hogeitortean izan den hezkuntza eskuratzeko aukerak emakumeoi kontzientzian haztea, menpekotasunetik irteteko aukera eta gure bizitzetako gero eta protagonismo, burujabetasun eta askatasun handiagoz aurre egiteko kultur tresnak geureganatzea ekarri dizkigula ikus dezakegu.

Azken hamarkadetan –hezkuntzaz ari naiz oraindik–, hezkuntza maila guztietako –hau da, lehen mailako eskolatik unibertsitatera– ikasgelak emakumez bete dira, bai irakaslez bai ikaslez. Emakumeen kopuruaren handitzea bera garrantzitsua da, baina are gehiago –hasieran esan bezala–, haien kalitateari dagokionez. Hezkuntzan emakumeen kopurua handitzearekin batera, hezkuntza beraren eta hezkuntza-instituzioaren ikuspegi berria dator. Ikuspegi berri honek hezkuntza-sistemaren izaera sasineutroa –neska zein mutilentzako balio nahi duena, baina benetan, gizonezkoek gizonezkoentzat eginikoa– ezagutzera eman du, eta bereizkeria sexista eskolako sistemaren barruan zegoela eta sistema honek bereizkeria igorri zein sendotzen zuela aditzera eman du. Bereizkeria hau esplizituki adierazten da (ageriko curriculumean edo "ofizialean"), baina baita inplizituki ere –gero ikusiko dugun legez– ezkutuko curriculumaren deritzonaren bitartez. Honekin guztiarekin batera, bereizkeria-egoera hau (desberdintasun-arazoa, hots, gizarte bidegabekeria-arazoa, dakarrena) aldatzeko modurik egokienak bilatzeko ahaleginak egin dira. Horretarako, hezkuntza-eremua aldatzeko estrategiak eta proiektuak egin dira, arlo hau emakumezkoen aldekoa zein emakumeentzako zuzenago eta egokiago izan dadin. Ikus ditzagun jarraian, prozesu honen alderdi batzuk.

## EZKUTUKOA IKUSGAI BIHURTZEA

Gutxi gorabehera 80ko hamarkadaren hasieran, hezkuntza-sistemako sexismoari buruzko ikerketa teoriko eta enpirikoei ekin zitzairen. Ikerlan hauek, hasiera batean, feminismitik egin ziren, hain zuzen ere, emakume-irakasleek edo irakaskuntzarekin zerikusia zuten emakumeek egin zituzten. Ikerketa hauen emaitzei esker, lehen ezagutzen ez zena, hau da, ikasgeletan zeuden eta hezkuntza-guneak, harremanak, material didaktikoak, olgetarako jarduerak eta edozein ikasketa-mailetarako antolaketa zeharkatzen zituzten arau-mordo diskriminatzaileak zirautela argi eta garbi ikus zitekeen. Esplizituki ez ezik inplizituki –eta beraz, ikusteko zailago– ere dauden arauak, hain zuzen.

Ageriko bereizkeria da ageriko curriculumaren delakoan edo "ofizialean" adierazten dena. Ageriko curriculumaren hezkuntza-sistemak ezarritako zein onartutako kultur nozioez ari da, hau da, eskola irakasten eta, nolabait ebaluatzen ahalegintzen den nozioez. Beste era batera esanda, ageriko curriculumaren eduki

akademikoak, neska-mutilek ikasi beharreko edukiak, eta eskolako antolamenduaren ageriko arautegia da. Ageriko curriculum honek dakarren sexubereizkeria nabaria idatzizko materialetan ikus daiteke argi eta garbi, esate baterako, ikasteko liburuetan eta material didaktikoetan; hauen edukiak aztertu dira, hots, igortzen duten mezua zientifikoa, eta baita haien irudiak eta hizkuntza. Hau guztia aski ezaguna dela uste dut, eta beste alde batetik, gaur egun badago honi buruzko argitalpen asko: liburuak, liburuxkak, bideoak; beraz, ez naiz gai honetan luzatuko.

Bereizkeria inplizituari dagokionez, ezkutuko curriculum bezala ezagutu ohi duguna dela esan dezakegu. Curriculum hau, aurrekoa ez bezala, ez da argi eta garbi agertzen, eta hezkuntza-eremuan neska-mutilak sozializatzeko prozesu horretan dauden baina agerian agertzen ez diren osagaiez ari da. Hala eta guztiz ere, honek garrantzia handia du ikasteko prozesuan, balore eta sinesmenen igorpenean eta irakasleak, bai gizonezkoak bai emakumezkoak, beti erabat jakitun ez dauden esanahien eraketan funtsezko zeregina baitu. Horregatik, jaramon handia egin behar zaio, ezkutuko curriculumaren bidez, ikurren alorra ezarri zein errepikatzen duten balore, estereotipo eta portaerazko jarraibideen sistema bat sendotu eta errepikatzen baita. Patriarkala den ordena, duela mende asko bizi garen ordena.

Ordena honen baloreak indartu zein irakasten duen ezkutuko curriculumaren eragina eta ondorea, beraz, uste baino handiagoa da, nortasunaren eraketan, neska-mutilen autobalorazioan eta haiek hartzen dituzten jokabide eta hautabideetan –esaterako ikasketak hautatzea– funtsezko zeregina baitu. Hala ere, aipatu beharra dago hezkuntza-instituzioa ez dela hau guztiaren erantzule bakarra, familiak –neska-mutilak sozializatzeko ohiko lehenengo tokia–, komunikabideek bezala, baitu zeregin garrantzitsua genero-estereotipoen hedapenean eta sendotzean. Baina –eta berriro ere esaten dut– estereotipoak hedatzearen erantzule bakarra hezkuntza-sistema ez bada ere, inolako zalan-tzarik gabe bera da eragile sozializatzaile nagusienetakoa, eta beraz, neska-mutilek nortasuna, haien buruen irudia, gainerakoengana duten eraginaren irudia eta gainerakoek haiengandik espero dutenaren irudia berenganatzen duten erakunde nagusienetakoa. Hortaz, ezkutuko curriculumaren kontuari berriro ekiten diodalarik, zenbait balore hedatzen dituen curriculum hau nola eta non azaltzen den jakitea beharrezkoa da hura aldatu ahal izateko; nire ustez, curriculum hau badagoela aipatzea bera garrantzitsua izan da, zeren

hura aipatzean lehen ezkutuan zegoena, "ohikotzat" jotzen zena, ikusgai bihurtu baitu.

Hala eta guztiz ere, jakin badakigu neska-mutilen jokabide zein jarrera asko ez direla berezkoak, kulturaren bidez irakatsiak baino.

Ezkutuko curriculumak delako kontzeptua hezkuntzaren soziologian sortu zen, eta Philip W. Jacksonek erabili zuen lehen aldiz, Ameriketako Estatu Batuetan 70ko hamarkadaren erdialdean argitaratu zen Ikasgeletako egunero-ko bizitza izeneko lanean, hain zuzen. Idazle honek ikasgeletan irakasten den ageriko ikasketarekin batera beste ikasketa bat dagoela dio, hain agerikoa ez dena, egitekotzat, laburki esanda, ikasleen artean, gizarte industrializatu eta kapitalista baten lan egin ahal izateko –gizarte horretan ezartzen diren arauak onartu eta betetzen– prestatzen dituen ohitura batzuk garatzea duena. Baina ez Philip W. Jacksonek, ezta S. Bowles eta H. Gintis bezalako ondorengo idazleek ere (klaseetan antolatutako gizarte bat mantentzeko ezkutuko curriculumak daukan garrantzi politikoa eta dakarren boterea aurreko idazleak baino gehiago antzematen dutenak), ez dute kontuan hartzen emakumeen aurkako ageriko curriculum diskriminatzailea dagoenik, ezta ordena sinboliko patriarkalaren baloreak sendotu, hedatu eta iraunarazten duen ezkutuko curriculumak (1) ere dagoenik.

Emakumezkoaren begirada izango da egite hau agerian uzten duena; hemen ari garen eremuari buruzko adibideak Nancy Rae King idazleak 1976an eta Mary Willes idazleak 1981ean egindako ikerlanak dira. Gure esparru geografikoari dagokionez, ezkutuko curriculumari buruzko lehenengotariko ikerlana Katalunian egin zen, 80ko hamarkadaren bukaeran, Marina Subirats eta Cristina Brullet izeneko idazleen eskutik (2).

---

(1) Jurgo TORRES SANTOMÉ, *El curriculum oculto*. Madril, Morata, 1991; batez ere., 60-61, 63, 75-76.orr.

(2) Ikerketa hau *Rosa y Azul. La transmisión de los géneros en la escuela mixta* -Madril, Emakumearen Institutua, 1988- argitalpenean jasota dago. Ikerketa honen alde bat, hain zuzen ere, ikasgelako elkarrekintzari buruzkoa, ondorengo lanean ere ikus daiteke: Cristina BRULLET I TENA, "Desigualtats per raó de sexe en el sistema educatiu: una investigació empírica realitzada a Catalunya", *Papers: Revista de Sociología*, 30 (1988), 119-137.orr.

Ezkutuko curriculuma "zuzenean" gertatzen diren harremanetan gertatu eta adierazten da. Hau da, ikasgelan irakasle eta ikasleen artean egunero gertatzen den elkarrekintzan. Horregatik, instituzionalizatuta eta inolako agiritan idatzita ez dagoen curriculum hau ageriko egiteko, ikerketei ikasgela barruko portaera behatuz ekin zaie. Honela, beste gauza batzuen artean, irakasleen neska-mutilekiko hitzezko elkarrekintzak, neska-mutilenganako arreta-maila zein den eta nesken eta zeintzuk diren mutilen arteko trataeraren desberdintasunak aztertzen dira.

Oro har, ikerketa hauen emaitzek neskak eta mutilak modu ezberdinean baloratzen direla, mutilei jaramon handiagoa egiten zaiela eta mutilak, eta gizonezkoarekin zerikusia duen guztia, gehiago baloratzen direla adierazten dute. Neska eta mutilentzako egokitzat eta desegokitzat jotzen denaren balorazio bereizgarriak, batzuetan oso modu zorrotzean gertatzen denak, gizarteko eta kulturako estereotipoak –nortasuna sortzeko hain garrantzitsuak direnak– sendotu eta iraunarazten ditu. Baina ez da desberdintasuna bestelakotasuna dakarrena, hezkuntza-sisteman emakumezkoari eta gizonezkoari ematen zaien balore eta agerpen desberdina baizik. Ikus ditzagun neska eta mutilen jokabide desberdinen adibide batzuk, eta baita jokabide hauek nola baloratzen diren ere.

Oro har, neskek mutilek baino gutxiago esku hartzen dute klasean, zuzenean galdetzen ez bazaie, hau da, irakasleak haiek aipatu edo haiekin zuzenean hitz egiten ez badu. Mutilek neskek baino gehiago esku hartzeaz gain, neskek baino askoz denbora gehiago ematen dute klasean hitz egiten, eta askotan nesken gainetik edo ezarritako arauak bete gabe. Jokabide hau, neskak izatez geldoagoak direla, ekimen gutxiago dutela bezala interpretatu da, benetan den bezala interpretatu beharrean: mutilei jaramon gehiago egiten zaiela eta haien jokabideak gehiago baloratzen direla. Beste alde batetik, neskak dira, mutilak ez bezala, irakaslearengana gehiagotan jotzen dutenak, ikasten ari direnari buruzko galderak egiteko edo azalpenak eskatzeko, nesken jokabide hau irakasleek gutxiesten dutelarik, sarritan uste baitute neskak "nekarriak" direla. Neskek mutilek baino gehiago eskatzen dute irakasleen esku-hartzea edo arreta egoera gatazkatsuetan, eta egoera hau nesken izaera dudatsuago, ahulagoa eta menpekoago izatearen ondorio bezala interpretatzen da, eta batzuetan "kexatitzat" jotzen dira. Bestalde, neskek pertsonetikiko harremanak izateko mutilek baino gaitasun gehiago dute, eta mutilak baino sentikorragoak eta hunkiberagoak dira. Hala eta guztiz ere, Marina Subirats-ek eta Cristina

Brullet-ek dioten bezala, "Nagusi den nortasuna besterik ez da baloratzen... "bestearekiko" izatea adierazten duen jarrera, gabezia, esanekotasun eta ahultasuntzat jotzen da".

Irakasleek neska-mutilekin duten hitzezko elkarrekintzari dagokionez –lehen esan dudan bezala, estereotipoak nola irakasten diren aztertzeko kontuan hartu den kontuetako bat–, agertzen den ezaugarri orokor eta iraunkorrena, genero maskulinoa (esaterako, gaztelaniaz haurrak adierazteko niños hitza erabiltzea) generiko gisa –hau da, bi sexuen ordezkari gisa– erabiltzen, genero femeninoa ezeztatu eta ezkututzen dela.

Neska eta mutilarekiko edota neskaitila eta mutikoarekiko erabiltzen den hizkuntzaren bitartez erabilpen sexistarik gabe, eta batez ere, neskak aipatuz –hau da, femeninoan aipatuz– jardutea da ezkutuko curriculuma ez ezik, agerikoa ere aldatzeko modua –behar bada, modurik esanguratsuenetakoa–.

Hizkuntzaren bidez geureganatzen ditugu ezagutza berriak, baina gainera, hizkuntza bat ikasten dugunean, gure eskarmentua interpretatzeko balore eta jokabideak eskuratzen ditugu eta, aldi berean, gure nortasuna sortzen dugu: emakumezkoarena edo gizonezkoarena. Hizkuntza, bada, errealitatearen taxutzea eta pertsonen subjektibotasuna eratzen diren toki pribilegiatua da. Eskuarki, gure munduaren ikuskera eta egiten ditugun buruko irudikapenak hizkuntzatik eratu eta hizkuntzaren menpekoak dira, hizkuntza baita bizi garen errealitate soziala sinbolizatu eta irudikatzeko funtsezko baliabidea. Adrienne Richek adierazten duenez, "hizkuntza eta berak dakarren guztia –hausnarketa, kritika, kontzeptualizazioa, eratzea– arma guztiahalduna da" (3). Honako hau ez da, beraz, garrantzirik gabeko zera, oinarrizko kontua baizik; zeren eta, "hizkuntza bera mintzatzen jarraitzen badugu, historia bera errepikatuko dugu". Dakigun bezala, emakumeen aldekoa izan ez den historia. Zentzuzkoa da, hortaz, hizkuntzari arreta berezia orain jar dakion eta lehen jar zekion, batez ere, hezkuntza-arloan, arlo honetan honi dagokionez egin diren aldaketak ikusgai baitaude.

---

3) Adrienne RICH, *Sobre mentiras, secretos y silencios*. Bartzelona, Icaria, 1983.



## ALDATUZ DOAN ERREALITATEA INTERPRETATZEA

Azken urteotan, sexista ez den hezkuntzari eta baterako hezkuntzari arlo eta testuinguru desberdinetatik gero eta modu sistematikoago baten bidez ekin zaie. Ezinezkoa da egindako lan guztiak hemen aipatzea –lehen haietako batzuk aipatu ditut–, baina ekimen aipagarrien artean, irakasle-emakumeen taldeen lanari esker bultzatu direnak nabarmentzen ditugu, irakaskuntzan izandako praktikatik abiatuz, hezkuntzan sartu beharreko aldaketak egiteko jarraitibideak jarri baitituzte. Era berean aipatzekoak dira sindikatueta emakumeek eta ekintza positiboko politikak, emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunari buruzko egitasmoak, irakasleak sexista ez den hezkuntzan sentikor bihurtu eta trebatzeko egitarauak eta honi buruzko argitalpenak bultzatu dituzten Berdintasun Erakundeek egindakoak.

Agerikoa da gaur egun gauzak aldatu egin direla: hezkuntzan ez dago bereizkeria nabarmenik, ezta irakaskuntzako modu guztietan sartzeko arazorik ere; baina oraindik dira arazo batzuk, egungo baldintza eta datuen arabera ekin eta landu beharrekoak. Beste era batera esanda, beharrezkoa da aldatuz doan errealitatea interpretatzea.

Horra hor arazorik garrantzitsuenak, aipatuena, gizartean eragin gehien dutenak: eskola-porrota, eskolan gazteen artean gero eta gehiago dagoen bortxakeria, prestakuntza eta lanaren arteko harreman urria, etab. Aurreko guztia egia eta arazo larria bada ere, gutxien esaten dena (ia "ezkutuko curriculum" dena) da aurreko arazoek mutilengan eta neskenengan eragin berdina ez dutela. Egia esan, emakumezkoena baino gizonzkoena den arazo bati buruz mintzatzen ari gara, batez ere aipatu ditudan lehenengo bi arazoei dagokienez: eskola-porrota eta bortxakeria, arazo orokorra izango balitz bezala aurkezten bada ere.

Hala eta guztiz ere, jakin badakigu –datuek honela agertzen baitute– gaur egun, neskek mutilek baino gutxiagotan uzten diotela ikasteari; mutilek baino gehiago ikasten dutela eta emaitza akademiko hobekoak dituztela. Adibide gisa: 1998/99 ikasturtean, UKOn matrikulatuta zeuden ikasleetatik, %51,94 emakumeak ziren eta %48,06 gizonak; eta emaitza akademikoei dagokienez: gairitu zutenetik emakumeak %55,56 ziren eta gizonak %44,44 (4).

---

(4) Emakumearen Institutuak egindako informazioaren datuak jasotzen ditut. Informazio hau Espainiako Irakaskuntzaren Estatistikaren datuetatik abiatuz burutu da. 1998/99. MEC.

Eskola-porrota, beraz, emakumezkoena baino, gizonezkoena da: neskek mutilek baino emaitza akademiko hobekoak izateaz gain, neskak denbora gehiago ematen dute eskolan, eta oro har, ematen duten denbora hori hobeko gertatzen zaie neskei mutilei baino (5).

Horra hor aipatu beharreko beste zera bat: neskek eta emakume gazteek eskolan protagonismo handiagoa izateak –emakumeek gizartean dutenaren isla dena–, mutilei egonezina eta krisia ekarri dizkie, nabaritu baitute ikasgeletan protagonismoa galdu dutela. Egonezin hau, egia esan, nagusien ingurunean dagoen maskulinitasunaren krisiari lotzen zaio –badago honi buruzko hainbat lan–, eta batez ere nabaria da hezkuntza-sisteman, eta hau dela eta, behin baino gehiagotan ikasketen aurrean agertzen duten interesik ezaz gain, jokabide eta jarrera bortitzak agertzen direlarik (6).

Gure begien aurrean, bada, arazo batzuk –berriak ez direnak– sortzen dira, nire ustez, egun dagoen berdintasun-mailari –handiagoa ala txikiagoa– baino, gaur egun sexu-desberdintasunak duen zentzu sozial eta sinbolikoari lotuta daudenak.

Gure buruei, alde batetik, zera galdegin diezaiekegu: zein da eskolan proposatzen ari den berdintasuna? eta baita: zein zentzu eta balio du desberdintasunak? Emakume idazle askorentzat eta baita gizon idazle askorentzat ere, eskolan lortu nahi den berdintasuna neskak eta mutilak modu berean baloratzea baino, neskak gizonezkoekin parekatzea proposatzea da. Honela, esaterako, ezkutuko curriculumari buruz mintzatu naizenean, mutilak eta gizonezkoen guztia gehiago baloratzen zela esan dut. Baina, arazoa ez da, nire ustez, mutilak eta neskak modu ezberdin baten baloratzen direla, batzuen eta beste en jokabide, jarrera, nahi, behar eta eskarmentuei ematen zaien balio desberdina baizik. Era berean, ikusi dugu oro har irakasleek jaramon gehiago egiten dietela mutilei, eta hau gertatzen da balio gehiago ematen zaielako.

---

(5) Clara JOURDAN, “Las relaciones en la escuela”, en *Educación en relación*. Cuadernos Educación no Sexista izeneko saila., 6.zkia. Madril, Emakumearen Institutua 2000, 9-25; 24.orr.

(6) Marina SUBIRATS, “Género y escuela”, en Carlos LOMAS (Comp.), *¿Iguales o diferentes? Género, diferencia sexual, lenguaje y educación*. Bartzelona, Paidós, 1999, 19-31.; 28.orr. Argitalpen berean gai honi buruzko bestelako artikulak ikus daitezke.

Hala ere gertatzen den hau, gaur interpretatu behar da, edo behintzat, kontuan hartu behar da, mutilei jaramon gehiago egiten zaiela ikasgelaren barruan arazo gehien dituztenak direlako: diziplina-arazoak, ikasketen aurrean interesik eza agertzea, eraso-jarrerak, etab. eta ez dut uste, noski, neskak jokabide honekin parekatu behar direnik.

Beste datu bat: neskek eta nerabeek mutilek baino gehiago galdetzen diete irakasleei eta hori gertatzen da, interpretatu den bezala, dudatsuagoak direlako, burujabetasun gutxiago dutelako eta gainerakoen beharra dutelako, baina, zergatik ez da interpretatzen jokabide desberdin hau, jakin eta ikasteko interes gehiago dutelako gertatzen dela, eta beraz, zergatik ez da jokabide hau zera txarra baino, zera on bezala baloratzen? Jakin eta ikasteko interes hau nagusiak direnean dirauen interesa dela dakigu (ez da kasualitatez gertatzen gizonak baino emakume gehiago nagusientzako eskoletara zein prestakuntza-ikastaroetara joatea,), eta lan bat aurkitzeko edo lan-egoera hobetzeko baino, ikasteko atseginatik egiten dute (7).

Bestaldetik, batzuek eta besteek aukeratzen dituzten ikasgaiei dagokienez (eta hemen, garrantzitsua da adieraztea azken urteotan, neskek zientzia eta teknologiarekin zerikusia duten lanbide eta karrerak ikas dituzten egitarau asko garatu dela), zera ikusten dugu: adibide gisa, Bigarren Mailako Hezkuntzan neskek oso gutxitan aukeratzen dituzte zientzia eta teknologiarekin zerikusia duten ikasgaiak ( %36,66 UKOn 94/95 ikasturtean), eta gauza bera gertatzen da gizonezkoenak izan ohi diren lanbideetan. Honela, Lanbide Heziketan emakumeak Modan, Jantzigintzan, Ileapaintzean, Estetikan eta Osasunean biltzen dira. Automobilgintzan, Elektronikan, Metalean eta antzeko lanbideetan, oso neska gutxi egoten da. Unibertsitateari dagokionez, emakumeak gehiengo dira Osasun Zientziak (%67,28), Humanitateak (%66,89) eta Zientzia Sozial eta Juridikoak (%57,45) bezalako karreretan. Aitzitik, oso emakume gutxi dago karrera teknikoetan (%22,66) eta Zientzia Esperimetaletan (%48,55) (8).

---

(7) Anna Maria PIUSSI, "Más allá de la igualdad: apoyarse en el deseo, en el partir de sí y en la práctica de las relaciones en la educación", en Carlos LOMAS (Comp.), *Op. cit.*, 43-67; 58.orr.

(8) *Educar en Relación, Op. cit.*

Esan genezake joera hauek ez direla gertatzen nesken gaitasun gabeziagatik, emakumeei eta gizonei tradizioz dagokienari buruzko aurreiritzi, estereotipo eta itxaropenengatik baino (ezkutuko curriculumaren bidez irakatsi eta sendotzen dena); baina egia da gaur egun, arazo hau interpreta daitekeela neskek zenbait guneetan parte ez hartzea erabakitzen duten ondorio bezala. Beraz, behar bada, neskak baino, gune hauek aldatu beharko dira. Neska ikasleek zientzia eta teknologia ikasketak ikas ditzaten egitarau asko garatu bada ere, komentatu dudan egoera gertatzen bada, arazoa ez da aukera-berdintasun handiagoa egotea, ikasgaiak berak ikasleei, haien kezka eta esperientziei hurbiltzea baino. Eta horretarako, aldatu behar den zera ikasgai hauen eta gune hauen izaera bera da (9).

90ko hamarkadaren erdialdera, Lanaren Nazioarteko Erakundeak adierazi zuenez, emakumeentzako aukera-berdintasuna 475 urte barru besterik ez da lortuko (10); oso mezu etsigarria da hau eta, gainera, ez ditu orain arte gertatutako aldaketak identifikatzen. Honen aurrean, nahiago dut Simone Weillen hitzetan pentsatzea: "Ez dugu pentsatu behar etorkizunak aseko gaituen ondarena edukiko duenik. Etorkizuna eta orainaldia substantzia berberaz eginak dira" (11).

Gaur egungo arazoa –Anna Maria Piussiren hitzetan– "ez da gizartea edo hezkuntza sistema emakumeekin, berdintasunari dagokionez, zuzenago izan daitezkeen ala ez, gizartea eta eskolak sexu bietarako diren baino, hau da, bi sexuak, eta ez bat bakarra, daudela kontuan hartuz eginikoak diren". Bakarrena dena bizi garen mundua delako, eta helburua ez da batzuen eta besteen artean banatzea, potentzia handiek egiten duten modura, dena berdintasunean partekatzea baino.

---

(9) Ibid.

(10) Aipua: Ana MAÑERU, Concepción JARAMILLO eta María COBETAS, "La diferencia sexual en la educación, las políticas de igualdad y los temas transversales", *Revista de Educación*, 309.zkia (1996), 127-150; 131. orr.

(11) Simone WEILL, *Pensamientos desordenados*. Madril, Trotta, 1995, 15.orr.

---

# EMAKUMEAK ZIENTZIETAN ETA EZAUPIDEETAN IKUSTEZINAK

---

TERESA NUÑO ANGÓS

## SARRERA

Azken hamarkadetan aldaketa nabarmenak gertatu dira emakumeen gizarte egoeran, bereziki mendebaldean. Egun zientziak gizartean bizi duen gizarte egoerari azaletik begiratuz gero, une honetan emakumeen eta zientziaren arteko harremanetan bereizkeriarik ez dagoela ondoriozta dezakegu; alegia, diskriminazio hori beste garai batzuetako kontua izan dela. Emakumeak alfabetatuak izateak edo zientzia hezkuntza jasotzeak, ia Fakultate eta Unibertsitate Eskola guztietako unibertsitate karreretako ikasle gehienak emakumezkoak izateak –Ingeniaritzako gehienetan salbu– eta ikerketa taldeetan emakumeen presentzia nabaria izateak zientzia esperimentalen esparruan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko parekatze egoera batera hurbiltzen ari garen sentsazioa eman dezakete.

Errealitatea sakonago aztertuz gero, ordea, zientzia jardueretan emakumeen presentzia zenbakitan handitu den arren, oraindik ere konpondu gabeko zenbait arazo gelditzen direla ohartzen gara. Gainera, egoera ez dago batere finkatuta, bidean ebaluatu ezinezko aurrerapauso eta atzera egiteak gertatzen direla. Oro har, esan genezake arazoa ez dela jada emakumeak zientzia hezkuntzara eta ikerketara iristea, baizik eta haietan duten lekua, erabaki guneetan duten posizioa, zeintzuk diren beren lanbide ibilbideak eta nolako efektuak eragiten dituen bereizkeriak –egun, duela zenbait hamarkadatan baino zoliagoa– beren autokontzeptuan eta arrakasta lortzeko dituzten aukeretan.

Lege berdintasuna bai, baina benetako berdintasuna ez dela oraindik lortu esan genezake. Parekatzea lortzeko, are ahalegin gehiago egin behar dira.

Zientzia esparruari dagokionez, XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran emakumeek borroka handia egin behar izan zuten, inoiz baino borroka handiagoa, hain zuzen ere, zientziara (eguneko kontzeptuan) iritsi ahal izateko; baina zientzian ordura arte izan zuten mendetasunak eta historiarentzat ikusezinak izateak beren balizko lorpenei mugak jartzen zizkien. Horrekin guztiarekin batera, zientzia jarduera garai hartantxe profesionalizatu zen. Sandra Harding-ek (1996) adierazten duenez, garai hartan emakumeek goi mailako ikasketetara heltzea lortu zuten; horrek ordura arte soilik gizonetzkoen kontua zen zientzia hezkuntzara heltzeko, eta, ondorioz, zientzia esparruan lana lortzeko bide eman zien. Haatik, laneratzeko eta ospea lortzeko aukerak ez ziren sekula gizonetzkoenen pare egon, zientzian eta oro har gizartean zeuden genero estereotipoek ez baitzuten horretarako abagunerik ematen.

Beraz, behin zientzia hezkuntzara berdintasun baldintzetan heltzea lortu denean, arazoa gizonetzkoek eta emakumezkoek ikerketa zientifiko-teknologikoan betetzen dituzten bestelako posizioetan gertatzen dela ohartzen gara, baita zientzia politikak erabaki eta lantzeko guneetan ere.

Egoera horri dagokionez, hainbat hausnarketa egin izan dira soziologiaren esparrutik, beste faktore batzuen artean, aipatzen dituzte "kristalezko sabaia", "emakumeek arrakastari dioten beldurra" eta, jakina, esparru publikoan, eta bereziki esparru zientifiko-teknologikoan, aurre egitea galarazten dieten kanpo oztopoak daudela.

Sandra Acker-ek (1995) generoa eta hezkuntzari buruzko esparru anglosaxoiko bibliografiaz egin duen azterketa interesgarrian, aipatzen du oro har hezkuntza sisteman, eta bereziki unibertsitatean azaltzen diren genero desberdintasunak gizartean bezalaxe islatzen direla, eta, ondorioz, emakumeen barne oztopoak ez ezik, hezkuntza eta zientzia praktika sexisten eta beren ingurune sozial eta ekonomikoen arteko harremanak ere aztertu behar direla. Geure aldetik, barne eta kanpo oztopoen arteko elkarreraginak ere ikertu behar direla erantsiko genuke (Álvarez Lires et al. 2001b).

Poal-ek(1993), bestalde, emakumeen gizarteratze bereizgarria dela-eta emakume gehienek dituzten nolakotasunei balioa ematea proposatzen du, betida-

nik gabeziatzen jo badira ere, lan mundura heltzeko baliagarri gerta dakizkiekeenak. Beste hainbat nolakotasunen artean, besteen ongizatearekiko kezka, aldi berean zenbait jardueratan aritzeko gaitasuna eta porrotarekiko tolerantzia aipatzen ditu.

Laburbildurik, hipotesi bat egin genezake: zientziaren eta teknologiaren joera maskulinoek, emakumeen gizarteratze bereizgarriak eta gizaratean zein zientzia elkarrekin dauden aurreiritziek emakumeek esparru horretan ikasketak, karrerak zein lanbideak hautatzeko orduan eragina izaten dute, baita beren ibilbide profesionalean eta erantzukizuneko postuetara heltzean ere (Álvarez Lires et al. 2001b).

## **EZIN IKUSIZKO PRESENTZIA ZIENTZIA EZAGUTZAREN HISTORIAN**

Zientzia modernoa XVII. eta XVIII. mendeetan zehar eraiki zen maskulinitasun eredu batean oinarrituta, eta eredu hori osatzen lagundu zuen genero ideologiaren arabera aldatzen joan zen. Historikoki, kultura balioko ahalegin intelektual gehienak gizonezkoenak izan dira. Feminismoak zientziaren filosofiak egindako analisi kritikoari maskulinitasunaren garrantzia erantsi dio, zientzia jardueran eragin ez ezik, zientziarentzat interesgarriak diren arazoak ere baldintzatzen dituena, bai eta beste zenbait gauza ere: emaitza fidagarri eta baliagarriak, datu adierazgarriak eta arazo jakin baten aurrean eman daitezkeen azalpen egokiak (Solsona, et al., 2001).

Mendebaldeko jakintzen kategorizazio arbitrario eta androzentrikoan, emakumezkoen jakintzak zientziaren kontzeptutik kanpo gelditu dira. Horren ondorioz, Marina Subirats eta Cristina Bruillet-ek (1990) adierazi dutenez, emakumeek eta emakumezko ikasleek ez dugu zientzian emakume eredurik aurkitzen. Identifikazio eta erreferentzia eredurik eza horrek indartu egiten du neska-emakumeek zientziatik aldentzeko duten joera.

Orokorrean, emakumeak historian zehar ezagutzaren eraikuntzatik urrun egon direla uste da, edo, nolahi ere, gaur intelektualak deritzegun lanetan

parte hartzeari berandu ekin ziotela, azken mendeetan, hain zuzen ere. Aitzitik, gizakien hastapen ezagunetatik emakumeek lagundu egin dute zientzia "ofiziala" garatzen nola gizateriaren bizitza kalitatea garatzen eta hobetzen, nahiz eta zientzia ezagutzaren historia androzentrikoak bai haiek bai beren ekarpenak ikusezin bihurtu dituzten.

"Emakume biltzailea" lehenengo botanikaria izan zela esan dezakegu; emakumeek landareen ezagutza, laborantza eta uzta garatu zituzten, baita landareak hazi, bildu eta janari bihurtzeko tresnak ere, eta horrela nekazaritza eta elikagaigintza zein elikagaiak kontserbatzeko prozesuak sortu zituzten. Gainera, eltzegintza (zeramikako tresnak eta objektuak egin zituzten) eta tindagaiak asmatu zituzten. Ardatzaren errotazio mugimenduari esker, emakumeek hari bihurtu zituzten zenbait natur zuntz, artilea, lihoa eta, geroago, kotoia eta zeta, eta horrela, molekulen antolamendu desberdinak eragin eta ehungintza teknikak garatu zituzten (Solsona, 1997).

Jakintza praktiko horien transmisioa egun zientzia edo teknologia deritzogunaren iturburuan kokatzen da. Alabaina, aipatu "teknologia aurrerapen" horiek, gizateriaren garapenerako funtsezkoak eta ezinbestekoak gertatu direnak, zientzia modernoaren eraikuntzatik (erabateko objektibitatea, neutraltasun axiologikoa eta testuinguru sozial eta historikoarekiko independentzia borondatea aldarrikatzen zituen epistemologian oinarritua) kanpo gelditu ziren, ondoren gizonezkoen eskura igaro ziren arte.

Oso zabalduta dagoen beste iritzi baten arabera, emakumezko zientzialariak salbuespen izan ziren. Haatik, historia abiapuntu ugari baina amaierarik gabeko kontakizuna denez, gertaerak beste era batera eboluzionatu direla dirudi. Filosofiaren historian emakumeek utzitako arrastoa bilatuz gero, Greziako eskoletan ere emakume filosofoak izan zirela ohartzen gara (Álvarez Lires et al. 2001a).

Egungo kimikaren aitzindari izan zen tradizio alkimistan ere emakumeen presentzia nabarmena izan zen, baita medikuntzan, botikagintzan eta artisautza eskoletan ere. Horiek guztiak Antzinetatik Erdi Arora bitartean kokatzen dira, alegia, zientzia Iraultzaren aurretik.

XVIII. mendea baino lehenagoko filosofia, alkimia edo artisau tradizioen ezaugarrien arabera, emakume horiek une historiko haietan ezagutzaren erai-



kuntza lanetan izan zuten parte-hartzea nabarmena izan zen; izan ere, hainbat emakume filosofo, alkimista eta mediku identifikatu ahal izan dira, ohizkoztat jo izan denaren aurka. Haiiek parte hartu zuteneko eskola eta tradizioetan emakumezkoak ez ziren salbuespenak izan. Egun, zenbait emakumeren testuak identifikatu eta hitzak antzeman ahal izan dira, baita banaka noiz idatzi zuten bereizi ere, edota beren presentzia edo eragina berreraiki. Beste emakume batzuek utzitako aztarnen inguruan, berriz, ezin dugu oraindik gauza handirik esan.

Medikuntzaren aitzindariak ere emakumeak izan ziren. Emakumezkoen mediku jakinduria kokatzearen, betidanik sendatzaile izan ditugula gogoratu beharra dago. Mendebaldeko historiako aurreko sendagileak, hain zuzen, emaginak eta anatomistak izan ziren: erditzean laguntzen zuten, abortuak egiten zituzten eta pertsonen osasunaz arduratzen ziren. Sendabelarrak lantzen eta biltzen jardun zuten lehenbiziko farmakologoak izan ziren. Mende askotan titulurik gabeko medikuak izan ziren; liburuetatik eta zientzia ofizialetik bazter utzita, elkarrengandik ikasten zuten, esperientziak amengandik alabengana zein auzokoen artean transmitituta. Jendearentzat "emakume jakintsuak" izaten ziren, eta denbora askoan zehar pobreen eta emakumeen eskura zegoen mediku arreta bakarra izan ziren (Solsona, 1997).

XIII. mendean zehar, unibertsitateek lehen medikuntza eskolak fundatu zituzten. Emakumeak ezin ziren haietan sartu, baina etorkizunean medikuak izango zirenek ikasten zuten bitartean inolako praktika esperimentalik egiten ez zutenez, XIV. mendean zehar dirudunek sarritan eskatzen zituzten "emakume petrikiloen" zerbitzuak. Elizak ez zion trabarik jartzen erregeek eta nobleziak medikuak izateari, bereziki apaizak edo beren kolaboratzaileak baziren, baina emakume "petrikilo" horien lana ez zuen begi onez ikusten. Izan ere, banaka jardun ohi zuten, ongi antolatuta zeuden eta osasunaren gaineko botereak zituzten. Beraz, Medikuntzaren kontrolari buruzko auzia sortu zen.

Zientzia aginteko eta gizarte kontroleko modu berri baten antzera azaleratzen ari zen une horretan, medikuen ezagutza mailak ez zuen inor ere sendatzeko biderik ematen, eta emakumeak, aldiz, hainbat urtetako praktika enpirikoaren jabe, nolabaiteko boterea zuten. Elizaren instituzioek, beste une historiko batzuetan bezala, enpirismoaren eta zientzia berriaren, gizonezkoen eta emakumezkoen nagusitasunaren arteko eztabaida horretan esku hartu zuten. Hala, elizako agintariak eztabaida desitxuratu egin zuten: petrikiloen jazarpena

antolatu zuen, "sorginen" aurkako borrokaren estalkian. Inkisizioaren xedea heresiaren eta fedegabetasunaren aurkako borrokatzat hartu zen, sekula ere ez Medikuntzaren praktikaren aurkako borrokatzat (Solsona, 1997).

Zientziaren Historia emakumezkoen ikuspegitik aztertzen jarraitzen baldin badugu, emakumeak baztertu eta ezkutatzeko beste mekanismo zoliago batzuk aurki ditzakegu, emakumeak ikusezin irauraraztea ahalbidetu dutenak.

- Zenbaitetan, beren garaian zientzia elkartean ezagunak izanda ere, ondoren ahaztuak izan dira, eta, jakina, zientziako liburu eta tratatuetatik bazter utziak. Honako hauek ditugu, beste batzuen artean:
  - ALEXANDRIAKO HYPATIA (370-415), filosofoa, matematikaria (ekuazio diofantikoak garatu eta Euklidesen eta Ptolomeoren lanei buruzko iruzkin kritikoak egin zituen) eta asmatzailea (ura distilatze-ko aparailua, hidrometroa, astrolabio laua...).
  - BINGENGO HILDEGARDA Abadesa, (1098-1179), astronomoa, kosmosari buruzko zenbait ikerketa teoriko burutu eta medikuntzari eta botanikari buruzko tratatu batzuk egin zituen. Halaber, poeta, musikaria eta bere garaiko izen handiko zenbait politikariren aholkularia izan zen.
  - MARIA GAETANA AGNESI (1718-1799) matematikaria, L'Hopital a Euler-etik kalkulu diferentzialari eta integralari buruzko trataturik osoena idatzi zuen (Istituzioni Analytiche). Orobat, beste hainbat ekarpen egin zituen, "Agnesiren kurba" deritzona kasu, hirugarren mailako kurben inguruan egin zituen ikerketen ondorio dena.
- Beste batzuek gizonezkoekin (senarrak, aitak, anaiak, ikerketa lagunak, etab.) elkarlanean egin zituzten ikerketak, eta beren izenak haien itzalpean gelditu ziren:
  - THEANO (K.a. VI. m.) filosofoa, matematikaria, poeta eta psikologoa. Pitagorasen andrea.
  - MARIE ANNE PAULZE LAVOISIER (1758-1836) A. Lavoisier senarrarekin elkarlanean jardun zuen. Cavendishen, Kirwanen eta Priestleyen lanak itzuli zituen, errektuzari buruzko ikerketarako ezinbestekoak izan zirenak, eta Lavoisier-i flogistoaren teoria atzera botatzea ahalbideratu ziotenak. Lavoisieren Kimikako Oinarriko

Tratatuaren irudiak egin zituen, eta bere kolaborazioa behar-beharrezkoa gertatu zen hark argia ikus zezan, senarra espetxeratuta baitzegoen.

- CAROLINE HERSCHEL (1750-1848) astronomoa, anaiarekin lan egin zuen, eta 8 kometa aurkitu zituen.
  - ADA AUGUSTA BYRON LADY LOVELACE (1815-1852) matematikaria, Charles Babbage-rekin batera lan egin zuen egungo konputagailuen aitzindaria izan zen makina analitikoan.
  - Atal honetan toki berezia egin behar dugu XX. mendeko zenbait emakume zientzialarientzat. Izan ere, euren ikerketek zientzia ezagutzari eginiko ekarpenengatik Fisikako, Kimikako edo Fisiologiako eta Medikuntzako Nobel saria jaso zuten, baina, zoritxarrez, saria beren ikerketa kide gizonezkoen eskura soilik iritsi zen. (I. Eranskina).
- Beste hainbati kendu egin zaizkie zientziari eginiko ekarpenak, eta ekarpen horiek gizonen izenekin sartu dira historian:
    - SALERNOKO TROTULA XI. mendeko medikua izan zen, Salernoko eskolakoa, “*Passionibus Mulierum Curandorum o Trotula Maior*” tratatua idatzi zuen, baita “*Ornato Mulierum o Trotula Minor*” ere, kosmetika eta azalaren gaixotasunei buruzkoa. Lan horiek klasikotzat hartu izan ziren XVI. mendera arte. Aitzitik, harrezkero “*Trotula Maior*” gizonezko egile batzuek idatzi zutelako ustea zabaldu zen.
    - SOPHIE GERMAIN matematikariak (1776-1831) Monsieur Leblanc izenarekin izenpetzen zituen aurreneko lanak, eta 1816an, jada bere izenarekin, Frantziako Zientzia Akademiaren Sari Handia irabazi zuen, azalera elastikoen bibrazioari buruz eginiko lanarengatik.
    - CATHERINE LITTLEFIELD GREENE-K, 1794an, kotoi haziak erauzteko makina asmatu zuen (cotton gin), Ely Whitney bere langilearekin batera. Patentea azken honen izenean erregistratu zuen, asmakizunean parte hartu izana ezkutatuta.
  - Emakumeek zientziari egin dioten garrantzi handiko beste ekarpen bat zientziako lan eta ikerketen dibulgazioa izan da. Guretzat zaila da XVII. eta XVIII. mendeetan zientzia dibulgazioak zenbaterainoko garrantzia izan zuen ulertzea. Zientzia modernoa sortu eta garatu zen mende horie-

tan jendea aurkikuntza berrien gose zegoen, mundua ulertzeko sistema berriei buruzko azalpenak ezagutzeko irrikan. Hainbat gizon aberatsek zientzialari amateurren zirkuluak fundatu zituzten, eztabaidaren edo erakustaldi esperimentalen gune bihurtu zirenak. Beren emazte-arrebetatik askok, zientzia dama bilakaturik, lehia maila handia erdietsi zuten, eta zientzia Iraultzak aurrera egin ahala, gero eta gehiago ziren zientziaren alor gutziekiko interesa azaldu eta haietan parte hartzen zuten emakumeak. Zientzia berria ez zen Unibertsitateetan garatu, haietan ez baitzen denbora askoan azaldu, baina bai Zientziako Elkarte eta Akademietan eta Aretoetan. Jarduera amateurra zen, ez profesionala. Zientzia berriaren aurrerapenak bultzatzen emakume askok jardun bazuten ere, haietako oso gutxik lortu zuten zientzialarien edo filosofoen estatutua; gehienez ere, garaiko izendapenaren arabera, amateurren estatutua ematen zieten (Álvarez Lires et al., 2001a). Aurrez aipatu dugun Marie Anne Paulze Lavoisier ez ezik, honako dibulgatzaile hauek ere nabarmendu beharrekoak dira:

- MARGARET LUCAS CAVENDISH DUCHESS OF NEWCASTLE (1623-1673), Descartesen mekanikaren dibulgatzailea eta atomismo epikurearraren defendatzailea. Hainbat liburu idazteaz gain, bere garaiko eztabaida nagusietan parte hartu zuen, honako gai hauen inguruan, hain zuzen ere: materia eta mugimendua, hutsunearen existentzia, magnetismoaren izaera, kolorea, sua, pertzepzioa eta ezagutzza.
- MARIA CUNITZ (1610-1664), astronomoa, Kepleren teoriak dibulgatu zituen, bere kalkuluak sinplifikatuta eta zenbait oker zuzenduta.
- EMILE DE BREUTEUIL MARQUISE DU CHATELET-I (1706-1749) leporatu behar zaio Newtonen filosofia naturala Europan sartzen lagundu izana, baita Leibnizen eta Conwayen filosofia bitalista Frantzia dibulgatu izana ere. Gertaera horrek berebiziko garrantzia izan zuen; izan ere, kartesianismoaren eta newtonianismoaren arteko eztabaidak, baita mekanizismoaren eta bitalismoaren artekoak ere, XVIII. mende osoa eman zuten, eta Pariseko Zientzien Akademia izan zen, hain zuzen, Descartesen filosofiaren gotorlekuetako bat. Beraz, Châteleten ekarpena garrantzi handikoa izan zen zientzia Iraultzak aurrera egin zezan. Hala ere, Émilie historian sartu baldin bada, zientzia ekarpen garrantzitsuengatik baino gehiago izan da Voltairerekin izandako harremanengatik eta garaiko zenbait pertso-

naiarekin, haien artean Richelieuko dukea bera, bizi izan zituen mai-tasun istorio zalapartatsuengatik.

- Azkenik, aipatu beharra dago emakume asmatzaileek "zientzia txikiago" bati egin dioten ekarpena, normalean emakumezkoek burutzen dituzten eta emakumezkoen berezko lantzat jo izan diren lanak erraztea helburu duena:
  - MARY ENGLE PENNINGTON-EK, XX. mendearen hasieran, Estatu Batuetako Janariak Ikertzeko Sailaren Buruzagitzatik, izoztu-tako janarien zientzia printzipioak garatu zituen;
  - MELITA BENTZ-EK 1912an patentatu zuen bere izena daraman kafe makina;
  - BETTE NESMITH GRAHAM-EK "Tippexa" asmatu zuen 1957an;
  - MARION DONOVAN-EK "dodotiak" 1959an;
  - 60ko hamarkadan JULIE NEWMAN-EK "pantyak" patentatu zituen;
  - eta abar luze bat: paperezko sudur zapiak, txigorgailua, ile lehorgailua... emakumeen asmakizunak dira.

Halaber, XX. mendean emakumeen zientzia jarduera nabarmen handitu zela azpimarratu beharra dago, ordura arte ez bezala, aukera eman zitzaielako goi mailako zientzia hezkuntzara heltzeko eta ikerketa taldeetan parte hartzeko. Horrek guztiak eragin zuen emakume zientzialari batzuek Nobel saria lortzea. Orduetik hona emakumezkoek zientzia esparruko 11 Nobel sari erdietsi dituzte (II. Eranskina). Hala ere, batzuek, hura merezi izanda ere, ez zuten lortu. Batzuk estalita gelditu ziren, aurrez azaldu dugun bezalaxe, saria jaso zuten beren gizonezko lagunen itzalpean. (I. Eranskina).

Argi asko gelditu da, beraz, zientzia jardueran emakumeak egon direla eta badaudela, zenbait arrazoi direla medio ezin ikusizkoak gertatu badira ere.

## **GENEROA ETA ZIENTZIARI BURUZKO IKERKETAK**

Generoa analisi kategoriatan gisa baliatzen duten ikerketak XX. mendeko 60ko hamarkadan abiatu ziren herrialde anglosaxoietan, bigarren boladako femi-

nismoa deitu izan denaren eskutik. Unibertsitateen inguruan zenbait ikerketa ildo urratzen hasiak ziren, geroago, Women Studies ikasketak sortarazi zituztenak. Haietan, zalantzan jartzen zen gizateriaren historian emakumeak agertu ez izana; izan ere, adituek baieztatzen zutenez, ezer ere ez baitzitekeen gerta emakumeak bertan egon ezean. Ondorioz, lehenik eta behin giza generoaren erdi horren isildutako iragan hori berreskuratu beharra zegoen, baina laster ohartu ziren ikuspegi horrek akatsak zituela: emakumeak ezin zitezkeen bilakaera historikoaren ikusle hutsak izan, ezin zitezkeen subjektu pasibo izan, ezinbestean eboluzio horren parte ziren; baina, non bilatu ekintza horiek historia ofizialek ez bazuten haien berri eman?

Hala, bigarren eginkizuna abiatu zen: subjektu historiko moduan beren funtzioa itzultzearena. Diziplina desberdinetako ikerketetako balizko desbideraketak aztergai harturik, bereziki humanitateen esparruan, ordura arte ezagunak ez ziren zenbait gauza atzeman ahal izan ziren. Esaterako, aztertutako populazioen ia lagin guztiak maskulinoak izaki, ikerketen emaitzak bi sexuei ezartzen zitzaizkien; ikerketa horietatik ondorioztatutako hipotesi zientifikopak, beraz, nabarmen aldentzen ziren zientziari esleitu ohi zaizkion objektibotasun eta neutraltasunetik.

Aurrekoaren ildoan, zientzia diziplina guztiak aztertu ziren, eta androzentris-moa hitza sortu zen, diziplina guzti horiek ikuspegi batek desitxuratuta daukela nabarmentzearen. Ikuspegi horren arabera, gizon zuria, mendebaldekoa, klase ertain-altukoa da historia ekintza guztien erdua eta neurria, hitzaren zentzu zabalean.

Zientzia esperimentalen alorrean, ordea, zientzia "gogorak" deitutakoak genero begiradatik askoz ere aldenduago egon ohi dira. Objektiboaren, arrazionalaren eta neutroaren eremua direla uste izan da eta uste da. Eremu horretan ez dago ez tokirik subjektiboarentzat ez afektiboarentzat, eta, beraz, giza eta gizarte zientzietan antzemandako joerak ezin dira haietan sartu. Hala ere, XX. mendeko 60ko hamarkadan Zientziaren Gizarte Ikerketak izeneko ikasketak multzoa sortu zen, eta horiek agerian utzi zuten zientzia giza eraikuntza dela, eta, ondorioz, jarduera zeharo soziala. Hala, planteamendu positibisten ustezko irudi neutro, objektibo eta arrazionala zalantzan jarri, eta planteamendu horien eraikuntzan eta produkzioan, giza jarduera orotan bezala, hainbat faktore ekonomikorik, sozialek, psikologikok eta pertsonalek eragina zutela nabarmentzen zen. Gizarte ikerketek, eragin zituzten polemiketarik harata-

go, zientzia eraikuntzen guztiahalduntasuna zalantzan jartzea lortu zuten, baita zientziaren eta teknikaren erabilpenak ere (Álvarez Lires et al., 2001a).

Bestetik, Gender and Science ikerketek, 70eko hamarkadaren amaieran abiatu eta 80ko hamarkadatik aurrera garatu direnak, gizarte zientziei dagokienez aurrez azaldutakoaren antzeko bilakaera izan dute. Ildo horretan, une honetan hainbat ikerketa ildo eta korrante daude, hain espazio motzean ezin zehaztu genitzakeenak. Zientzia eta generoari buruzko ikerketen aniztasun hori, arazo izan beharrean, ikerketa eta eztabaidarako izaera osasuntsuaren adierazgarri izan daiteke, oraindik azaletik baino aztertu ez den esparru batean.

Zenbait korrontek, emakumeek zientziaren historian jasan behar izan duten ikusezintasunaz arduraturik, emakume zientzialariek zientziaren historian zehar izan duten agintearen azterketan arreta berezia jarri beharra dagoela azaldu dute. Agintea aztergai hartzeak konplexutasun handiagoz gogoeta egiteko aukera ematen du, bai emakume zientzialarien funtzioaren inguruan, bai haiek historian zehar egin zituzten ekarpenak berreskuratzeko lanaren inguruan ere.

Emakumezkoen agintea bitartekaritza gisa ulertzen da, eta horrek emakumezkoen agintea eta gizonezkoen agintea bereiztea ahalbidetzen digu. Gaur egungo munduan agintearen eta boterearen kontzeptuak nahasten dira, baina etimologikoki (1) agintea latinezko *augere* hitzetik dator, hau da, "haztarazteko gaitasuna". Emakume agintea, hain zuzen, agintearen kontzeptuaren esanahi horretan oinarritzen da, aginte patriarkala ez bezala, horrek agintea botere gisa ulertzen baitu. Agintea aztergai gisa baliatzen baldin badugu, emakume zientzialariek historian zehar jarraitu dituzten ibilbide epistemologiko desberdinak bereizteko bidean egon gaitezke (Solsona, 1997).

Beste korrante epistemologiko batzuk zientziaren eta teknologiaren eraikuntzan eta produkzioan dauden androzentrismoa eta joera maskulinoak azaleratzen ahalegintzen dira. Gaur egungo unibertso zientifiko-teknologikoa oso

---

(1) Autor, 1155. *auctor*, -oris latinetik hartutakoa, "sortzailea, egilea", "historia iturria", "eragilea, sustatzailea", *augere* latinetik datorrena, "handitzea", "aurreraraztea". Eratorria: Autoridad, XIII. mendearen 1. erdia, *autoritas*, -atis lat.; autoritarioa, autoritarismoa. Autorizar, XV. m. hasiera; autorización, 1705 (Corominas, J. 1961. *Breve Diccionario etimológico de la lengua castellana*. Gredos: Madril).

mundu androzentrikoa da, eta nola bere baitan biltzen dituen baloreak hala proposatzen dituen edukiak gizonezkoen estereotipoari lotzen zaizkio, emakumezkoenari baino gehiago. Gauzak horrela, une honetan (2) badirudi emakumeek, kolektibo gisa, ez dutela "erronka teknologiko" horretan esku hartu nahi. "Nahiago dut egungo garapen teknologikoa garai honetako gizon eta emakumeak bizi gareneko esparrutzat hartzea, erronkatzat hartzea baino", baieztatzen du Laura Tremosak (1986).

Zientzialarien lan sareek eta nazioarte mailan abian dauden genero ikerketek ezagutza eta esperientzia berriztatzaileak ekoiztea izan dute xede, gizarte mailan nabarmenak eta diziplinartekoak, pertsona guztientzat onuragarri izan daitezkeenak. Halaber, garrantzi berdina eman diote esperientzi horiek igorri eta ezartzeko bideak bilatzeari; izan ere, oso baliagarri gertatzen baitiragizar-te europar garaikideetako dimentsio anitz, konplexu eta erabat teknologikoa. Emakumeen Ikerketek frogatu dutenez, genero ikerketek ezagutza forma berrien bilatze esperimentalak eta hezkuntzaren eta lanbidearen esperientzien artean dagoen zuloa gaindituko duten zuloak ezartzeko beharra bateratu behar dute.

## EGUNGO ZIENTZIAN EZIN IKUSIZKO PRESENTZIA

Azken urte hauetan nazioarteko zenbait erakundek eginiko txostenek gero eta kezka handiagoa azaldu dute emakumeek esparru zientifiko-teknologikoa bizi duten desberdintasun egoeraren inguruan.

1993ko Europako Zientzia Emakumeen Batasunaren txostenak Europar Batasunaren zientzia eta teknologia ikerketan "gender gap" deitutakoa (genero zuloa edo hutsunea) dagoela eman zuen aditzera, eta agerian utzi zuen emakumeak atzean gelditzen ari direla arrakastari, lorpenei eta beren karreraren sustapenari dagokienez.

---

(2) Zientzian zein teknikan emakumeari gizonari baino funtzio nabarmen apalagoa esleitu zaio, aztergai ditugun alderdi gehienetan. Haatik, badakigu gauzak ez direla beti horrela izan. Argi dago historiaurreko emakumeek paper protagonista jokatu zutela, hain zaila zen ingurunean beren lanak erraztearren. Zientziarekin eta teknologiarekin harremanetan bizi ziren. Bai zientzia bai teknologia, hastapenetan, emakumeentzat ezagunak zirela esan dezakegu, beraz.



ETAN txostenak (European Technology Assessment Network on Women and Science. Expert Working Group on Women and Science, 2000) datu kualitatibo eta kuantitatibo berriak ekarri ditu emakumeek zientzian duten posizioaren inguruan (3). Txosten horrek lehenbizi unibertsitateen, ikerketa zentroyen eta enpresen estatistikak aztertzen ditu. Hortik ondorioztatzen denez, eskuragarri dauden datuak urriak izanik ere, haiek "argi eta garbi adierazten dute bazterketa eta bereizketa egoera harrigarria"; halaber, txostenean behin eta beriz gomendatzen da hemendik aurrera erregistratu beharreko estatistika datuak generoen arabera bereiztea.

Txostenaren egileek ongi asko frogatzen dutenez, Europako emakume zientzialariak oso erabakimen postu gutxitan egoten dira; beren lanak sarri okerrago ebaluatu ohi dira; ikertzeko fondo eta dirulaguntza gutxiago eskuratzen dituzte; eta gizonezko kideei baino gutxiago ordaintzen zaie. Eta hori guztia karreraren hasieran kopuruan gizonezkoen pare dauden arren.

Europako zientzia politika zehazten duten erakundeetako erabakimen postuei dagokienez, egoera berdintsua da: "50 urtetik gorako gizonezko zuriak erabateko gehiengo dira dirulaguntzak, fondoak eta sariak ematen dituzten zientzia batzorde seniorretan. Hartzaileak ere sektore demografiko berean egon ohi dira. Horrek eragina izango du ezinbestean, zientzia agenda lantzeko orduan". Txostena landu duten zientzialariek zalantza dute ministro kontseiluetan eta erabakimen batzordeetan emakume gehiago izanez gero fondoak inbertitzeko patroia ez ote zen bestelakoa izango.

---

(3) Espainiako unibertsitatea Europar Batasuneko herrialdeen laugarren tokian dago emakume katedradunen portzentajearen, %13,2, Finlandiaren (%18,4), Portugalen (%17) eta Frantziaren (13,8) atzetik, eta bigarreanean emakume irakasle titularren portzentajearen, %34,9, Portugalen atzetik (%36). 2000. urtean Espainiako unibertsitateetako 60 errektoretatik soilik bat emakumezkoa zen, eta sei ikerketa errektoreorde. Zientzia Ikerketarako Kontseilu Nagusian, non zientzia pertsonalaren %31 emakumezkoak diren, 23 zentro zuzendarietatik 9 dira emakume. Zientzien Akademian, soilik emakume zientzialari batek betetzen du eserleku bat. Izen handiko Príncipe de Asturias Saria, 1981. urtean abiatu zena, ez zaio inoiz emakume zientzialari bati eman; eta 11 urtetan emakume batek baino ez du Jaime I. Saria irabazi ikerketa alorrean –beste bi medikuntza klinikoko alorrean izan dira sarituak–.

Txostenean ugari dira datuek eragindako ezuste ezatseginak. Ezagunena emakumezko bi ikerlari suediarrek 1997an argitaratu zutena, non Ikerketa medikuko Kontseilu suediarrek Suediako doktoretza ondoko dirulaguntzarik garrantzitsuak ematearren baliatutako hautaketa eta jarduera aztertu zituzten. Emakumeak gizonak baino 2,2 aldiz emankorragoa behar zuela atzeman zuten, zientzia maila berekotzat hartua izan eta zientzia karrera garatzeko baliabide ekonomiko berdinak eskuratu ahal izateko, hain zuzen. Halaber, ebaluatzaileek oharkabean gizonetzko, gizonak izateagatik bakarrik, ematen zieten abantailak aldizkari ospetsuetan 20 zientzia agerkari argitaratzeak adina balio zuela egiaztatu ahal izan zuten. Ikerketak, esamesa piloa ez ezik, ebaluazio batzordeen osaketa aldatzea ekarri zuen, haietan emakume gehiago sartuz.

MIT (Massachusetts Institute of Technology) estatubatuar institutu ospetsuak berriki onartu du 15 emakume ikerlariri (lanpostu iraunkorra zutenak) beren gizonetzko 197 kideei baino toki, baliabide eta soldata gutxiago eman izana, baita haiek botere postuetatik pixkanaka bazterrarazi izana ere. Zorionez, duela bost urte emakumeak kexu azaldu ziren horregatik, eta horrezkero MITek %20 handitu du emakumeen soldata gizonetzkoenaren pare jartzearen.

ETAN txostenean ere beste fenomeno baten berri ematen da: prestakuntza lanetan ahalegin handiak egin dituzten hainbat emakumek ikerketa karrera utzi egiten dute. "Doktoretza eta gero zulo beltz baten antzeko zerbait agertzen da ... eta emakume asko hartan erori eta zientziarako galdu egiten dira". Zenbakiak adierazten dutenez, ikasketa garaian emakumeen eta gizonen proportzioa berdintsua izanagatik ere, zenbait diziplinan emakume gehiago egoten direla, gizonentzat izaten dira bete-beteko arduraldiko ia irakasle postu guztiak.

Ildo horretan, emakumeek, ezkondu eta seme-alabak izatean, familiaren mesedetan ikerketa karrerari uzten diotelako aurreiritzia faltsua dela dirudi. Izan ere, Finlandian eta Estatu Batuetan egin diren zenbait ikerketek adierazten dute ezkonduetako emakumeak ezkongabeak baino emankorragoak direla, eta seme-alabak izan ala ez, neurri berean jarduten dutela ikerketa lanean.

Finean, ETAN txostenak frogatzen du oraindik ere traba handiak daudela zientziaren praktikan erabateko genero parekatzea izateko, eta ondorioz, ema-

kume zientzialarien irakaskuntzarako eta ikerketarako ahalmena ez dela behar bezainbat garatzen. Zientzian genero parekatze hori gertatzeak, emakumeentzat onuragarri gertatu ez ezik, zientzia ikerketako praktika bidezkoago eta objektiboagoak ekarriko lituzke. Hori guztiarengatik, txostenaren argitan, zientzia bikaintasuna sustatuko bada behar-beharrezkoa da mainstreaming (4) printzipioa eta genero ikerketako azken joerak aintzat hartzea.

Halaber, hori dena bat dator nazioarte mailan alor horretan egin diren garapenekin, UNESCOk Zientziari eta zientzia ezagutzaren erabilpenari buruz egin adierazpenean nabaria denez: "Zientziara heltzeko berdintasuna, giza garapenerako betebeharrak sozial eta etiko ez ezik, behar bat ere bada, nola zientzia elkarrekin ahalmen guztia garatzeko, hala zientziaren aurrerapenak gizateriaren beharretarantz bideratzeko. Munduko populazioaren erdia osatzen duten emakumeek traba handiak aurkitzen dituzte bai zientzia karreretara heldu eta haietan aurrera egiteko, bai zientzian eta teknologian hartzen diren erabakietan parte hartzeko; gauzak horrela, lehenbailehen ekin beharko genioke oztupo horiek desagerrarazteari."

Nazioarteko beste agiri batzuek agintzen dute zientzian kalitatea izango bada berdintasuna ezinbesteko baldintza dela. Jarrera horren arabera, zientzian nagusi diren paradigmei lotutako datu kualitatiboak ezarri behar dira, eta datu horiek zientzian emakumeen eta gizonen ezinbesteko parte-hartze orekatuarekin korrelazioan nola jartzen diren aztertu. Hala, horrenbestez agerira azaltzen da oinarritzko ikerketa gehiago egiteko eta nazioarteko alderaketak burutzeko beharra.

## ALDAKETARAKO PROPOSAMENAK

Aurrez deskribatutako diskriminazio eta desberdintasun guztiei aurre egitearren estrategiak ugariak badira ere, jarraian aipatu ETAN txostenean esparru europarrerako proposatzen direnetariko batzuk baizik ez ditugu aipatuko:

---

(4) Printzipio honek politika eta neurri orokor guztietan aukera berdintasuna sustatzea agintzen du, egoera guztietan eta gizonen eta emakumeen laneratzean eragin ditzaketen balizko ondorioak aintzat hartuta.

- Estatistikak hobetzea, generoen arabera argitaratutako daturik eza sistematikoa baita.
- Emakumeek zientzian eta teknologian dituzten aukerak eta jomugak dokumentatu eta aztertzea.
- Emakumeak zientziara eta teknologiara heltzea, eta haietan iraunarazi eta aurrera egitea oztopatzen duten barneko eta kanpoko oztopoak aztertu eta nabarmentzea.
- Emakume zientzialarien sareak sustatzea. Izan ere, 1986ko Medikuntzako Nobel sari Rita Levi Montalcinik uste duenez: emakume zientzialarien mundu mailako sarea sortuko balitz, haiek Hirugarren Munduko arazoei aurre egin liezaiekete, bereziki emakumearen egoerari dagokionez.
- Peer-review prozesua –lanak ikerlari independenteak diren pareen artean ebaluatzeko ohizko prozedura– berraztertzea, baita postu garrantzitsuak esleitzen direneko modua ere; izan ere, betiere ETAN txostenaren arabera, oraindik ere indarrean daude gizonez osatutako beteren eragin sareak, balio handiko hainbat emakume zientzialariren aurrerapena oztopatzen dutenak.
- Ekintza positiboak abian jartzea, bestela ezinezkoa gertatuko litzatekeen berdintasuna lortu arte behintzat. Europar Batasunean, emakume ikerlari seniorren batezbesteko portzentajea %0,5-1 handitzen da urtean, eta, beraz, generoen arteko oreka naturala berez helduko den esperoan egotea ez litzateke batere estrategia eraginkorra izango, ETAN txostenaren egileek baieztatzen dutenez.
- Gutxienez parte-hartzailetako %40 sexu berekoak izango direneko Programak sustatzea.
- Emakumeentzat propio diseinatutako dirulaguntzak eskaintzea.
- Familiaren bizimodua eta ikerketa lana uztartzeko laguntzak eskaintzea.
- Jomuga hau ezartzea: 2002. urterako zientzia politikako batzorde erabakitzaileetan %30 emakumeak izatea, eta 2005erako %40.
- Europar Batasuneko estatu kideak engaiatzea, akademietan eta unibertsitate erakundeetan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko parekotasuna ezar dezaten.

## BEHARREZKO ALDAKETA

Oro har, aurrez azaldutakoaren arabera, emakumeak esparru zientifiko-teknologikora heldu eta hartan gelditu eta aurrera egiteak maila desberdinetan hainbat aldaketa gertatzea eskatuko luke. Zientzia eta generoari buruzko zenbait ikerlanen orientazioei jarraiki, (Kelly, 1987; Keller, 1991; Askew eta Ross, 1991; A. Lires et al, 1994), geuk honako hauek nabarmenduko genituzke:

### **a) Aldaketak zientziaren produkzioan**

Zalantzarekin, okerrarekin eta ziurgabetasunarekin bizi behar duen zientzia, non egia absolutuetarako tokirik ez den egongo, eraikitzea jomuga izango dutenak. Naturarekin harmonikoki bizitzen ahaleginduko den zientzia, diziplinarteko ikuspegira irekia, generoa aztergaitzat hartuko duena. Aldaketa horiek bereziki zientzia elkarteei dagozkien arren, hezkuntza sistemak ere haien aldeko jarrera azaldu behar du ezinbestean.

### **b) Aldaketak eskola zientzian**

Inguratzen gaituen inguruneari eta historiari estu lotutako zientzia, mutikoen eta neskatoen bestelako esperientzia aintzat hartuko duena, "femeninotzat" jotako gaitasun eta trebeziei duintasuna emango diena, nola zientziarentzat hala edozein pertsonarentzat, beren sexu biologikoa edozein izanda ere, balio handiko ezaugarriak baitira; emakumeek historian zehar eginiko ekarpenak bilduko dituenak; kognitiboaren eta afektiboaren arteko harremana kontuan hartuko duena; zientziaren, teknologiaren, generoaren eta gizartearen artean dauden elkarreaginak aintzat hartuko dituenak.

### **c) Aldaketak irakasleengan**

Irakasleek zientzian eta eskola praktikan sexismoa eta androzentrismoa atzematuko tresnak izan behar dituzte eskura. Pentsamolde dikotomikotik aldentzen ikasi behar dute, baita generoa aztergaien zerrendan eransten ere.

#### **d) Aldaketak mutilengan**

Geure gizarteetan maskulinitatea eraiki izanak eragin dituen ondorio negatiboak, genero estereotipoari lotuak, zuzentzen ahalegindu behar gara: lehia, agresibitatea, alderdi afektibo eta emoziozkoekiko adeitasunik eza, materiala eta espazio fisiko eta ahozkoak bereganatzea.

#### **e) Aldaketak neskengan**

Halaber, feminitatea eraiki izanak genero estereotipoari loturik eragin dituen efektu negatiboari aurre egin behar zaie: segurtasun eza eta norberarenaren balioa gutxitzea. Ildo horretan ezinbestekoa da baterako hezkuntzako ekin-tzan auto-estimua sustatzea, mutilen kolektiboan baino askoz ere baxuagoa dena.

## BIBLIOGRAFIA

ACKER, S. (1995). *Género y educación. Reflexiones sociológicas sobre mujeres, enseñanza y feminismo*. Narcea, Madril.

ÁLVAREZ-LIRES, M. eta SONEIRA, G. (1994). "Enseñanza y aprendizaje de las ciencias experimentales: la coeducación como meta", in *Premios CIDE-MEC 1992*. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa, Madril.

ÁLVAREZ-LIRES, M., NUÑO, T. eta SOLSONA, N. (2001a). *Mujeres en la Historia de la ciencia. Un enfoque coeducativo en ciencias experimentales* (prentsan). Síntesis, Madril.

ÁLVAREZ LIRES, M., NUÑO, T., DOMÍNGUEZ, L., TRABA, A., VARELA, M.L., GONDAT, L. eta GONZÁLEZ, L. (2001b). *Estudio de las aspiraciones educativas y profesionales de las mujeres en el ámbito científico-tecnológico y barreras que las obstaculizan*. Ikerketa-Proiektua, ondorengoetan eskatu dena: Emakumeei buruzko ikerketak eta azterlanak egiteko laguntzak, 2001. Emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzeko ekintza estrategikoa. Zientzia eta Teknologiako Ministerioarteko Batzordea. I+G+B-ko Plan Nazionala. Emakumearen Erakundea. Gizarte Gaietarako Ministerioa. Argitaragabeko materiala.

ASKEW, S. eta ROSS, C. (1991). *Los chicos no lloran*. Paidós Educador, Bartzelona.

ETAN (2000). Expert Working Group on Women and Science: *Science Policies in the European Union*, European Commission, Research Directorate General, Brussels.

HARDING, S. (1996). *Ciencia y feminismo*. Morata, Madril.

KELLER, E.F. (1991). *Reflexiones sobre género y ciencia*. Alfons el Magnànim, Valencia.

KELLY, A. (1987): *Science for girls?*. Open University Press, Philadelphia.

LOGUE, H. A eta TALAPESSY, L. M. (eds.) (1993). *Proceedings of the International Workshop on Women in Scientific and Technological Research in the European Community*, Directorate General XII, Brussels.

POAL, G. (1993). *Entrar, quedarse, avanzar*. Siglo XXI, Madril.

SOLSONA, N. (1997). *Mujeres científicas de todos los tiempos*. Talasa, Madril.

SOLSONA, N., ÁLVAREZ LIRES, M., NUÑO, T. eta TOMÉ, A. (2001). "Propuestas y experiencias con una mirada femenina en la clase de Ciencias". Mahai-ingurua. *VI Congreso Internacional sobre Investigación en la Didáctica de las Ciencias*. Rev. Enseñanza de las Ciencias. ICE: UAB.

SUBIRATS, M. eta BRUILLET, C. (1990) *La Coeducación*. M.E.C., Madril.

TREMOSA, L. (1986). *La mujer ante el desafío tecnológico*. Icaria, Bartzelona.

UNESCO European Regional Conference on *Women in Science –Quality and Equality. Conditions for Sustainable Human Development*, Bled, Slovenia, 1998.



## I. ERANSKINA

### Fisikako, Kimikako edo Fisiologiako eta Medikuntzako Nobel sariak merezi izan dituzten emakume zientzialariak eta haiek jaso izan dituzten gizonezkoak

Alorra eta Nobelaren urtea	Emakume zientzialariak (jaiotze eta heriotza datak)	Aurkikuntza eta ikerketa garaia	Gizon zientzialari sarituak (jaiotza eta heriotza datak)
Fisika 1921	Mileva Maric (1875-1948)	Fisika Teorikoari eta Efektu Fotoelektrikoari ekarpenak (1905-1915)	Albert Einstein (1879-1955)
Fisiologia eta Medikuntza 1934	Frieda Robscheit-Robbins (1893-1973)	Anemia kaltegarriaren tratamenduan gibelak duen balioterapeutikoari buruzko ikerketak. (1915-1926)	George Hoyt Whipple (1878-1976) George R. Minot (1885-1950) William P. Murphy (1892-1987)
Fisiologia eta Medikuntza 1935	Hilde Proescholdt Mangold (1898-1924)	Hainbat ehun eta organoren Enbrioi garapena gidatzen duen antolatzailearen izaera eta kokapena. (1924)	Hans Spemann (1869-1941)
Kimika 1944	Lise Meitner (1878-1968)	Nukleo astunen fisioa. (1934-1939)	Otto Hahn (1879-1968)
Fisika 1957	Chien-Shiung Wu (1912-97)	Elkarreragin nuklear ahuletan parekotasuna ez kontserbatzea. (1957)	Tsung Dao Lee (1926- ) Chen Ning Yang (1922- )
Fisiologia eta Medikuntza 1962	Rosalind Franklin (1920-1958)	ADNaren molekularen egitura: helize bikoitza. (1951-1953)	James Watson (1928- ) Francis Crick (1916- ) Maurice Wilkins (1916- )
Fisika 1974	Jocelyn Bell Burnell (1943- )	Pultsarrak (neutroi izarrak). (1967) Ikerketa aitzindaria irradi-astrofisikan	Anthony Hewish (1924- ) Martin Ryle (1918-1984)

## II. ERANSKINA

### Fisikan, Kimikan edo Fisiologian eta Medikuntzan Nobel sariak jaso dituzten emakume zientzialariak

Aurkikuntza- ren garaia	Alorra eta Nobelaren urtea	Saritutako pertsonak (emakumeak letra etzanek) (jaiotze eta heriotza datak)	Aurkikuntza
(1897-1903) 1903	Fisika	<i>Marie Sklodowska Curie</i> (1867-1934) <i>Pierre Curie</i> (1859-1906) <i>Antoine Henri Becquerel</i> (1852-1908)	Erradioaktibitatea.
(1903-1910) 1911	Kimika	<i>Marie Sklodowska Curie</i> (1867-1934)	Polonioa eta radioa aurkitzea radioa isolatzea.
(1931-1933) 1935	Kimika	<i>Irène Joliot-Curie</i> (1897-1956) <i>Frédéric Joliot-Curie</i> (1900-1958)	Erradioaktibitate artifiziala.  Elementu erradiaktibo berrien sintesia.
(1948-1950) 1963	Fisika	<i>Maria Göppert-Mayer</i> (1906-1972) <i>J. Hans D. Jensen</i> (1907-1973) <i>Eugene Paul Wigner</i> (1902-1995)	Nukleo atomikoaren egitura (geruza eredu).  Nukleo atomikoaren eta oinarrizko partikulen teoriari ekarpenak.
(1949-1956) 1964	Kimika	<i>Dorothy (Crowfoot) Hodgkin</i> (1910-1994)	X izpien difrakzio bidez substantzia biokimiko garrantzitsu batzuen egitura zehaztea: kolesterola, penizilina, B12 bitamina eta intsulina.
(1936-1943) 1947	Fisiologia eta Medikuntza	<i>Gerty Theresa Cori (Radnitz)</i> (1896-1957) <i>Carl Ferdinand Cori</i> (1896-1984)  <i>Bernardo A. Houssay</i> (1887-1971)	Glukogenoaren erreakzio katalitiko: glukosaren eta glukogenoaren interkonbertsio mekanismoa. Glukogenoaren katalisia eragiten duen entzima den fosforilasa isolatzea eta haren sintesia egitea. Hipofisiaren aurreko lobuluek azukrearen metabolismoan duten hormona garrantzia.

*jarraitzen du...*

## II. ERANSKINA (jarraipena)

### Fisikan, Kimikan edo Fisiologian eta Medikuntzan Nobel sariak jaso dituzten emakume zientzialariak

Aurkikuntza- ren garaia	Alorra eta Nobelaren urtea	Saritutako pertsonak (emakumeak letra etzanez) (jaiotze eta heriotza datak)	Aurkikuntza
(1959)	Fisiologia eta Medikuntza 1977	<i>Rosalyn Yalow (Sussman)</i> (1921- ) Roger Guillemin (1924- ) Andrew Schally (1926- )	Hormona peptidikoan entsegu erradioimmunologikoak. Garunean hormona peptidikoak sortzeari buruzko aurkikuntzak.
(1951)	Fisiologia eta Medikuntza 1983	<i>Barbara Mc.Clintock</i> (1902-1992)	Transposizio genetikoak: elementu genetiko mugikorrek daude, kromosomaren barruan salto egitean geneak aktibatzen edo desaktibatzen dituztenak.
(1950-1959)	Fisiologia eta Medikuntza 1986	<i>Rita Levi-Montalcini</i> (1909- ) Stanley Cohen (1922- )	Nerbio Hazkundeko Faktorea (NGF)
(1950 -1960)	Fisiologia eta Medikuntza 1988	<i>Gertrude B. Elion</i> (1918-1999) George H. Hitchings (1905-1998)  Sir James Black (1924- )	Hainbat gaixotasun sendatzeko (leuzemia, hezueria, infekzio birikoak, herpesa, malaria, organo transplanteetan errefusa...) tratamendu medikueterako medikuntza berriak garatzen lagundu zuten printzipioak. Beta (beta-blocker) sendagai blokeatzaileak garatzea.
1980	Fisiologia eta Medikuntza 1995	<i>Christiane Nüsslein- Volhard</i> (1942- ) Eric Wieschaus (1947- )	Enbrioi garapen goiztiararen kontrol genetikoak (organismo osoak, legamietatik euli, sagu eta pertsonetara, logika genetiko inbariante batez sortu dira).
1948		Edward Lewis (1918- )	

---

# KRISTALEZKO SABAIA EKONOMIAN

---

MYRTHA CASANOVA  
INMA PARRA

"Pentsaezina da garapen ekonomikoa, emakumeak herrialdearen prozesu produktiboan parte hartze aktiborik ez badu". Horrela hasi zuen bere diskurtsoa Estatu Batuetako Merkataritza Idazkariak WW500 Kongresuan. Washingtonen egin zen 1999ko martxoan, eta bertan urteko 500 emakume enpresari eta zuzendari onenak saritu zituzten. 1998an emakume profesionalak herrialdearen ekonomian eginiko ekarpena 3 trilioi US\$ ingurukoa izan zen, eurotan 3,4 bilioi eta pezetatan 564,4 miliar.

## TRESNA BERRIAK ASMATZEN

Aro berri honi "Ekonomia Berria" esaten zaio. Honexegatik:

- Ekonomia hori zehaztuko duten faktoreak eta jokaerak oraindik ez daudelako finkatuta.
- Iraganean erabilitako tresnak ez direlako baliagarriak.

Beraz, izen hori behin-behinekoa dela ulertu behar dugu, bitartekoa dela, harik eta agenteek ulertzen duten arte nola jokatu behar duten teknologiak, Internetek, globalizazioak, aniztasunak eta errealitate demografiko berriak.

Garai batean enpresari ona edo liderra izateko behar ziren ezaugarriak, gaur egun ez dira lehen bezain baliagarriak, ez delako hain jakina Ekonomia Berrian nola jokatu behar den.

## GAUR EGUNGO LIDERRAK ONDORENGOAK BEHAR DITU:

- inspirazioa;
- arriskuak hartzea;
- akatsetatik ikastea;
- aldaketei aurrea hartzea;
- Berrikuntza izatea taldeko eta norbanakoaren helburu;
- gainontzekoak hura lortzera bultzatuko dituen ikuspegia ezartzea;
- komunikatzen jakitea;
- eremu desberdinetan arrakasta goiztiarrak lortzea;
- talde eraginkorrak sortzea;
- hobekien egiten dakienaren esku uztea eginbeharreko lana;
- etekinekin lan egitea;
- erakundearen funtzioak bezeroen arabera antolatzea (horiek gero eta anitzagoak dira);
- publiko guztiakin bat egingo duen irudia ematea, norberarena zein enpresarena;
- global pentsatu eta bertan jokatzeko;
- gatazkarik egon ez dadin aniztasuna kudeatzea;
- erakundearen neurria eraginkortasunaren arabera moldatzea, eta bere giza kapitalaren dibertsitateak abantaila lehiakor bihurtzea emaitzen kontua ziurtatzeko.

## ARO BERRI HONEN ESZENATOKIAN

- Munduaren egonkortasun sozioekonomikoaren herrialde eragileak –Europar Batasuna, Estatu Batuak, Kanada eta Japonia– munduko biztanleriaren %8,25 baino ez dira. Beraz, globalizazioak eta mundializazioak definizio azterketa sakona behar dute.
- Informazioaren teknologiak mundua txikitu egiten du eta munduko beste eremu batzuk denbora errealean ezagutzea ahalbidetzen digu.
- Baina horrek ez du esan nahi mundua estandarizatzen ari denik. Aitzitik, globalizazioak "aldea globala"ren aniztasunak nabarmentzen ditu: kultu-

rak, demografia, industria zikloak, eredu ekonomikoak, filosofia politikoa.

“Amazonasen tribu batzuk hitz egin ere ez dute egiten, eta, aldiz, Kalifornian punta-puntako teknologiaren zabalkuntzan ari dira bete-betean.”

“Asiako zati handiengan industria aurreko oinarri ekonomikoan daude, eta Europan, aldiz, balio erantsiaren ekonomia da nagusi.”

“Japonian pertsonako bi telefono mugikor daude eta Afrikan biztanleriaren %10ek soilik hitz egin du inoiz telefonoz.”

“Hego Amerikan eta Indian hazkunde demografikoa izugarria den bitartean, Europan "0" hazkundera dugu.”

Ez da aukera bat. Hazkunde jasangarri baterantz egin nahi badugu, mende-baldeko gure eredu sozioekonomikoarentzat behar-beharrezkoa da emakumeak prozesu ekonomikoan modu aktiboan nola parte hartu behar duen eztabai-datzea. Besterik gabe, ezinbestekoa da.

Informazioaren teknologiek (IT), etxeetatik eta landa eremuetatik lan egiteko modu berriak eragiten dituzte, eta enpresen eta profesionalen jarduera errazten dute; eta, gainera, balio erantsi eta ezagutza maila handia ematen duten. Aldi berean, bizi kalitatea hobetzen dute eta horrek belaunaldi berriak bere balioak eta lan egiteko modu berriak uztartzera eramaten ditu, ezagutza berrien bidez gizarte berritzaile eta bizi bat egitera.

Beraz, ezinbestekoa da, landa eremuetan, naturarantz, eta lan egiteko/bizitzeko modu berrietarantz doan mugimendu horri beharrezkoa duen azpiegitura ematea. Zalantzarik gabe emakumeak gidatuko duen mugimendua da hori, bera baita dibertsifikazioa kudeatzen ari dena, enpresa eta zerbitzu aukera berrien bila.

## **ARO HONEN PROFIL BAT**

Interneteko enpresen %90ek dirua galtzen dute.

"Banaketa Digitalak" agerian uzten du zein erabilera maila desberdina dagoen munduko eskualdearen eta biztanleria multzoaren arabera, IT eta Internet negozioetan, lan egitean eta bizitzan egokitzerakoan.

"Jakinduriaren banaketak" munduko hainbat eremutako biztanleen artean desoreka itzelak daude prestakuntzan, zientzian eta teknologian. Biztanleriaren %90 garapen prozesutik kanpo uzten da.

"Banaketa demografikoak" erakusten du jaiotzen hazkundearen %97 herrialde azpigaratuetan gertatzen dela.

"Banaketa ekonomikoak" erakusten du munduko biztanleriaren %8k gainontzekoa mantentzen duela.

Ingurugiroarekiko kontzientziarik ezak, gobernatzeko irizpide, balore eta etika desberdinak izateak, eta gizarteko rolen arteko desberdintasunek munduaren garapen maila jasangarria ez izatea eragiten dute.

Horregatik guztiagatik, betiko estrategiek ez dute emaitzarik ematen, eta, gainera, ez dute berriro emango. Gaur egun, erabakiak unean-unean hartzen dira, denbora errealean. Esperientziak ez du balio, ez dagoelako esperientziarik baliabide berrien erabileran, ez eta edozein entitatearen operatiboan sartzean lortutako emaitzetan ere.

Horrek, paradoxa dirudien arren, emakumeari laguntzen dio. Emakumeak ekonomia zaharrean izan duen desabantaila nagusia esperientzia eta prestakuntza profesionalik eza izan baita. Gaur egun, bere ezagutza mapa osatzeko emakumeak nola ikasi ikasten badu eta eguneroko akatsetatik ikasten badu, orain arte munduko eta herri mailako ekonomia gidatu dutenekiko lehiatzeko abantaila askoz handiagoa izango du; azken horiek, gaur egun zaharkituta dauden baliabide, estrategia eta baloreekin ohituta baitaude.

Ikuspegia edozein dela ere, errealitate berriak definitzen dituzten kalifikatzaileak honakoak dira: balore berriak, baliabide berriak, giza kapitala, inteligentzia kapitala, ezagutza, balio erantsia, dibertsitatearen kudeaketa. Inoiz ez bezala, gaur egungo estrategia bezeroa (anitza dena) zerbitzatzetik abiatzen da: gurekin gelditzea lortu behar dugu, geureganatu, goxatu, bere beharrak aurreikusi eta beraganaino iritsi. Beti ere, ahalik eta diru kosturik txikienean eta bezero berri eta askotariko horiek nahi dituzten eta erabiltzen dituzten mekanismoen bidez. Enpresa, beraz, errealitate horretan behar bezala ekiteko malgutasunez egituratu behar da.

"Aldea Global" honen eremuen garapena, ekonomian biztanleria aktiboan ari diren emakume kopuruaren arabera neurtzen hasi dira.

- Transferentzia teknologikoa behartzen duten kalitatezko produktuen eskaeraren hezkuntzan duten parte hartzeagatik.
- Zerbitzu sektorearekiko duten behar handia, eta horrek alor horretan enpresa hazkunde handia eragiten du.
- Aisialdiaren sektoreari egindako ekarpenagatik.
- Emakumeak kontsumitzaile gisa, erosketen %85 erabakitzen duelako, produkzioaren ezaugarriak eta bereizketak erabakitzen ditu, eta baita herrialdearen moneta-masa ere. Eta horrez gain, langile moduan enprestan eta erakundeetan ematen den aldaketa kulturalaren eragilea da.

Gaur egun emakumeak sistema ekonomikoan lagunduko ez balu, ongizate eta birbanaketaren eredia hankaz gora jarriko litzateke. FORBES aldizkariak egindako azterketa baten arabera, gaur egungo enpresa onenak ez dira handiak edo gehien fakturitzen dutenak, ondorengoa egiten dutenak baizik:

- ingurugiroa babestu;
- beraien langileei begira giro pizgarri eta integratzailea sortu;
- langile adimentsuenak bertan geratzea lortu;
- dibertsitatea korporazio kultura gisa hartu;
- giza kapitala asebetetz, bizitza profesionala eta bizitza pribatua harmonian eramatea ahalbidetuz, etekin handienak lortzen dituztenak.

## **SOZIOEKONOMIA BERRI BATERAKO KUDEAKETA EREDU BERRIA ULERTZEN DUTEN ENPRESEN ADIBIDEAK**

Bizitza profesionala eta pribatua uztartzen laguntzeko asmoz beraien giza baliabideentzat giro egokia sortzeko gaur egun enpresek burutzen dituzten programen adibideak.



**IBM-** Etorkizunean enpresak izan dezakeen arrakastaren eta lidergoaren gakoa joera demografikoen ondorioz azaleratzen diren beharretan dagoela erabaki du. Bere programak giza kapitalaren aniztasuna integratzea du helburu, eta aldi berean, mundu mailan beraien langileek izan ditzaketan beharren barruan, bizitza pribatua eta profesionala harmonian uztartzea.

1984. urtean egindako azterketa batean, enpresako langileen absentismoa umeen gaixotasun onberek eragiten zutela ondorioztatu zuten. Ondorioz, IBMk umeak dituzten langileentzat informazio eta laguntza programak ezarri ditu, eta horri esker urtean 30 milioi dolar baino gehiago aurreztu ditu.

**3M-** Aspaldi, korporazio politika ekintzailea du. Bere giza baliabideak ideia berritzaileen negozio planak aurkeztera bultzatzen ditu, eta kanpoko batzorde batek aztertu eta gero aukeratu badira, proposatu zuen pertsonak enpresaren barruan garatuko du. Negozio berria gauzatzean, asmatzaileak berak negozioan parte hartuko du. 3M munduko enpresarik berritzaile eta dibertsifikatzaileenetakoa da, bere langile guztiek modu jarraian berritzaile izateko baimena izan ez ezik, horretarako sustatzen baitzaie.

**Ford-** Estatu Batuetan dituen 340.000 langileei PC bat eta Internetarako konexio bat oparitzen ari zaie hileko 5 dolarren truke. Familia osoa da horren onuradun, jakinduria maila hobetu eta familia osoaren erosketak eta kontsultak errazten dituelako. Fordek lortzen duen aurrezte maila garrantzitsua da, American Management Association-ek egindako azterketa baten arabera, Internet bidez egiten diren transakzio pertsonalen %70 lanorduetan egiten baitira.

**Corning-** Enpresako langileen segmentu guztietan inklusio politika egitea aukeratu du. Emaidza nabarmena izan da: sorkuntza nabarmen haztea eta absentismoa jaitea lortu dute gizonengan, emakumeengan, eta hainbat arraza, adin, kultura eta familia egoeratako pertsonengan.

**Bankers Trust-** Haur eta helduen larrialdietan laguntzeko programa jarri du martxan eta langileen %60k erabiltzen du. Lanera huts egiten dutenak gutxiago dira eta emaitzen igoera nabarmenak dira.

**XEROX-** Bezeroaren arretarako 30.000 pertsona ditu telelanean. Hiru aldiz eraginkorragoak dira eta 30.000 pertsona enpresan bertan edukitzeak azpiegi-

turetan duen kostu zuzena aurrezten dute. Hain zuzen ere, gastu orokorren %20, Los Angeleseko Barrutiko IRIS Bulegoak egindako kalkuluen arabera.

**Hewlett-Pacard-** Giza baliabide onenak eta dibertsifikatuenak dituela esaten du eta haien aburuz, enpresaren eginbeharra da langileek helburu korporati-boak lortzeko gehiago egin dezaten giro egokia sortzea. Dibertsitatearen kudeaketarako beste plan batzuen artean, HPk enpresaren akzioetan parte-hartzeko planak ditu; prestakuntzarako planak eta denbora sabatikoa; ordutegi- malgutasunerako eta urrutiko lanerako planak; haurren eta adinekoen zaintzarako laguntza; beka eta ikasketa laguntzak; familiak gonbidatzen ditu enpresak antolatutako ekitaldietara.

**Bank of America-** Enpresa horretako langileen kezka komunitateko bat lane-ko segurtasuna dela ikusi du. Horregatik, bere langile guztiei gaitasungabetze aseguru luze bat eskaini die eta kostu baxukoa izan arren, kultura eta jatorri guztietako bere langileek hautemandako balioa oso altua da. Programa da giza baliabideak bertan gelditzearen arrazoi nagusia, honela langileen txan-datzea saihestu egiten da.

**SAS Institute-** Doaneko osasun eta gimnasia zentroak egin ditu bere langile-entzat. Langileen %95ek erabiltzen du. Eraginkortasuna hazi eta talentu one-  
nen galera murriztu egin da.

Pertsona da, berritzailea izatea eta bere bizitza pribatua profesionalarekin uztartzea ahalbidetzen dion inguru egoki batean, eskualdeen garapenerako sozioekonomia berriaren gakoa.

Penagarria da politikaren erabakiguneetan dagoen emakumeak ez ulertzea bere ardura ere badela erakunde ekonomikoetako kargu erabakitzaileetarako emakumea promozionatzea. Emakumea erabaki ekonomikoak hartzen diren karguetan sartzen denean soilik abiatu ahal izango da bizitza pribatua eta pro-fesionalak uztartzeko prozesua; emakumeen zein gizonen onurarako izango den mugimendua. Eta, ostera ere, emakumeak izango dira XXI. mendeko eredu sozioekonomiko berri honen bultzatzaile nagusiak.

Ingurune berri honetan emakumeak garatu behar dituen gaitasunak:

- Arrakasta birdefinitu eta ez saiatu antzinako estereotipoak berdintzen.
- Lidergo jasangarrirako ahalmenak garatu.

- Adierazgarriagoa izan.
- Ikusgarria izan.
- Ibilbide profesionalerako eta bizitzarako plana egin.
- Bere euskarri, kontaktu eta aholkulari sarea sortu eta mantendu.
- Emakume gehiago bultzatu, enpresetan eta erakundeetan presentzia masa kritikoa sortzeko.
- Egungo eszenatokiaren errealitatea ezagutu.
- Arrazoiak zehaztu, arazoan konponbiderako prozesua hobetzeko.
- Lanak besteen esku uzten ikasi.

Eta ikuspegi berri batetik, garapenari irtenbide berritzaileak ematen lagundu.

Gaur egun ekonomia enpresa txiki eta ertainetan eta mikro enpresetan dago.

- EBko enpresen %92k 10 langile baino gutxiago ditu, eta lanpostuen %60 sortzen dute.
- Biztanleria aktiboaren %52 autoenplegatuta dago.
- Enpresen %45ek ez du langilerik langileen erregimen orokorrean. Mikro enpresari bihurtuz gero, lanpostu gehiago sortu eta ingurune soziala hobetuko litzateke.
- Eta mikro enpresak emakumeen eskuetan daude.

Ekonomia, sorkuntza berriko enpresen eta mikro enpresen eskuetan dago, Mikro Enpresaren Elkartek adierazten duen moduan. Europar Batasunean 3 enpresatik 1 emakumeek sortzen dutela kalkulatu da; Estatu Batuetan berriz, 3tik 2.

Enpresa handia aldiz, murriztu egin da eta ez du sortu lanpostu berri garbi bat bakarra ere azken 11 urteotan.

Munduko gure eremu honetan, XXI. mendean lanaren sorkuntza emakumearen esku egongo da.

Hori gerta dadin ingurune egokia sortzea komeni da:

- Sistemaren burokratizazioa ezabatu.
- Hazi kapitala, aingeru kapitala, mezzanine kapitalen fondoak osatzeko mekanismoak sortu, aipatutako enpresen martxan jartzea diruz laguntzeko.

- Eskarmentu handiko aholkulariz, aurre-jubilatutako profesionalez osatutako sistemak sustatu, beren esperientziarekin enpresari gaztea aholkatu eta gidatu dezaten.
- Nekazal ingurunea garatzeko programak sortu, lan egiteko eta bizitzeko modu berriak sustatzeko, belaunaldi berriak bertan gera daitezen; izan ere, ezagutza eta teknologia azpiegitura egokia duten landa eremuak baitira gehien garatu daitezkeenak.
- Enpresen kudeaketarako, teknologien erabilera eta ustiapenean prestatu.
- Informazioaren teknologiaren erabilera orokor bihurtu.
- Enpresa operatiboen haztegiak sortu landa eremuetan.
- Elkartzeak bultzatu, beste batzuekin batera esportazioak eta beste jardue-  
ra batzuk burutu ahal izateko.
- Jarduera ekonomiko eta sozial guztietan Internet erabili bitarteko moduan.
- Eta abar.

Emakumea da enpresaririk onena, enpresarenaz gain izaera soziala ezartzen duelako bere negozioen integrazioan, bai barne mailako ingurunean eta bai kanpo ingurunean ere (bezeroak eta hornitzaileak). Horiek dira Europar Batasuneko Agenda 2000k proposatzen dituen politikak eta, aldi berean, gaur egungo eta etorkizuneko negozioen arrakastaren gakoak.

Emakumeak erabateko praktikotasuna ematen dio bere kudeaketari.

Emakumeak arrisku gutxiago ditu, ez dakielako zer den defizitarekin lan egi-  
tea.

Emakumeak dibertsitatea bere nortasunaren berezko atal gisa kudeatzen du, eta horrek lehiatzeko abantaila emango dio XXI. mendearen eredu eta esze-  
natoki berrietan.

---

**SOLASALDIA**

---



---

# SOLASALDIA

---

## 1.GO GALDERA TXANDA 2001/11/12

### (GALDERA)

“Nire galdera Aliciarentzat da. Bertute eta baloreei buruz ari zinenean zure azken hausnarketa oso interesgarria iruditu zait. Testuinguru berrian, Informazioaren gizartean, Ezagutzaren gizartean sumatzen den eremu berrian, neuri egonezina sortzen didan gai bat da. Zuk azkena egin duzun hausnarketa hori, hori da egitea oso garrantzitsua iruditzen zaidan galdera: boterea zertarako. Izan ere, boterea, berdintasuna, parte hartzea, boterearen banaketa, berriro ere lehiakorrak izateko eta beharbada intsolidarioak izateko bada, hori burugabea da. Gustatuko litzaidakeena zuk balore eta bertute horietan sakontzea litzateke”.

### (ALICIA PULEOREN ERANTZUNA)

“Beno, teorialariak –Giligam esaterako– zera esatera iritsi dira: emakumeak erlazionalagoak izango ginatekeela, hau da, ez eraginkortasun instrumentalaren hain aldekoak, berehala zerbaitei lortzeari begiratzen dion eraginkortasunari dagokionez; eta bai besteengana interesatuagoak. Giligam, emakumeek egin ditzaketen ekarpenei buruz egindako ikerketa bat medio, oso ezaguna da. Eta hau esaten dut, niri neuri ere sortzen didan errezelo eta guzti, nik ez baitut uste emetasunaren mistikotasun baterantz joan behar dugunik, uste baitut guztiok ezagutzen ditugula ezaugarri horiei inolaz ere erantzuten ez dieten emakumeak, hotzak eta etekinzaleak, etab. Hau da, giza funts komun bat dago

eta gero norberaren bariazioak. Hori ukaezina iruditzen zait. Dena dela, esan dezakegu, heziketa edo kultur herentziagatik, estatistikoki arituz, badela ohi-tura bat, joera bat, zerbaitez arduratzeko, zerbaiti arreta jartzeko. Ba noski, zeintzuk izan dira emakumeen betebeharrak mendeetan zehar. Hain zuzen ere, besteengandik arduratzea: bizitzaz arduratzea, bizitzaren kontserbazioaz, ahulez, haurrez, zahar eta gaixoez arduratzea. Orduan, zaintzaren etika litza-teke desberdintasun horren alderdi bat. Bi aukera daude: lehenengoa, emakumeak zoragarriak garela esatea, eta zaintzen hain onak garenez, zaintzen jarraituko dugu. Bigarrena, balore hauek unibertsalizagarriak direla esatea, eta, beraz, espezie guztiarentzat aldarrikatzen ditugu. Ni bigarren aukeraren aldekoa naiz, eta gainera posibletzat jotzen dut. Uste dut, kasu indibidualetan unibertsalizazio hori ematen den kasuak ezagutzen ditugula.

Beraz, entzuteko gaitasuna, zaintzarako gaitasuna dago, eta teorialari batzuk diotenez, naturarekin nolabaiteko hurbiltasun bat. Mugimendu ekologistaren oinarrietan, emakume ugari dago munduan, eta badirudi horrek emakumeek bizitzaren sostenguaren oinarriarekiko kezka azaltzen duela; hau da, azken finean planetarik gabe gelditzen bagara ea zer egin behar dugun. Orduan, horiek lirateke ezaugarrietako batzuk; lehiakortasun txikiagoa, erasokortasun txikiagoa, eta ondoren (batez ere) errukitasuna, enpatia eta zerbaitekin sentitzeko gaitasuna. Baina berriro diot, hau guztia kontu handiz hartu behar dela, ezaugarri estatistikoak baitira, ez inolaz ere gizabanako guztientzat baliagarri diren ezaugarriak, bai baitaude perfil horrekin bat ez datozen emakumeak, eta alderantziz, bat datozen gizonak”.

### (GALDERA)

“Nire parte hartzea ere Alicia Puleori zuzendurik dago. Berdintasunaren emetasuna izenaz ezagutu genezakeena helburu duen defentsa planteatzen duzu zuk. Horren aurrean, androzentrismoari kritika deitu diozuna legoke, eta ez dakit desberdintasunaren feminismo moduan ezagutu beharko genukeen.

Ondorengoa zehaztea gustatuko litzaidake: uste dut historikoki berdintasunaren feminismoa –ezin da orokortu, ordea– oinarritzkoa izan dela. Eta berdintasunaren feminismo horri esker, gaur egun bizi dugun egoerara iritsi gara. Nik ez diot uko egin nahi, ezta baliorik kendu ere, eta uste dut, berdintasunaren feminismo honekin, gizonezkoen erako homologazioaren paradigma dei



genezakeen zerbaitera iritsi garena. Nolabait esatearren, lege berdintasun bat lortu dugu (ongi merezia eta beharrezko genuena). Baina zuk ongi adierazi duzun bezala, lortu dugun berdintasuna benetakoa ez dela uste dut. Beraz, berdintasunaren feminismoaren ikuspegitik, kosta egiten zait, benetako berdintasun hori lortzeko nola jarraitu behar dugun ikustea. Eta uste dut, esentzialismotan sartu gabe, desberdintasunaren feminismitik emakumeari buruz jardutea ez dela oso egokitzat jotzen. Esentzialismoetan, agerian dagoen arrisku bat ikusten dut, emakume guztientzat orokortu ezin izateaz gain, antzeko gizarteratze diferentziala izan arren, klaseak, arrazak edo etniak, eta beste hainbat faktore daude. Eta, ez dakit diferentziaren feminismoa deitu edo zu zehazten ari zinen bideko feminismoa; hau da, balore horiek, gizaki guztion kolektiboarentzat garrantzitsuak direla pentsatzen badugu, unibertsalizatu egin beharko genituzkeela. Aipatutako baloreak, heziketarik edo bilakera historikoagatik emakumeengan garatu dira. Beraz, nire iritziz, ildo horretatik hasi beharko genuke mutilengan eragiten, heziketaren arloa aztertzen badugu, neskatilak nahiko ongi ikusten baititut. Oraindik ere badira auto-estimua arazoak eta antzeko kontuak, baina bere jarrera aldatu ez dutenak mutilak dira. Lehen aipatu duzunarekin batera, Emakundek ekainean antolatu zuen kongresuan ikusi zen bezala, nabaria da badela gizonezkoen nazio arteko mugimendu bat, maskulinitasuna berraztertzen ari dena. Beno luzatzen ari naiz, nola ikusten duzu zuk hau guztia? Nik uste dut, esentzialismotan sartu gabe, desberdintasunaren feminismoaren ikuspegitik, berdintasun errealeko bat eraikitzeko bidean urratsak eman ditzakegula. Berdintasunaren feminismoa, gizonen ereduarekin berdindua izan denez, agortu egin zaigula”.

#### **(ALICIA PULEOREN ERANTZUNA)**

“Beno, berdintasunaren feminismoaren defentsa baino gehiago, ekarpenak gehitzearen aldeko defentsa egin dudala iruditzen zait. Ekarpenak gehitzea, izan ere, aukera berdinetan oinarrituriko politikek izaera horixe baitute. Eta horrez gain, etorkizunera begira daude, ez baitugu guztia lortu, oraindik lortzeko gauza asko geratzen baitzaigu. Lege berdintasuna lortu dugu, baina zuk zeuk esan bezala, benetako berdintasuna oso urrun dago oraindik, eta horretarako daude, hain zuzen, ekintza positiborako politikak, berdintasun planak. Hala ere nabarmendu beharrekoa da berdintasunerako plan horiexek beste ikuspegi horretatik datozen osagaiak sartzen ari direla, kasik plan gehienek horixe egiten baitute. Hiria femeninotzat jotzen diren ekintzetara moldatu,

nahiz gizonek zein emakumeek eraman aurrera ekintza horiek, baina garraioak moldatu. Foru aldundiaren foru planean ere ikusi dut. Beraz, feminismoen defentsa baten ordeztu, integrazioaren defentsa litzateke. Integrazio osoa, horrelako integrazio bat maila teorikoan, ezinezkoa da, aurrekontuak desberdinak direlako. Praktikan, batzuetan integrazioak teoria mailan baino errazagoak suertatzen dira. Gauza batean zurekin erabat ados nago: emakumeen kolektiboak jasan duen garapena, gizonezkoen kolektiboak jasandakoa baino handiagoa izan da. Hor bada nolabaiteko atzerapen bat, bere logika baduena, emakumeen egoera deserosoagoa baitzen. Ondorioz, logikoa da aldatu eta moldatzea, eta emakume askok ondokoa adieraztea: lan publikoaren munduko gaitasunak, eta etxeak edo mundu pribatuko gaitasunak gehitu daitezkeela bere lanean. Eta gizonezkoek aldakuntza hori aurrera eramaten dutenean, gauza bera frogatu ahal izango dutela; eta egia dela lagundu egin behar zaiela. Nik baietz uste dut; eta egiteko dagoen zerbait da”.

#### **(GALDERA)**

“Ana, zuk esan duzunez, esparru politiko eta enpresarialetan, gizonezkoen presentziari buruzko datuei dagokienez, ezer gutxi erabaki ahal izango dugula iruditzen zait, beraiek baitira boterea dutenak. Orduan, zer egin dezakegu? Emakumezkoen lobby bat osatu beharko dugu, boto absentismoko hauteskunde garaietan, benetan emakumeak egon daitezzen zerrendetan. Eta era berean, enpresetara ere zabaldu dadin, etab. Beraiek hor dauden artean, mugak ere bere horretan jarraituko baitu”.

#### **(ANA COUCELLOREN ERANTZUNA)**

“Mila esker. Nik ez dut irtenbiderik ezagutzen, baina uste dut Aliciak esandakoa egia dela. Bere esanetan, honetan guztian, aztertu behar dugun auzia honakoa da: emakumeak boterearen parte izaten hastea. Hau urtero haziz doan zerbait da, urtean 2 puntu hain zuzen, baina egia zera da, emakumeak benetan eredu androzentrista batean integraturik daudela. Hori oso larria da nire ikuspuntutik, berdinaletasun eta diferentzialismoaren arteko laburpen bat egitea gustatuko bailitzaidake, zaila dirudien arren, praktikan errazagoa baita”.

Historikoki pertsona baikorra naizen arren, uste dut oso zaila gertatzen dela ezberdina izatea.

Espero dut eredu androzentrikoan integratzeko prozesua ez dadila izan emakumeen masa kritikoaren atalaren etorrera prozesua bezain azkarra, aldatu ahal izan dadin, bestela ezin izango dugu ezer aldatu. Horregatik ari naiz borrokan indartsu, beti neurri positiboen alde. Eta ez dut nahi, sistema demokratiko batean, gizonek bere betiko argudioak erabil ditzaten, neurri positiboen aurka. Zergatik? Betidanik, sistema demokratikoek neurri positiboak ezarri baitituzte taldeen ordezkaritza hobetzeko, edo gizarte kategoriak edo iragankorrak diren hiritar batzuen ezaugarriak. Adibidez, zergatik banatzen duzue Euskadiko lurraldea hauteskunde barrutietan? Zergatik? Gaur hemen bizi banaiz eta bihar agian beste nonbaiten. Demokrazia eraikuntza bat da, une historiko konkretu batean bizi diren belaunaldien emari espezifikoari esker haziz doan eraikuntza bat. Beraz, uste dut une historiko honekin bat datorren belaunaldien emari espezifikoak sistema demokratikoan funtsezko aldakuntza izan behar duela.

Demokraziaren kontzeptua baliagarri gertatzen zaigu oraindik ere, bakarra da, txarretan onena, ezta?, ez baitago besterik. Dena dela, sistema demokratikoen aldakuntzak azkarra izan behar du. Formula hau agorturik dago, erabat agorturik, eta ikusten da zer gertatzen den munduan eta berdintasun ezak zer ekar dezakeen. Sistemak neurria berehala gehitu ditzan ari naiz ni borrokan, edo horretan saiatzen nahiz behintzat. Neurri hauek, emakumeen sarrera ugari bat erraztuko dute, eta era horretan eredu integratu aurretik, zera ahalbidetzen da: masa kritikoaren atalasa gainpasatzea. Une honetan horixe da arazo larria. Neurri artifizialak gizakiak ezarritakoak direnez artifizialak diren neurrian, esan behar duguna da demokraziak beti hartu izan dituela neurri artifizialak”.

## 2.EN GALDERA TXANDA

2001/11/12

### (GALDERA)

“Kaixo, nire galdera Begoña San Joseri zuzendu nahi nioke. Nik desio bat adierazi nahi dut, eta ea desio honen bitartez, jarraibide bat eman diezadakezun edo hori lortu ahal izango denaren itxaropenik eman diezadakezun. Ni adin mugatukoa naiz jadanik, eta agian honez gero ez dut ikusi ahal izango, baina nire bilobek ikusi ahal balezate, gustura egongo nintzateke. Eta zera da, bizitza osoan zehar entzun izan dudana esaera hau: "Emakumeek gizonen pare aginduko balute, herriak eta herrialdeak lasai-lasaiak izango lirateke". Honekin zera adierazi nahi dut, ea parean joatea lortzerik badagoen, bakoitza erdiaren jabe izanda. Esker mila”.

### (BEGOÑA SAN JOSÉREN ERANTZUNA)

“Lehenengoari baietz esatera ausartzen naiz. Ziur nago parekotasuna lortuko den zerbait dela. Baina herriak eta herrialdeak lasai-lasaiak izatea, horregatik bakarrik, ez naiz egiaztatza ausartzen. Gainera, uste dut, lehenago kanpoan genion bezala, zuk zeuk ikusi ahal izango duzula, eta ziurrenik hemen gaudenon gehiengoak. Iruditzen zait, 20 urteko prozesu batean, prozesu luzeegia ez izanik, parekotasun demokrazia bat lortu ahal izango dugula, adimenez jokatzeko badugu eta elkarlanean arituz gero. Kontuak kontu, nik ez dut uste parekotasuna gizarte arazo guztiak ezabatzeko makila magikoa denik. Baina, dena den, pertsona askoren zoriontasun ezaren eragile asko ezabatzen lagunduko du”.

### (NADINE DU BOIS-EN ERANTZUNA)

“Emakume honek esan berri duenari zerbait gehitu nahi nioke; lehen esatea ahaztu zaidan zerbait. Behatoki honen ondoren, alderdi politikoak kuoten gaia jorratzen hasi ziren, eta alderdi askok barne kuotak ezarri zituzten; hau da, ziurrenik hurrengo hauteskundeetarako jadanik heren bat edo bikoia izan-

go da. Badaude jadanik pareko zerrendak aurkeztuko dituzten bi alderdi politiko”.

### **(GALDERA)**

“Gaur honi buruz hitz egin ez duen arren, Begoñari zera nahi diot galdetu: Emakumeen Kontseiluak sortzea izan al daiteke estrategia bat boterea lortu eta herri mailatik lan egiteko? Nahiz eta horretarako zailtasun asko egon, izan ere, bada jende bat, zera esaten duena: boterearen aldetik, burutzen duten politika legezkatzat jotzeko, emakumeak erabiltzeko formula bat izan daitekeela. Zailtasun guzti hauek kontuan hartuz, non egongo litzateke neurria eta nola dakusazue Madrilgo Emakumearen Kontseiluaren esperientzia?”.

### **(BEGOÑA SAN JOSÉREN ERANTZUNA)**

“Galdera egin izana eskertzen dizut, izan ere, denbora gaizkien banatu dudan zatiari dagokion kontua da hau, eta ez dut sakontzeko aukerarik izan.

Emakumeen erakunde eta erakunde publikoen arteko elkarrizketa gune bat sortzea, eta bereziki herriko botereekin, hau da, udaletxeekin elkarrizketa gune bat sortzea, pareko demokraziaranzko aukera estrategiko oso garrantzitsu dela iruditzen zait. Bada zinegotzi emakumezkoen eginiko konpetentzia bezala ikusten duenik ere, baina, alderantziz da, berorientzat laguntza bat baita. Bestalde, emakume mugimenduaren politizazio bat ere bada. Nire ustez, emakumearen gizarte egoera aldatzeko orduan, mesedegarri ez zaigun egoera despolitizatzaile batean eroso sentitzen da emakume mugimenduko sektore zabal bat. Beno, guk geure taldetxoak dugu, geure bilera burutzen dugu, geure buruak geuk kontzientziazten ditugu, eta elkar ikusten dugun hogeion artean elkar indartzen dugu. Baina, ez gara arduratzen, adibidez, gure herriko emakumeen egoera orokorraren aldakuntzaz. Gaur goizean ere hitz egin dugu horri buruz, botoa emateko emakumearen eskubideari buruzko eztabaidaren inguruan esaten zen gauza bera da; esan ohi zen emakumeek ez zutela behar adina prestakuntzarik. Emakumeen erakundeetako emakume militanteok ez gaude politikarako prestatuta, noski, politikoak ez baitira inoiz gugana hizketakide gisa zuzendu. Beraz, demokrazia, eta orain aipatuko dugun demokrazia partehartzailea, erabiliz bakarrik ikasten da. Horretarako

ez dago unibertsitaterik, hau da, "Emakume Perfektuen Elkarte"-ko militante izateko. Ondorioz, instituzio politikoek ahotsik ematen ez badizute, ez duzu ahots hori erabiltzen jakingo. Eta uste dut, horretarako oso une egokian aurkitzen garela. Laburpen gisa, udaleko osoko bilkurak Emakumeen Kontseiluaren Araudia onartzea, ez da makila magikoa. Horrek ez du magia-rik sortzen, baina bide bat zabaltzen du. Eta hor, emakume politiko, edo beste era batera esanda, instituzio politikoetako emakumeak, eta emakume militanteon artean konplizitate bat sortu behar dugu. Horrek bioi lagunduko digula konturatuko gara”.

### **3.EN GALDERA TXANDA**

**2001/11/12**

**(GALDERA)**

“Erabat mindu nau Anak esan duenak: zenbait irakaslek bere gelako neskatilak ez dituztela aintzakotzat hartzen, zenbat dituzten esaten ez omen zekiten. Eta azkena esandako hitzak zoragarriak iruditu zaizkit”.

**(ANA VARGAS-EN ERANTZUNA)**

“Bai, horrela gertatzen da. Gutxienez horrela izan da ezkutuko curriculumari buruz egindako lehen ikerketetan. Eta nik dakidala, oraindik ere horrelakoak gertatzen dira. Egia da emakumezko irakasleek, gizezkoek baino gehiago, gai honi buruzko kontzientzia gehiago hartzen hasi direla. Baina egia da hitz egin duguna, batzuetan eskolan ez dela ikusten mutilak eta neskak daudela. Dagoen patroia, daukagun irudia, gizezkoena bakarrik dela alegia. Gertatzen ari den prozesu bat da, neskak ez dituzu aipatzen, ez dakizu daudenik ere, existitzen dutenik ere. Hala ere, positiboa den zerbait gertatzen ari da, zerbait ona ari da eraldatzen. Gutxi edo gehiago, guk ere zerbait esan behar dugu. Esan nahi dudana zera da: aldatu dena niri gutxi dela iruditu arren, nire amari asko dela iruditu dakioke. Gutxi edo asko den, norberak bere bizitzari begiratzuz esan behar du. Eguneroko bizitza eta eguneroko betebehareei begiratzuz. Beraz, ni ez naiz baikor sentitzen –oh! Zein polita den hau guz-

tia!-, ez da egia, baina dauden gauzak mahaigaineratu beharra dago. Nik adibidez heziketa telebistarekin elkarlanean jarduten dudanean, zenbait programa burutzen ditugu, eta Martxoaren 8a iristean, normala da egun hori ospatu nahi izana. Baina jadanik aski da, beti falta denari buruz jarduteaz. Nola esango diot nik neskato bati hau edo hura egin dezan, eredu positibo batzuk aurkezten ez badizkiot; eta arrakasta izaten ari diren, nahi dutena egitea aukeratzten duten emakumeen eredurik erakusten ez badiot. Ez dizkiot liburuetan bakarrik erakutsi behar, bizitza errealean ere erakutsi behar dizkiot. Badira italiar emakumezko filosofari batzuk ondokoa esaten zutenak: "emakume batek aske izan nahi dezan, gutxienik aske den emakume bat badela jakin behar da" ”.

#### **(BERTARATUTAKO PERTSONA BATEN HAUSNARKETA)**

“Azkena aipaturiko horrekin loturik, emakume zientzialarien argazkien transparentziak erakutsi dituen pertsona zoriondu nahi nuke. Zuk esan berri duzun ideiaaren ildotik doa eta. Beraiez hitz egiten dugu, baina hor ikusten ditugunean, badakigu izan zirela eta badakigu nolakoak izan ziren. Beraz, ekarri izanagatik zoriondu nahi dut. Eskerrik asko”.

#### **(GALDERA)**

“Galdera bat egin nahi nioke Ana Vargasi. Zuk esan bezala, ezkutuko curriculum esplizituei buruz 20 urtez sakondu da dagoeneko. Gainera, pentsatzen dut erakunde ofizialekin elkarlanean egingo dela, hau da, Hezkuntza ministerioa eta irakaskuntza inguruko beste zenbait erakunderekin. Sarritan entzun izan dugu, testu liburuak berriro begiratu direla eta abar. Baina dena dela, kanpotik begiratzuz behintzat, nik bezala irakaskuntzan jarduten ez duen norbaiten ikuspuntutik, ez dirudi aurrerapauso handirik eman denik. Izan ere, kasu askotan, arazo mota berdinak aurkitzen ditugu oraindik, edo eskoletan erakusten diren curriculum motak berberak dira. Edo guri gustatuko litzaigukeenarekin alderatuz, aurrerapauso gutxi ematen da eskoletan. Beraz, nire galdera ondokoa da: Hezkuntzako curriculumak emakumeen behar eta esku-bideetara moldatzeko urratsak, nola ikusten dituzu? Zenbat denbora gehiago igaroko da, herrialde honetan, izugarritzko akatsak dituzten testu libururik aur-

kitzea ezinezkoa izan arte? Noiz arte jasan beharko dugu, bizitza pribatu bat izango duten, bere kasa moldatu eta gizaki bezala bere buruaren garapena izatera heldu behar duten pertsonen aipamenik ez egitea? Noizko, amatasuna eta aitatasuna bezalako gaiak eskola barruan azalduko dituen testuliburuak? Zenbat urte falta zaizkigu? Zergatik ez da behar adina aurrerapauso ematen esparru honetan, zuk esan bezala, 20 urtetik gora badaramatzagu gai hau sakonean aztertzen?”.

### **(ANA VARGAS-EN ERANTZUNA)**

“Alicia Puleok gaur goizean esandakoa gertatzen zait niri ere. Ezin dut esan zenbat urte izango diren, nik espero dut ez izatea 475 urte Lanaren Nazioarteko Erakundeak dioen bezala. Ez dakit zenbat urte izango diren, baina gogoan dut 12, 13 eta 14 urte nituenean, zein liburu erabili nituen nire ikasketetan. Aurrerago, unibertsitatean nembilela, liburuak baino gehiago, emakumearen ikasketa mintegietara joateko aukera ere gogoan dut. Mintegi horietan, historia androzentrikoa baino zerbait gehiago ikasteko aukera izan nuen, baita ikasi ere. Kontua zera da, orduetik hona gauzak aldatu egin direla. Batik bat, Erreforma Legeaz geroztik, testu liburuen zenbait aldakuntza gertatu dira. Heziketa kompetentziak jadanik transferituta egoteak ere badu bere garrantzia. Ez da jadanik ministerio bat, instituzio bakar bat, testu liburuek nolakoak izan behar duten adierazten duena. Jakingo duzue badaudela gutxieneko baldintza batzuk, derrigorrez bete beharrekoak, eta ondoren autonomia bakoitzaren esku geratzen da, testu liburu batzuk garatzearena. Dena dela, testu liburuak egiten dituzten editorialak oso argi ibili dira, eta gehituz joan diren gauza berriak sartu dituzte beraien liburuetan. Gertatzen dena da ez direla egun batetik bestera ematen diren aldakuntzak. Hau da, 20 urte eman arren zenbait gauza egiten, aurkakoa egiten eman diren urteak askoz ere gehiago direla. Ez dut baikorregiaren itxura azaldu nahi, baina urrunegi joan gabe, duela 10 urteko liburuak begiratzen badituzu, eta gaur egun daudenekin alderatu, ikusiko duzu ari direla zenbait aldakuntza sartzen.

Nik uste dut une honetan, beste zenbait aldakuntza gehitu behar direla, horregatik esan dut lehenago oraindik ere zenbait arazok bere horretan dirautela. Arazo horiek aztertu egin behar dira eta datuak interpretatu, gaur egun ditugun baldintzen arabera. Ezin ditugu egoerak duela 20 urteko ikuspegi beretik



aztertu, eta ezin dugu orduko galdera berberak egiten jarraitu. Ezin dizut besterik esan”.

**(TERESA NUÑOREN PARTE-HARTZEA)**

“ Nire ustez, editorialek ezin dute ikastetxeetan irakasten denaren jabe izan.”

**(ANA VARGAS-EN PARTE-HARTZEA)**

“Ez, editorialak ez dira jabeak, baina aintzakotzat hartu behar dituzte liburuek izan beharreko gutxieneakoak. Gutxieneako hauek, Heziketa eta Zientzia ministerioak ematen ditu jakitera, baina ondoren horien garapena autonomia bakoitzaren esku geratzen da”.

**(BERTARATURIKO PERTSONA  
BATEN HAUSNARKETA)**

“Guztien artean koordinazio bat badela, edo behintzat egon behar duela kontuan hartuz, zenbait irizpide ezarri edo betearazteko, zalantza bat sortzen zait: zenbateraino ari dira editorialak behartzen, arazo honen inguruan sakonki lan egin dezaten. Dena dela ez dut esan nahi honekin, liburuetan akats bila ibili behar denik, baina kontua da, guzti hau alda dadin inork ez duela aurrerapauso erabat zehatzik ematen. Antzeko zerbait gertatzen da curriculum diseinuekin. Nik ez dut ulertzen zergatik ez diren irakasten oinarri-oinarrizko lanak: sukaldean aritzea, lisatzea, arropa garbitzea, etxea administratzea. Azken finean, nola antolatzen duen nork bere burua bizitza pribatuan”.

**(TERESA NUÑOREN HAUSNARKETA)**

“Nik gehitu nahi nuke, neuk ere ez dudala datarik. Anak testu liburu dezente, DBH-ko zientzia liburuak eta Batxilergoko Fisika eta Kimika liburuak aztertu ditu. Guk ikerketa txiki bat burutu genuen, eta uste dut Anak ikerketa zehatzagoa gauzatu zuela, 10 editorial zirela uste dut. Esan daiteke lehengo

estereotipo sexista eta diskriminatzaile batzuk desagertu direla, horrela izan da behintzat Zientzia liburuetan. Badirudi saiatu direla, hizkuntza "hezitzaile-agoa" eta osoagoa erabiltzen, pertsona, irakasle... bezalako hitzak erabiliz. Nahiz eta alumno eta profesor bezalako hitzak erabiltzen jarraitzen duten. Uste dut aldakuntzak, lagun batek dioen bezala, "aldakuntza kosmetikoak" izan direla, bai sexismoaren ikuspegitik, zein ikuspegi didaktikotik begiratuz gero. Erreformako nomenklatura guztia hartu da, eta funtsean, astakeria batzuk izan ezik ez da gauza handirik aldatu. Adibidez, emakume zientzialariak aipatzeko orduan, Maria Esclodosa edo Madam Curie bakarrik aipatzen jarraitzen da, eta gainera batzuetan Curie senar-emazteak izenarekin aurkezten zaizkigu. Emakumeak, zientzietako testu liburuen arabera, ez dute geologian, ez kimikan... jarduten. Errealitatearen atzetik doaz liburu hauek, gaur egun, emakume biologoak, gizonezkoak baino gehiago baitira. Bestalde hizkuntzaren kontua ere hor dago, nabarmena izanik. Aldakuntzak "kosmetikoak" izatea gaindituz, sakonak izatea espero dut. Ez dute gehiago luzatu nahi, eta bukatzeko esan nahi dut, Ana bezala, ni ere baikor azaltzen naizela, editorialei kontrol bat ezarri baitzaie. Dena dela, ez dut uste gaiari buruz sako-neko hausnarketarik egin dutenik”.

#### **(BERTARATURIKO PERTSONA BATEN HAUSNARKETA)**

“Metro Bilbao S.A. enpresarentzat lan egiten dut. EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundeak, enpresa saritu du "Aukera Berdintasunaren Erakunde Laguntzailea" aitoren bidez. Sari hori, Aukera Berdintasunaren Optima programan kokatzen da. Horri buruzko hausnarketa bat egin nahi nuke, ni baino enpresako Administrazio eta Finantzetako Zuzendaria; gu zuzendaritza talde bat gara, gerente bat eta lau zuzendarik osatua. Kasu honetan hiru zuzendari gizonezkoak dira eta ni emakumea. Gaur egun 446 pertsonak egiten du lan gure enpresan, eta denbora gutxi barru, beste ehun eta hogeita pasa pertsona sartzekoak dira, orain zabaltze prozesu batean sarturik gaude eta. Gure enpresan programa honen sarrera bultzatu izan ez banu, ez litzateke enpresa barruan sartuko. Esan nahi dudana zera da: ni nire Zuzendari Ekonomiko-Administratibo-Finantzarior lanetara muga nintekeen, lana bukatu ondoren lasai etxera joan eta nire aldetik besterik gehitu gabe. Baina uste dudana da erabakitze eremuetan eragiteko aukera dugun emakumeok izan behar dugula gero erantzukizun puntu gehigarri hori jarri behar dugunak.

Badakit oso zaila dela, eta gainera barre txiki, istoriotxo eta beste zenbait gauza jasan beharra dago, gaia aurrera eraman ahal izateko”.

### **(INMA PARRAREN HAUSNARKETA)**

“Normala da gizon baten burutik ez irtetea ekimen horrek, boterea bere eskuetan baitago, noski. Eta boterea uztea asko kostatzen da, bai gizonezkoen kasuan, zein emakumezkoenengan. Zuk egindakoa itzela da, noski. Eta horixe egin beharko litzateke. Zuk hain era bikainean bete duzun helburu hori, emakume langile guztiok gure betebeharrak bezala hartu beharko genuke maila guzietan. Uste dut, gizonzkoak gure alde jartzea ere guri dagokigun zerbait dela. Hori oso zaila da, botereari buruz esan dudanagatik, gizakiak beregan duen zerbait baita. Nire ustez, gero eta gizon gehiago konturatzen dira ondokoak: hobeto lan egin eta bizitzen direla emakumeekin, gizonekin baino. Hain zuzen ere, emakumeok guregan hartzeko gaitasuna daukagu, eta gizonzkoek ez. Gizonek beraien artean garatzen duten lehiakortasun hori, emakumeok birmoldatu egiten dugu. Gaur goizean, zerbait edanez erabakiak hartzen direla esan da. Beno, ba har dezagun kopatxo bat beharrezkoa bada. Garrantzitsuena ez da kopatxoa hartzea, norekin hartzen duzun eta behar den erabakia hartzea, baizik. Baina benetan, gizonak gure alde jartzen saiatu behar dugu. Badut esperientzia gizonekin talde lanean, eta egia esanda harreman zoragarriak sortzen ditugu”.

### **(GALDERA)**

“Inmarengana zuzendu nahi nuke, eta baita ere Bizkaiko Foru Aldundiarengana, egun itzela igaro baitut txosten eta txostengile guztiekin, eta oso pozik noa hemendik, eta oso baikor, Inmak azkena esandakoarekin. Uste dut, enpresek, eta batez ere enpresa handiek, "txipa" aldatzen hasi behar dutela. Izan ere, zenbait merkataritza gunetan zera gertatu zait: nire senarra eta biok gune bereko bazkide izanik, bakoitzak bere txartelaren jabe delarik, senarra zoriondu dute bere urtebetetzean, eta erosketak egitera joaten dena ni izan arren, nitaz ez dira oroitu. Hori dela medio, kexua azaltzera joan behar izan dut, behin baino gehiagotan. Uste dut ez dugula isilik egon behar horrelako egoera baten aurrean, zeresan ugari daukagu eta. Gauza horiek guztiak, ahoz adie-

razteaz gain, idatzi ere egin behar ditugu, edozein delarik joaten garen lekua, apur bat mindurik sentitzen badugu gure burua”.

**(BERTARATURIKO PERTSONA  
BATEN HAUSNARKETA)**

“Baikorra izaten saiatzen naiz, eta uste dut nahikoa baikorra naizela, baina hala ere ez zait egokia iruditzen hemendik gezurrezko baikortasun batez alde-gitea. Errealitatea dena da, eta emakumeok gauden tokian gaude. Egia da emakumeok gauzak egiteko izan dezakegun era ezberdina dela, emakumeen sareak sortu, eta abar. Elkarri bostekoa emateko moduan gaude. Ildo horretan, uste dut bakoitzak bere eragite-esparruan, bere eguneroko bizitzan, lanean eta abar, nahikoa lan dugula lehen esandako gehigarri horrekin. Hain zuzen ere, gure burua hezi, boterea gureganatu, berreskuratu, onar dezatela nor garen eta zer-nolako boterea dugun. Ez zait bidezkoa iruditzen nahi ez dugun norbaitekin kafe bat hartzera joan beharra, eta are gutxiago erabakiak dagokien leku-tik kanpo hartzea. Emakumeok aldakuntzan parte hartu behar badugu, hori ere aldatu behar baitugu. Beraiek gaizki sentitzen badira, hitz egingo dugu, eta galdegin diezagutela. Dena den, badugu nahikoa lan era ulergarri, lasai eta inposizio gabea adierazten, eta beraz ez diezagutela lan gehigarri eman, kafe bat hartzera joaten ez banaiz haserretu ez daitezen azalpenak ematen hasi behar badut. Emakumeok gure burua zaindu eta babestu egin behar dugu, egiten ari garen lan hori guztia egin ahal izateko. Eta egiten jarraitu nahi dugu. Mila esker”.

**(BERTARATURIKO PERTSONA  
BATEN HAUSNARKETA)**

“Esparru guztietan gizona eta emakumearen artean oreka lortzeko orduan, gizarte aldaketa sakon baten beharraz hitz egin nahi nuke nik. Batez ere hezkuntzaren esparruetan. Eta hau diot, gure enpresan Optima Planaren aplikazioaren barne, estamentu, ogibide, esparru... desberdinetako gizon-emakumeen osaketa aztertu delako. Eta noski, asko saiatu arren, hasteko lehengaiak falta dituzunean, zaila gertatzen da helburuetara iristea. Une honetan lanerako jendea hartzeko asmotan, aukeraketa prozesu batean dihardugu. LH II.etik hasita diplomatuak bitartekoa izan ohi da jendea, eta lehen aukeraketa frogak

egiten hasten dira. Behin froga horiek pasa ondoren, ikastaro bat egiten dute enpresan lanean hasi aurretik, eta konturatzen zara 126 pertsonaren artean 3 emakume besterik ez daudela. Enpresaren barruan, oso zaila izaten da mantentze mekaniko-pneumatiko edo elektriko-elektronikoekin zerikusirik duten esparruetan emakumeekin topo egitea. Normalki, arlo horietaz arduratzen direnak LH II edo Ingeniaritza Teknikoetatik etorri ohi dira. Esparru hauetan, emakumerik ez egotean, oso zaila gertatzen da enpresan oreka bat izatea. Emakumeak animatu nahi ditut era horretako ikasketetan trebatu daitezen, aurrerantzean enpresetako esparru guztietan ez baikara ordezkaturik egongo bestela. Defizit hau dakarren gizarte eta heziketa gai honi oso garrantzitsu deritzot”.

**(BERTARATURIKO PERTSONA  
BATEN HAUSNARKETA)**

“Ez dut hemendik alde egin nahi esan gabe emakume asko eta asko garela, emakume elkarte asko eta etxeoandreak, ez garenak ez enpresari, ez kudeatzaile, ezta zuzendari ere. Emakume arruntak gara eta gure "auzo elkarteetatik" hasita, ahaztu ezin den lan garrantzitsu bat aurrera ateratzen ari gara. Oinarria osatzen dugu, eta sarritan lan isila egin arren, lan segurua egiten dugu eta aurrerantz goaz. Foro honetan gutaz ez ahaztea nahi nuke. Emakumeak gara, eta gure etxe eta elkarteetan guztia gara. Eta badakigu zein den burutzen ari garen lana, urteetan zehar, pixkanaka, emakumeok izandako bilakaera ikusten ari gara eta”.

---

## ESKER ONAK

---

José Luis Bilbao Eguren, Lehendakaritza Saileko Foru Diputatu txit gorenak jardunaldiari amaiera eman dio eta amaitzean eskerrak eman dizkio Josu Bergara Etxebarria, Bizkaiko Diputatu nagusi txit gorenari eta jardunaldietan parte hartu duten hizlari guztiei, lan bikaina egiteaz gain, ekarpen aberatsak egin dituztelako.

Horrekin batera, eskerrak eman nahi izan dizkie jardunaldian parte hartu duten 230 lagunei, jardunaldiotan erakutsi duten interesagatik. Administrazioaren arlo desberdinetako langileak, erakunde pribatuetakoak eta gizarte eragileak oro har, izan dira jardunaldiotan parte hartu dutenak.

Azkenez, ekitaldia antolatu duen talde teknikoari eskerrak eman nahi izan dizkio eurei esker ekitaldia arrakasta handiz bukatu baita. Eskerrak eman dizkie antolatzaileei, interpretariei, laguntzaileei, informatika euskarrien teknikoei etab; eurek egindako lanagatik izan ez balitz, xehetasunik txikienak ere konpondu ezineko arazo bilakatuko baitziren.